ASTELEHENEKOA

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-03-04
ASTELEHENA
400. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Azken minutuko garaipena

Mondrak 1-0 irabazi zion atzo Aloñari | 22



Bi jokalari lehian. | IMANOL SORIANO

UNED Bergarako sistema "kolokan" patronoen murrizketengatik | 4

Leintz Gatzaga ere 'Zero Zabor' herria izateko bidean | 20



Maisu Aranoren kalea Teresa Garcia maistraren lanaz osatzen | 11



# Arrikrutz 250 lagunen babesleku Koben Egunean

Patxi Zubizarreta eta Peio Ramirezek ipuin musikatua eskaini zuten | 13

Kobaren atarian aurrena eta 53. galerian gero, esku soinuaren eta txeloaren melodia gehitu zieten Atxaga eta Joxe Arratibelen hitzei. | JOSETXO ARANTZABAL



Behargina lanean, antzina. | COPRECI

# Copreci ezin osasuntsuago bere 50. urteurrenean

Bi krisi handi bizi izan ditu etxetresnen osagaiak egiten dituen Aretxabaletako kooperatibak, baina oraingoa ez da horietako bat: 2012an, 2011n baino %10 gehiago fakturatu zuen, eta aurtengorako %5eko hazkunde aurreikuspena du. Etxetresna-ekoizle handi guztiak bezero ditu. | 2

## Bi eskoriatzar larri zaurituta auto istripuz zapatu gauean

Euren autoak aurrez aurre jo zuen beste batekin Arrasaten | 4



Eskoriatzako gizon-emakumeak zihoazen autoa. | MONDRABERRI

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

☎ 943 71 48 45

Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzazko garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:
- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com



Hasierako, 60ko hamarkadako argazki bat | ARGAZKIAK: COPRECI




Produktua, erakusketan.

# Osasun ezin hobean ospatuko ditu Coprecik 50 urteak

- Iaz, 2011n baino %10 gehiago fakturatu zuen
- Etxetresna–ekoizle handi guztiak bere bezeroak dira

**LEIRE KORTABARRIA** | ARETXABALETA

Bat, ez; bi krisi handi bizi izan ditu etxetresnen osagaiak egiten dituen Aretxabaletako Copreci kooperatibak. Oraingoa ez da horietako bat, izan ere, 2012an, nazioarteko krisiaren erdi-edian, Coprecik 200 milioi euro fakturatu zituen, 2011n baino %10 gehiago, eta aurtengo aurreikuspenak bide beretik doaz, %5eko hazkunde aurreikuspena du-eta. Beraz, sasoi ezin hobean ailegatu da bere 50. urteurrenera, eta hori izango da, duda barik, bazkideendako eta langileendako ospakizunik onena.

Zifra gehiagok ematen dute Copreciren egoera onaren berri: gas-sukaldeetarako 50 milioi txorrota baino gehiago eta garbigailu eta ontzi-garbigailuetarako 14 milioi ponpa baino gehiago egiten ditu urtero; horrez gain, indukziozko sukalde-gainetarako, berogailuetarako eta AEBetako barbakoetarako osagaiak ere egiten ditu, gaur egun dituen sei negozio-unitateetan. Horrez gain, betidanik kanpora begira eta irteeretan oso esperientzia ona izan duen enpresa da Copreci, eta gaur egun zazpi ordezkaritza edo lantegi ditu atzerrian: Mexikon –atzerrian ordezkaritza zabaldu zuen Mondragon Korporazio lehen kooperatiba izan zen, 1989an–, Brasilen, Txekian, Italian, Turkian, AEBetan eta Txinan.

### Kanpoan, esperientzia onak

Ane Gaztañaga da Copreciko presidentea eta, bere esanetan, Copreciren arrakastaren sekretua da "arazoei aurrez aurre begiratzen jakin" izatea. "Momentu zailak ere izan ditu, baina erabakiak hartu ditu eta asmatu egin du", azaldu du.

Batez ere gaur egungo krisi latzean enpresak aurrera egiteak zerikusi handia du esportazioekin, eta hala diosku Juanjo Arabaolaza arrasatearrak. Bera orain zortzi urte erretiratu zen, 42 urtean Coprecin lan egin eta gero. Delineante gisa sartu zen, 19 urterekin, eta produktu-teknikari gisa erretiratu zen. Horrez gain, Errektore Kontseiluko presidente izan zen bederatzi urtean; presidenteorde eta bokal ere bai. Bere esanetan, "oraingo krisia gogorrena da merkatuan, baina Coprecirendako, ez; Copreci ezin hobeto dabil, eta krisia ez igartzea esportazioei esker da. Ia merkatuko etxebizitza-tresna guztiek Coprecik egindako zatiak dituzte. Produkzioaren %70 eta %80 artean kanpora doa".

Ane Gaztañaga bat dator: "Esperientzia onak ekarri dizkigu beti atzerriak, bezeroari jarraituz atzerrira joateak; eta horri ateak ez dizkiogu ixten". Hala, baliteke etorkizun hurbilean beste herrialde batzuetan ere Copreciren ordezkaritzak zabaltzea; Errusian eta Egipton dauden aukerak aztertzen dabiltza arduradunak. Dena dela, dagoeneko munduko eskualde estrategiko guztietan dago: Europa mendebaldean, Euskal Herriko eta Italiako inplantazioekin; ekialdean, Txekiakoarekin; Asia hurbilean, Turkian, eta urrunean, Txinan; Amerika iparralde eta erdialdean, Mexikoko eta AEBetako ordezkaritzekin; eta Hego Amerikan, Brasilen.

Euskal Herrian ere lantegi bat baino gehiago dauka: Altsasuan dago bat, 2010eko maiatzean irekia.

### Bi langile hil ziren

Copreciren bi krisi handiak gogoratzen ditu Arabaolazak. Lehenengoa 1974an izan zen; lanik ez zegoen denendako: "Orduan, langile batzuk beste kooperatiba batzuetara joan behar izan ziren, baina gehienendako ikastaroak -eta antolatu ziren: planoak irakurtzen jakiteko, euren lanpostuen gaineko gauzak... Horrela libratu zen hura. Bestea, okerragoa,

**DATUA**

**200** MILIOI
Iaz, 200 milioi euroko fakturazioa izan zuen Aretxabaletako kooperatibak; aurtengo ere zifra onak aurreikusten ditu.

**%70** ESPORTATU
Coprecik ekoizten duenaren zati handiena, gutxienez %70, esportatu egiten du; horri zor dio, neurri baten, krisia gainditzea.

**1.500** LANGILE
Gaur egun, 1.500 langile ditu Coprecik mundu osoan; Aretxabaletan, 678, eta besteak, ordezkaritzetan.

'Las Viudas' eta 'Aitalia' antzezlanak
Montserrat Rodriguez
Nuria Colorado
ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

Martxoaren 8an, 22:30ean.
Elgetako Udaleko gizarte departamenduak lagunduta


Antzinako argazki baten, behargina Copreciren lantegian.


Garai bateko ikerketa–lanak.

Bestea, okerragoa, 1986an izan zen, Espainia Europako merkatu komunean sartu zenean. 1.200 langile ginen eta 750-800 geratu ginen; besteek beste kooperatiba batzuetara trasladatu behar izan zuten". Izan ere, fiskalitate berria ekarri zuen Europako merkatuarekin bat egiteak, eta arantzel berriek eta prima batzuk galtzeak kalte egin zion Aretxabaletako kooperatibari.

Momentu hartan, dagoeneko kooperatiben elkartasun sareak indarra zuen, eta hura ezinbestekoa izan zen aurrera egiteko, Ane Gaztañagak esaten duenez: "Produktibitatea asko hobetu behar izan zuen Coprecik, eta ia 200 lagun irten egin behar izan ziren Fagor taldeko kooperatibetara. Garai hartan Mondragon Korporaziorik ez zegoen, eta kooperatibak eskualdeko taldetan zeuden antolatuta. Fagorren laguntza ezinbestekoa izan zen Copreciren galera handiei bueltа emateko eta soberan zeuden langileak kokatzeko. Eta, jakina, Coprecin bazkide zirenen ahalegina eta lana ere ezinbestekoak izan ziren".

Hala ere, Coprecik bizi izan duen krisi latzena ez zen ekonomikoa edo produktiboa izan. 1995ean, zapatu goiz baten, Juanjo Arabaolaza Aretxabaletatik kanpo zela, bi langileri makina bat gainean jausi eta hil egin ziren. Arabaolazak ez zuen ezer jakin arratsaldera arte. Copreciko inork ez du hura ahaztu.

### Familia baten berdin-berdina

Alde onak, zorionez, gehiago dira Copreciren historian, Arabaolazak gogoan duenez: "Hemendik gauza asko ikasi ditut: zer den fabrika bat, eta familia baten berdin-berdina da; eta zer den pertsona, zer den gizartea, zer den mundua… gauza asko". Copreciren gaineko "albiste onena", berarendako, "nola doan ikustea da". Esaten duenez, gaur egungo langile eta bazkideak oso ondo ikusten ditu: "Asko ikasi dute, edo euren nortasuna ipintzen diote lanari, ez dakit; modu batera edo bestera, oso ondo egiten dute lan".

### Etengabe berritzen dute

Gaur egun, 1.500 langile inguru dabiltza Copreciren lantegi eta ordezkaritza guztietan, Aretxabaletako zentrala barne; eta gutxi gorabehera erdiak Aretxabaletan daude. Etxetresnak egiten dituzten ekoizle garrantzitsu guztiak Copreciren bezeroak dira: Fagor Etxetresnetatik hasita, gaur egun Bosch-Siemens, Whirlpool, Electrolux, General Electric, Indesit… ere ohiko bezeroak dira.

Berrikuntza gakoa da Coprecirendako, eta "bi norabidetan" egiten dute: "Batetik, funtzioa menderatzen dugu; hori beste ze teknologiarekin eman dezakegun aztertzen dugu, eta hor berritzen dugu; eta, beste aldetik, merkatutik oso gertu egoten gara, dauden beharrei guk menderatzen ditugun funtzioekin erantzuteko". Horrez gain, kudeaketan eta prozesuetan ere berritzen saiatzen dira.

Bezeroak espresuki adierazten ez dituen premiak asetzeko, negozio-unitateetan integratuta dago Coprecin berrikuntza. Horrez gain, Mondragon Unibertsitatean osagarrien gela dago, kooperatibendako aplikazioak garatzeko.

### Herriarengana gerturatu

Horrela ailegatu da Copreci mende erdira. Ospakizunen egitaraua ez dago guztiz itxita, baina helburuak argi dituztela diosku kooperatibako gaur egungo presidenteak, Ane Gaztañagak: "Atzerantz begira ospatu nahi dugu 50. urteurrena, baina baita etorkizunerantz begira ere. Uste dugu oraindik Coprecik badaukala ibilbidea, luzerako dagoela". Horrez gain, "herriarekin lotura sendotu" nahi dute, eta "Copreci talde global gisa sendotu, lantegien eta ordezkaritzen arteko harremanak ere bai; eta hornitzaileei, bezeroei, langileei eta langile izan daitezkeenei proiektu erakargarri gisa aurkeztu Copreci".

## ESANAK



**"Une bakoitzean, arazoei aurrez aurre begiratu eta erabakiak hartzen jakin izan du Coprecik"**

ANE GAZTAÑAGA
COPRECIKO PRESIDENTEA




**"Oraingoek oso ondo egiten dute lan; asko ikasi dute, euren nortasuna ipini diote lanari..."**

JUANJO ARABAOLAZA
BAZKIDE ERRETIRATUA


Antzinako argazki baten, emakumeak Coprecin lanean. | COPRECI

## Emakumeak, lan-taldearen %60

Emakumeak oso garrantzitsuak izan dira Coprecin, betidanik. Hala, Aretxabaletan diharduten 680 langile eta bazkide ingurutik %60 emakumeak dira; eta proportzio hori, handiagoa izan ez bada, hasieratik izan da lan-taldean. Juanjo Arabaolazak dioskunez, "lan motagatik" da, neurri handi baten: "Osagai txikiak dira, esku txikiagoekin hobeto maneiatzen direnak", esaten du.



IXADEBALDE
Aretxabaletako VI. merkealdi azoka

**Martxoak 9**, zapatua. **10:00etatik 20:00etara**
**Iturrigorri pilotalekuan**

- Musikaz girotutako azoka.
- 2 SARI BEREZI.
- 17:00etatik 19:00etara umeentzako tailerrak egongo dira.

Amaia ume denda
Orly
Kilima
Txilarra
Asensio
Haurrak
Gertu
Kioskoa
Belar Meta
M5
Brasileña
Tinta Beltza
Benito oinetakoak
Titare

ANTOLATZAILEA: aretxarte
LAGUNTZAILEAK: Aretxabaletako Udala, loramendi

# Bi eskoriatzar larri zauritu ziren auto istripuz Arrasaten

## Suhiltzaileen laguntzarekin ibilgailutik atera eta Gasteizko Txagorritxu Ospitalera eraman zituzten

**GOIATZ ARANA** | ARRASATE

Zapatu gauean, 22:05ean, gertatu zen istripua. Hyundai markako eta BMW markako auto banak aurrez aurre jo zuten Arrasateko saihesbidean, GI-627 errepidean. Istripuaren ondorioz, Hyundai markako ibilgailuan zihoazen bi lagunak, 69 urteko gizonezkoa eta 67ko emakumea, larri zauritu ziren; eskoriatzarrak dira biak. Suhiltzaileek atera behar izan zituzten ibilgailutik eta Gasteizko Txagorritxu Ospitalera eraman zituzten biak.

### Atxilotu bat

BMWaren gidariak positibo eman zuen alkoholemia frogan eta atxilotu egin zuten; edozein kasutan, Ertzaintzak ez du argitu nola gertatu zen istripua.

Gertaeraren ondorioz, errepidea erabat moztuta egon zen bi noranzkotan. Gauerdia pasatxo ireki zuten, autoak erretiratu eta obra publikoetako langileek errepidea garbitu eta gero.

Ez Ertzaintzatik ez ospitaletik ez zuten zaurituen gaineko berri gehiago eman egun osoan.



Aurrez aurre jo zuten bi ibilgailuek. | MONDRABERRI




Eskoriatzarrak zihoazen Hyundai markako autoa. | MONDRABERRI

# Gaur sartuko da indarrean garraio publikoan ibiltzeko Mugi txartel bateratua

## Herritar asko gerturatu da azken egunetan txartelaren gaineko informazio bila

**ARRITXU BARRUSO** | ARRASATE

Gaur, astelehena, jarriko da martxan Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak sortutako txartel bateratua: Mugi txartela. Honi esker, txartel bakarrarekin Gipuzkoa osoko garraio publikoan ibiltzeko aukera egongo da aurrerantzean.

Bada, txartel berriaren gaineko informazioa eskaintzera etorri dira asteon Debagoienera. Astelehenean Bergarako Agorrosin kirol-gunean izan ziren eta egubakoitzean, berriz, Arrasateko Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ). Informatzaileak lanpetuta ibili ziren bi hitzorduetan. Egubakoitzean, esaterako, herritar dezente joan zen BAZera eta zenbait momentutan ilara luzeak egin ziren. Txartela non eta nola eskuratu edota aurkeztu beharreko datuak eta dokumentuak ezagutu nahi zituzten gehienek.

### Tarifa bateratua

Txartel honen helburua da tarifa-sistema bateratu berria ezartzea, modu horretan erabiltzaileei bidaiak erraztuz.

Mugi garraio txartel berriarekin, gainera, autobus eta tren zerbitzu ezberdinak hartzeko aukera izango dute gipuzkoarrek: besteak beste, Lurraldebus, Euskotren edo Donostiako Dbus.

Hala ere, berrikuntza nabarienak tarifa eta deskontuetan izango dira. Bi multzotan sailkatzen dira: alde batetik, erabilera sarituko da, hau da, garraio publikoa gero eta gehiago erabiliz, bidaiak merkeagoak izango dira; eta bestetik, talde edo kolektibo jakin batzuetara bideratuta dauden laguntzak daude: erretiratuei, ezinduei, haurrei eta laguntza sozialak jasotzen dituzten familiei.

Talde hauei txartelean hamar euro sartzean bi euroko diru-saria ematen zitzaien lehen; orain hamar euro bakoitzeko 20,80 euro gehiago jasoko dituzte, hau da, %108ko hobaria jasoko dute. Informazio gehiago, *www.mugipuzkoa.com* webgunean eta 943 00 01 17 telefono zenbakian.

# Patronoen murrizketek "kolokan" jarri dute UNED Bergarako sistema

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Bergarako UNED zentroko hiru patronoen murrizketak direla -eta, orain arteko sistema presentzialean ematen ziren eskola orduak erdira murriztuko dira. Kutxak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako Udalak azaldu nahi izan dute murrizketa hauek ez dutela UNED Bergararen etorkizuna kolokan jartzen, eta Bergarako alkate Jesus Elortzak horri gehitu dio gainontzeko patronoek baino murrizketa txikiagoa egin dutela eurek, 10% ingurukoa; edozein kasutan, erabakia "latza" izan dela.

UNED Bergarako zuzendari Iñaki Espartzaren hitzetan, ez da erabaki erraza izan, baina "jendea ez kaleratzeko" martxan jarri duten neurria izan da. Diru sarrerak ia %20 jaitsi izanak Bergaran orain arte egon den sistema bikoitzari zuzenean eragingo dio: presentzialtasuna murriztuko da eta, Espartzaren hitzei kasu eginez, "teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak hobeto aprobetxatu" beharko dituzte.

### "Iruzur egin digute"

Irakasle nahiz ikasleen ikuspuntua zeharo ezberdina da. Klase presentzialak erdira murriztu ostean, ikasle batzuek "iruzur egin" dietela salatu nahi izan dute. Yolanda Duque ikaslearen kasua argia da: Gasteizen bizi da eta han UNED zentro bat izan arren, Bergaran dagoen sistema bikoitzak erakarrita hona etortzea erabaki zuen. "Murrizketa hauek Bergarako zentroaren izaeraren kontra doaz" zioen.

Irakasleek ere antzerako iritzia dute. Alberto Santanaren hitzetan, "hezkuntzan egiten diren murrizketek ikasleei ez ezik gizarteari ere egiten die". Hala ere, irakasleek greba japoniar erara egingo dute eta, momentuz, eskola orduak bermatuta daude. Ikasle eta irakasleek, gainera, protesta deitu dute egubakoitzerako, 18:55ean, San Martin plazan, murrizketen kontra.



UNED Bergara unibertsitateko tutoretza bat. | I.G.

### ESANAK

"Jendea ez kaleratzeko aplikatu beharreko neurria izan da"
**IÑAKI ESPARTZA** | UNEDEKO ZUZENDARIA

"Beste patronoek baino murrizketa txikiagoa egin dugu: %10ekoa, zehazki"
**JESUS ELORTZA** | BERAGARKO ALKATEA

"Hezkuntzan murrizketak egitea gizartean murriztea da"
**ALBERTO SANTANA** | UNEDEKO IRAKASLEA

"Bergarako zentruaren izaeraren kontra doa neurria"
**YOLANDA DUQUE** | UNEDEKO IKASLEA

goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua
IBILGAILUA NAHI DUZUN TOKIRA ERAMANGO DIZUGU:
- LANTOKIRA
- ETXEKO ATARIRA
AIREPORTUKO ZERBITZU EZIN HOBEA.
IBILGAILU-FLOTA ZABALA.
AUTOAK, EGUNEKO, 19,95 €TIK AURRERA.
INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:
943 71 66 52 / 619 44 71 75
info.goienarent@i-rent.es
www.goienairent.com

# Madalena auzoko lanek atzeratuko dute bidegorria

## Gasolindegiaren inguruko tunelean ur-sarrera handi bat aurkitu dute eta lanak moteldu egin dira


Epele eta Elorregi artean dagoen tunela. | IMANOL GALLEGO

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Badira zenbait hilabete Foru Aldundiak Arrasate eta Oñati bitarteko bidegorria egiteko ardura hartu zuela. Orokorrean bidegorriaren zatirik handiena eginda dagoen arren, Epele-Elorregi arteko tunelen egokitzapenak falta dira oraindik, eta baita Elorregiko biribilguneko eta Madalena auzoko tuneletako hainbat lan ere.

Azken pasabide honetako lanak martxa onean joan ostean, aste honetan, egiten ari diren tunelaren hormetako batean ur-sarrera batekin egin dute topo eta, langileen hitzetan, "ziurrenik lanak atzeratu egingo dira".

**Madalena auzoan motel**

Oñatira doan GI-2630 errepidea zeharkatzeko lanen erdiak egin ostean, tunelaren eskumako horman pitzadura txiki bat agertu da eta langileek ur-sarrera handi batekin egin dute topo. Ezustean aurkitu duten oztopo horrek lanak korapilatu egin ditu eta, ondorioz, tunelaren bigarren zatia amaitzeko zeuden epeak luzatu egin beharko dituzte.

Hala ere, beti ere Madalenan ari diren langileen esanetan, beste aldeko tunelaren zatia bukatzean auto-ilara luzeak sortzen dituen semaforoa kentzeko aukera egongo da. Honetarako, baina, bertako langileek ez digute data zehatzik eman.

**Arrasateko zatia bide onetik**

Epele eta Elorregiko bidegorriko lanak erritmo onean doaz eta, langile batek esandakoaren arabera, "ez da atzerapen handirik egongo". Une honetan gremio eta langile ugari ari dira bertan lanean eta horregatik akaso "atzerapen txiki batzuk" egon daitezkeela gaineratu zuen, baina egun lanak doazen erritmoa kontuan izanda, okerrenez, aste pare bateko atzerapena izango dela.

Bertaratzen diren oinezko eta txirrindulariek erraz ikusi dezakete bi tunelen sabaia estali dutela eta tunel barruko argiteriaren kableak batuko dituen erraila ere jarrita dagoela, ondorengo asteetan, argiteria jarri ahal izateko.


Elorregiko biribilguneko lanak. | I.G.


Madalena auzoan errepidea azpitik zeharkatzeko lanak. | I.G.



**Ainhoa Zuazu** | The Movie enpresako kidea, 'Euskalapps.net'-en egileak

# "Oso zaila zen ohiko lekuetan euskarazko aplikazioak topatzea"

- 'Euskalapps.net' plataformak euskarazko aplikazioak batzen ditu
- Aplikazioen egileen artean gehiago zabaldu nahi dute orain

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

The Movie enpresak garatu du euskarazko aplikazioak batzen dituen *Euskalapps.net* webgunea. Ainhoa Zuazuk, The Movieko komunikazio arduradunak, *Magazinea*-ko ekonomia saioan esan zuenez, "euskal aplikazioak bilatzeko" zegoen hutsunetik etorri da *Euskalapps* webgunea.

**Zer da *Euskalapps*?**

Euskal aplikazio guztiak biltzen dituen webgunea. Helburua da horiek zabaltzea eta euskarazko aplikazioen garapena bultzatzea. Ikusi zen euskal aplikazioak bilatzeko hutsunea zegoela, izan ere, erabiltzaileak Google Apps edo Apple Store-n bilatzen ditu, baina oso zaila da haiek topatzea. Orduan, plataforma bat sortzea erabaki zuten. The Movieren esku ipini zuten proiektua eta aurrera atera dugu.

**Nola erabiltzen da?**

Web orria da eta hiru zati ditu: hasierakoan, azalpen gisa, aplikazio berrienak eta, kategoriaka, eskuma aldean, dauzkagun aplikazio guztiak agertzen dira; baita denen artean gustukoena eta gehien deskargatuena zeintzuk diren. Bigarren zatia Merkatu App da, denda bat. Bederatzi aplikazio dauzkagu, lotura batekin, eta zuzenean horiek eros daitezke; beste guztiak ere eskuragarri daude baina Google Apps -era edo Apple Store-ra lotura dute. Eta hirugarren zatia, Sortu App euskarria, garatzaileei zuzenduta dago: baliabideak, ideiak elkartrukatu ditzaten foroak... hainbat tresna dauzkagu eurendako.



Ainhoa Zuazu, Goiena telebistako platoan. | LEIRE KORTABARRIA

> "Bi hilabetean, 5.000 bisita inguru izan ditu 'Euskalapps'-ek"

> "Garatzaileei tresnak eskaintzen dizkiegu: baliabide teknikoak, foroa..."

**Bi hilabete inguru dira *Euskalapps* merkaturatu zenutela. Ze balorazio egiten duzue orain arte?**

Hedabideen aldetik jaso dugun harrera oso ona izan da, eta erabiltzaileen aldetikoa ere bai; 5.000 bisita inguru izan ditugu. Baina garatzaileei ez zaie hainbeste iritsi, edo beldurragatik, beharbada, euren harrera ez da hain ona izan. Hori potentziatu nahi dugu, eta aplikazioak nola egiten diren ere erakutsi nahi diegu; garatzaile batzuek badakite, baina baliabide teknikoak eta ideiak emateko gunea ere badituzte *Euskalapps.net*-en.

**Askotariko aplikazioak daude *Euskalapps.net*-en. Aipatu ditzakezu batzuk?**

Kategoria dezente dauzkagu. Umeendako aplikazioen artean dauzkagu euskara lantzeko jokoak, liburuak, ipuinak, *Fixi eta bota magikoak*, deskargatuena; edo *Ikasitz*, euskal hitzak ikasteko aplikazio bat; eta helduendako ere, askotarikoak: *Txalapartapp; Txotx*, sagardotegien gida bezalako bat; eta gustukoenen artean, *Musean*, eta hori da gehien baloratzen eta deskargatzen dena.

**Hileroko sailkapenean ikusten dugu deskargatuenak umeen hezkuntzarekin lotutakoak direla...**

Bai. Pena da euskara bakarrik hezkuntzarekin lotzea; gustatuko litzaiguke beste arlo batzuetara zabaltzea, baina egia da aplikazio asko umeendako direla, hezkuntzarako aplikazioak eta euskara ikasteko balio dutenak.

**The Movie enpresakook baduzue beste proiekturik esku artean?**

Bai, beste birekin gabiltza: bat, Bizkaiko Turinea enpresarekin; 360 ibilbide tematiko dauzka, eta iPhone-rako aplikazioa sortu dugu, euren webgunean sartu eta erruta aukeratzeko. Eta beste proiektu bat hau da: guk turismo sektorerako aplikazioak garatzen ditugu, eta urte hauetan dugun esperientziagatik eta bezeroak ezagutzen ditugulako, Booking Euskadi sortu dugu, eta erreserba *on-line* egiteko erreferentziazko zentrala bihurtzea lortu nahi dugu.

# Udako lan-eskaintzak jaso ditu gazte bulegoak

**L.K.** | ARRASATE

Udako kanpaldietan eta udalekuetan begirale edo zuzendari gisa lan egiteko gero eta eskaintza gehiago jasotzen dabil Arrasateko Gazte Informazio Bulegoa. Hori eta jendea ere galdezka hasi dela kontuan hartuta, deialdi horien gaineko informazioa eman zuen Dorleta Kortazar teknikariak Arrasate Irratian.

Kortazarrek Aitziber Aranburuzabala kazetariari esan zionez, "udaleku irekietarako eta itxietarako langileak hartzeko bi formula daude: herri batzuetan zuzenean antolatzaileek kontratatzen dituzte, eta beste batzuetan, elkarteen bidez". Esan duenez, deialdiak egin dituzten herrien zerrenda dute gazte bulegoan. Bat azpimarratzearren, Kortazarrek Bertso Udalekuak azpimarratu zituen: "Bertsozale Elkarteak antolatzen ditu eta oso arrakastatsuak izaten dira. Eurek ere egin dute deialdia, eta begiraleak, zuzendariak eta sukaldariak bilatzen dabiltza. Epea martxoaren 15ean bukatzen da". Normalean, bertso mundukoak eta aisialdian esperientzia dutenak izaten dira lanerako. Udaleku baterako baino gehiagorako egin dute deialdia; batzuk zuzenean eurek antolatutakoak, eta beste batzuk, Foru Aldundiaren udaleku eskaintzakoak, nahiz eta Bertsozale Elkarteak kudeatutakoak izan.

**Ingelesezko udalekuak**

Atzerrira begira ere badaude lan aukera batzuk: Red Leaf enpresak ingelesezko kanpaldiak antolatu ditu Espainian eta Kanadan; eta beste antolatzaile batzuen hizkuntzak ikasteko kanpaldietan lan egiteko eskaintzak ere jaso ditu Arrasateko Gazte Informazio Bulegoak. Kortazarrek esan duenez, "hizkuntza-maila altuarekin eta, kasu gehienetan, 20 urtetik gorakoak izatea eskatzen dute".

Argibide gehiago *www.gaztebulegoa.com*-en dago.



Udalekuak. | ZUMALAKARREGI MUSEOA



EUSKADIKO KUTXA IPAR KUTXA

## Enpresak finantzatzeko hitzarmena

Euskadiko Kutxa Ipar Kutxako presidenteak, Txomin Garciak, eta Crédit Coopératif taldekoak, Jean-Louis Bancel-ek, Espainiarako eta Frantziarako lankidetza-hitzarmena sinatu dute. Horren arabera, Crédit Coopératifek Euskadiko Kutxako enpresa bezeroei finantzaketa eman ahal izango die, bai Frantzian bai Espainian. Hiru urtean iraungo du, eta 5.000.000 euro arteko proiektuak finantzatu ahal izango dira.

# Preferenteen dirua ez du eskatuko Legebiltzarrak

Eroskiri eta Fagorri preferenteen dirua eskatu nahi zion ekimena bertan behera geratu zen

**L.K.** | ARRASATE

UPyDk PSE-EErekin aurkeztutako ekimena bertan behera utzi zuen eguenean Eusko Legebiltzarrak: hain zuzen, Eroskiri eta Fagorri eskatzea milaka herritarrek ekarpen preferente subordinatu bidez ipini zuten dirua itzul dezaten. Hainbat kaltetuk Adicae elkartearekin batera egindako kaleko protesta ekintzen ondoren aurkeztu zen ekimen hori.

EAJk eta EH Bilduk batera egin duten testua aurrera irten zen egueneko sesioan. Horren arabera, "eusko labeldun preferente" deitutako aportazio horiek aipatu gabe, "neurri gabeko finantza-praktiken" kontra azaldu ziren, eta Kontsumobideri eskatu zioten ofizioz erabaki dezan produktu horiek kontratatu aurretik inbertitzaileek informazio argia eta osoa jaso zuten edo ez.

Ekarpen preferente horien bidez, 2002tik hona 845 milioi titulu saldu dira. Hainbat bankuk komertzializatu zituzten, tartean Euskadiko Kutxak. Eroskik eta Fagorrek, hain zuzen, esaten dute ipinitako kapitala berreskuratu ezin zela argi geratzen zela esku -orrietan, eta BMEBek ontzat emandako produktua zela. Argumentu hori gogorarazi zuen EAJk. EH Bilduk esan du ez duela eskatu kaltetuei dirua itzultzeko, izan ere, "kaltetuek eurek ez dute argi hori den soluzio onena".

Bihar, martitzena, gai hori izango da hizpide *Magazinea* -ko Ekonomia saioan.

**Iñaki Aldekoa** | Euskaltzain urgazlea

# "Ideologia guztien gainetik, Euskaltzaindiak hiritar guztien errespetua merezi duela uste dut"

- 2005etik dabil Euskaltzaindiako Literatura Batzordean; urgazle izendatu berri dute
- Literatura eta hizkuntzalaritza klaseak ematen ditu eta baita saiakerak idazten ere

A.ARANBURUZABALA | ARRASATE

Iñaki Aldekoa (Oñati, 1961), EHUko literatura eta hizkuntza irakaslea da 1987a geroztik, idazlea ere bada eta baita Erein argitaletxeko literatura zuzendaria ere. Izendapen berri bat jaso zuen baina, otsailaren 22an, Euskaltzain urgazle izendatu zuten-eta. Hiru seme-alaben aita da; egun, Donostian bizi da.

**Euskaltzain urgazle izendatu zaituzte orain gutxi. Zer da hori?**

Urgazlek laguntzaile esan nahi du. Gu ez gara euskaltzain oso; horiek dira Euskaltzaindiaz hitz egiten denean jendeari bururatzen zaizkionak: Ibon Sarasola Jean Haritshelar, Bernardo Atxaga, Xabier Kintana, eta halakoak. Gurea ezkutukoa da. Nik aipatu berri ditudan horietakoren batekin nago hilero elkartzen garen Literatura Batzordean. Batzorde horietan euskaltzain osoak eta urgazleak elkarren ondoan lan egiten dugu. Euskaltzain osoak urgazle izan dira lehenago.

**Sarritan galdetzen dizute Euskaltzain urgazlearen esanahiaz?**

Bai, egia esan; maiz erabiltzen den hitza den arren, inork gutxik jakiten du zer arraio esan nahi duen. Neronek ere hiztegian begiratu nuen, badaezpada ere.

**Zer dela-eta izendapen hori?**

Egia esan, ez diot garrantzia handiegirik ematen izendapen horri. Hara, 2005tik aurrera, egia esango badizut nire *Historia de la literatura vasca* (2004) (Euskal literaturaren historia, 2008) liburua argitaratu nuenez geroztik hona ari naiz lanean Euskaltzaindiaren Literatura Batzordean. Bide batez argitu, Euskaltzaindiako batzorde baterako deitua izateko, han eta hemen argitaratu behar izan dituzula lanak, bakoitzak bere esparruan. Literatura batzordean sartzeko baldintzen artean dago, era berean, doktore izatearena.

**Zelako lanak egiten dituzu Literatura batzordean?**

Ni sartu nintzenean *Literatur terminoen hiztegia* lana burutzen ari ziren. Euskaltzaindiako webean dago orain. Gure zeregina da literaturarekin zer ikusirik izan duten idazle askoren mendeurrenaz arduratzea, eta ahal denetan egileari buruzko argitalpen bat paratzea. Omenaldiak ez dira bakarrik mendeurren edo post mortem izaten. Momentu honetan Euskal literaturaren antologia handi bat prestatzen ari gara.

Monografia eta liburu horietan hartu dut parte, eta hitzaldiak eman eta artikuluak ere argitaratu ditut. Literatura batzordeari egokitzen zaio, era berean, Literatura Sari Nazionaletako epaimahaietan egotea, nahiz eta ni lan horretan ez naizen izan.



Iñaki Aldekoa idazlea berak idatzitako 'Historia de la literatura vasca' liburua eskuetan duela. | EREIN

**Zure iritziz, gizarteak zer daki Euskaltzaindiaz? Eta zer jakin beharko luke?**

Nik uste dut Euskaltzaindiak gizarte osoaren oniritzia behar lukeela eduki. Ideologia guztien gainetik Euskaltzaindiak euskal hiritar guztien errespetua merezi du. Beste kontu bat da hori duen edo ez, eta zergatik.

**Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea ere bazara.**

Garai bateko ETEO-n egon ondoren, EHUko irakaslea naiz. 1987tik gaur arte eman ditut klaseak unibertsitatean. Literatura klaseak eta hizkuntzaren eta literaturaren didaktikak eman ditut, Donostiako Irakasle Eskolan eta Gasteizko Letren fakultateko master eta doktorego saileetan, besteak beste. Eskola katedraduna naiz 1999tik geroztik.

**Idatzi ere egiten duzu, idazlea ez zarela diozun arren.**

Ez naiz idazlea, idazlea baldin bada literatura idazten duena. Literaturan ipuin gutxi batzuk baino ez nituen idatzi, eta tartean txiripaz *Ignacio Aldecoa* saria irabazi nuen. Baina hori oso urruti geratzen zait, 1989an gertatu zen-eta. Saiogile moduan ikus nezake neure burua, saiakera akademikoan, ez bete-betean hizkuntza akademiko zurrunean, hori baino askeago idazten saiatzen naiz. Baina beti ere literatura eta artearen inguruan.

**Laburbildu zure idazle ibilbidea.**

Antologiak eta beste kontuan hartuta zortzi bat liburu idatzi ditut. Aurrenekoa Atxagaren *Obabakoak* liburuari buruz idatzi nuen, nirea izan da haren obraz idatzi zen lehena, eta baita *Obabakoak* liburuari buruz argitaratu zen aurrenetako kritika ere, "Literatura Gazeta"n. *Antzarra eta ispilua* zuen izenburua liburu hark eta 1992an argitaratu zen. Gero poesiari buruzko saiakerak idatzi nituen *Zirkuluaren hutsimina* (1993); Gabriel Arestiri buruzko *Munduaren neurria* (1998); *Mendebaldea eta narraziogintza* (1998), batzuk aipatzearren.

**'Historia de la literatura vasca' izan da zure lanik entzutetsuena.**

Liburu horrek nire ibilbide oso bat bilduko luke. Horrelako lan bat idazteko lan monografiko edo idazle askoren lanei buruzko lanak idatzi behar izaten dituzu aurretik. Baina gerora ere jarraitzen dut han beharbadada sakondu gabe geratu ziren puntuak sakontzen; esate baterako, XVI. mendeko Etxepare poetaren gainekoak edo XVIII. mendeko Peñafloridaren eta Barrutiaren antzerkiaren ingurukoak ari naiz ikertzen eta idazten.

> **"Euskaltzain osoen lanekin alderatuz, urgazleon lana ezkutukoa da"**

> **"Literatura eta hizkuntzaren didaktika klaseak ematen ditut"**

> **"Beti nago zerbait idazten, beti findu daiteke-eta gure iraganaren historia"**

> **"Gutenberg-etik Interneterako aldaketa soseguz ari da gertatzen"**

**Zein genero duzu, baina, zuk gustukoen?**

Irakurtzeko narrazioa eta saiakera aukeratuko nituzke; idazteko, berriz, saiakera aukeratuko egun. Baina garai batean poesia irakurle amorratua izan nintzen, eta baita ipuin irakurlea ere. Orduan egin nituen pare bat antologia, bata poesiarena, Madridik eskatutako *Antología de la poesía vasca* (1991) eta bestea institutu askotan irakurri zen *Euskal ipuinen antologia bat* (1993).

**Euskaraz eta gazteleraz idazten duzu. Zeren arabera bat edo bestearen aldeko aukeraketa?**

Kanpoko eskaria denean gazteleraz idatzi izan dut. Esate baterako, *Historia de la literatura vasca* hori idatzi nuenean buruan nuen modeloa zen guretzat, Bartzelonako batentzat eta Berlingo batentzako ulergarri gertatzea. Ulergarri esaten dudanean literatura paradigmaz ari naiz, harako eta honako balioko lukeen maila berean jardutea. Eta ez maiz gurean egin ohi den moduan, txokokerian eroriz. Kanpoan gure literaturaren berri edo jakin gura izan nahi dutenetan, liburu hori aipatu izan dute sarritan.

**Baduzu une honetan lanen bat eskuartean?**

Beti nago zerbait idazten. Eta enkargu asko ere jasotzen ditut. Badakizu, beti findu daiteke gure iraganaren historia.

**Erein argitaletxeko literatura zuzendaria ere bazara.**

1994ko udaberrian hasi nintzen Erein-eko kontuekin: argitaratuko ziren liburuak aukeratu, aurkezpenak egin, horien literaturaz idatzi eta halakoak egiten.

**Arriskuan ikusten duzu paperezko formatua digitalaren aurrean?**

Gutenberg-etik Interneterako aldaketa, soseguz ari da gertatzen. Urte batzuk beharko dira parekatzeko; eta gero paperari digitalak irabaziko dio. Baina urte batzuetan biak egongo dira.

**Horrenbeste liburu artean murgilduta izaten zarenez, gomendatuko dizkiguzu batzuk?**

Etxekoak gomendatuko dizkizut: Saizarbitoriaren *Martutene;* Pello Lizarralderen *Orbanak*; Bernardo Atxagaren *Obabakoak* (25 urteak ospatzeko aitzakiarekin); ospe handia hartzen ari den gazteleratik itzulitako Dolores Redondoren *Zaindari ikusezina* eta haurrentzako adibidez, Toti Martinez de Lezearen *Nur* liburua.

## ZABALIK



**AMAGOIA LASAGABASTER**
http://goiena.net/iritzia/

# Aizkora ondo zorroztuta

Hezkuntza eta osasun sistema publikoari eutsiko diogu. Horrek esan nahi du doakoa eta unibertsala izango dela aurrerantzean ere. Hezkuntzan eta osasunean ez dugu artazirik sartuko. Hezkuntzan eta osasun sisteman egin beharreko *ajusteak* ez dituzte erabiltzaileek sumatuko… Horiek, momentuan momentuko agintariek ahoan darabilten esaldi borobilak.

Gertuko senitarteko batek hiru autobus hartzen ditu, astean bost aldiz, Donostia Ospitalean erradioterapia saioa hartzeko. Bueltan beste horrenbeste autobus hartuz iristen da, neka-neka eginda, etxera. Esan diote "bere kasurako", mozketak direla-eta, ez dutela anbulantzia zerbitzurik.

**"Botikak norberak ordaindu behar, doako anbulantzia zerbitzu gutxi..."**

Beraz, politikari txit agurgarriok, artaziak bakarrik ez, aizkora ere majo erabili duzue hainbatetan. Herritarrei, beraz, gezurrik ez!

Uste nuen zintzo-zintzo ordaintzen ditudan zergek eta kotizazioek horrelako zerbitzuak estaltzeko balio zutela… inuzentea! Ospitaleetan gero eta langile gutxiago, pribatizazioak nonahi, botikak norberak ordaindu behar, agiririk gabeko etorkinak osasun sistematik kanpo, doako anbulantzia zerbitzu gutxi… inork azalduko dit nora doan gure dirua?

Zergak dira aberastasuna banatzeko sistemarik onena. Daukanak ez daukanari eman! Baina krisi ekonomiko bedeinkatu honek erakutsi digu gehien dutenek gutxien ordaintzen dutela. Solidaritatea zer den ere ez dakite, iruzurgile profesionalak dira, diru-gose ase ezina dute… aberats jaio, aberats izan eta oraindik ere aberatsago hil nahi. Zein gaixotasun da hori?

Indian kasta batekoak kasta berean jaio eta hiltzen dira. Zein desberdintasun dugu haiekin? Lagun batek zioen moduan, "bizitza guztia aurrezten pobre izateko", horixe gure etorkizuna. Ezagutzen duzue guk bezalako bizitza duin eta zintzoa eramanez 22 milioi Suitzan duenik?

## USTEAK USTE

**UBANE MADERA** | Kazetaria

# Batasunaren indarra agerian

Kritikak arin-arin esaten ditugun moduan, gauza onak azpimarratzea ere tokatzen zaigula uste dudanez, horixe egin behar dut. Elkartasun keinu bat txalotu nahiko nuke: Mbaye Ndiayeren heriotzaren ondorengoa. 32 urteko senegaldarra ezustean hil ostean, haren gorpua jaioterrira bidaltzeko laguntza deialdia egin, eta astebetean 17.000 euro batu ziren Soraluzen, Bergaran eta Elgoibarren. Soraluze ipini dut lehenengo, nire jaioterria izateaz gain, bertan batu zirelako 14.000 euro. Esan beharrik ez dago hori lortzeko ia herri guztiak parte hartu zuela, kolore, pentsamendu eta jatorri guztien gainetik. Emaitzak erakusten du hori dela biderik eraginkor eta egokiena. Denerako.

## KALE INKESTA

# Zer iruditzen zaizu Aita Santuak karguari uko egin izana? Nola ikusten duzu elizaren egungo egoera?



**IÑAKI CACHO**
ARRASATE

"Ondo iruditzen zait. Nik uste dut azken urteetan elizak oso joera diruzalea izan duela. Aita Santuak bere arrazoiak izango ditu karguari uko egiteko".



**IÑIGO GARCES**
ARRASATE

"Egia esan behar badut, niri parra. Uste dut hurrengoa oraingoa bezain txarra izango dela. Elizara gero eta jende gutxiago joaten da".



**MIREN GURUTZE UNDA**
ARRASATE

"Niri berdin zait kargua uzten duen edo ez. Zaharregi sentitzen bada, ba ondo iruditzen zait. Gaur egun elizaren egoera nahiko ahula da".



**ASIER NEKETAN**
ARRASATE

"Orain arteko Aita Santu onena izan da. Publikatu duen azken liburuan ere badio Bibliaren beste irakurketa bat egin daitekeela".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Abentura-nobela eta tragedia-poema

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
http://eibar.org/blogak/amatino/

*Argo* omen da aurtengo filmik onena eta *Amor,* berriz, ingelesez ez direnen arteko onena, Oscar sariei jaramonik egingo badiegu behintzat.

Horretara, garbi dago, aurrena bigarrena baino hobea omen. Bai ote?

Auskalo. Hain dira berdinezak eze, nekez direla alderagarriak. Bai, biak dira zinema, nobela eta poesia literatura diren neurri berean, baina ez dakit ba nik erkagarriak ote diren.

*Argo* ipar-amerikarra da, heroi-mundua, atzerri-politika eta xenofobo samarra; Hollywood eta teknologia; ekimena, presa, heldu ezina; fikzioa gainditzeko besteko errealitate aztoratua. Sekulako zurrunbilo bilbatua, maisuki txirikordartua, nahiz gero trantze larritan elkar ezagutu duten pertsonaiak lauak izan, lañoak, hotzak, urrunak, nortasunbakoak. Eta, jakina, ondo amaitzen da.

*Amor* europarra, ostera, geldoa geldorik bada, astitsua, laxoa, erloju gabekoa; ez da heroi ezagunik eta, izatekotan, ez du behatzailerik izango, ez medailarik jasoko.

Protagonistak musika-adituak dira, irakurzaleak eta, antza, ez dute telebistarik ere.

Sekuentziak bizitza bera bezain latzak eta gogorrak dira, ikuslea ezeroso sentiarazteko bestekoak.

Eta, jakina, txarto amaitzen da.

*Argo,* inoiz gertatua izan arren, abentura-nobela da. Gutako inork sekula bizi izango ez duena.

*Amor,* aldiz, inork asmatutako historia bada ere, tragedia-poema da, gutako edonork bizi lezakeena.

*Argo,* larunbat arratsaldean eta erdi lotan, telebistaz ikusteko moduko thrillerra.

*Amor,* berriz, igande-arratsean eta zinean, neskalagunari helduta barneratu beharreko drama.

Auskalo *Argo Amor* baino hobea ote den. Halatsu erabaki berri dute adituek. Eta hala izango da.

Baina, nik neuk behintzat, Sanjuanak aurretik *Argo* erabat ahaztuko dut eta, behar bada, *Amor,* ez dut urtetan burutik kenduko.

# Uretan

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Haurretatik matxismoa arnastu eta matxismoaren erdian ohitu denak, nekez du matxismoa ikusten. Gauza bera gertatzen da ustelkeriarekin, arrazismoarekin, gure egunerokotasunaren uretan murgilduta bizi diren eta arnasten ditugun beste hainbat gauzekin. Errealitate betikoak bezain egunerokoak izaki, muinetaratuta dauzkagu, ez gara haietaz ohartzen. Dira, hor daude. Baina ez ditugu ikusten. Guretzat, ez dira. Eta horregatik harritzen gara eta mintzen, inork zerbait aurpegiratu orduko: "Ni, arrazista?".

Gauza begi-bistakoenak dira esplikagaitzenak.

Hori ilustratzeko, David Foster Wallace idazleak ipuintxo bat kontatzen zuen: bi arrain gazte arrain zaharrago batekin gurutzatu dira. Zaharrak gazteak agurtzen ditu, eta uraren epela aipatzen die. Arrain batek besteari galdetzen dio: "Ura? Zer da ura?".

Ura zer den ere ez dakien arrain bati nola adierazi ura kutsatuta dagoela…

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Goiatz Arana
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:**
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:**
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




## GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO MARTXOAN

### ADI EGON!

GOIENA Klubeko **4.000 bazkideon artean** martxoan honakoa zozketatuko dugu.

aisia HOTELES DEBA

### 3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.

### 3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).



**Parte hartzeko**

BaserriSarea
Korrika
Arrikrutz

**SMS:** KLUBA [**SARIAREN IZENA**] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** *kluba@goiena.com*
**WhatsApp bidez:** KLUBA [**SARIAREN IZENA**] [bazkidearen zenbakia]688 69 00 08 zenbakira.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

### BASERRISAREA .COM

BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.

Debagoiena BASERRI SAREA Auzolanean zurekin



### KORRIKA

KORRIKAko materiala dugu GOIENA KLUBEKO bazkideen artean zozketatzeko (kamisetak, polarrak...)

aek




### ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

ARRIKRUTZ oñatiko obak





### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

**2 erosi 1 ordaindu.**
Eureka! Zientzia Museoko eta planetariumerako sarrera bat erosi eta prezio bereko edo merkeagoko beste bat jasoko du doan.

Izena: ..........................................
Abizena: ......................................
Bazkide Zenbakia: ....................

eureka! zientzia museoa

Kupoi horien balio-epea 3 hilabetekoa izango da.

**DESKONTUAK:** ***www.goienakluba.com***

NINIKA LORADENDA
ALZU
Esko Sport
JAIXAK disfrutatzeko oparixak
LILURA EDERTZE INSTITUTUA
lastai
AVIA Estación de Servicio ARRASATE
BEGI ONDO
Etxe-Aundi Hotela · Jatetxea
gāhir fisioterapia osteopatia
GAES Centros Auditivos Entzumen zentruak
Guztiz eder
naren
MULTIÓPTICAS lehena zerbitzu optikoetan
ARRIKRUTZ oñatiko obak
IMPRESPAL INPRIMATEGIA
kuttuna ESTETIKA ZENTROA
Izotz Jauregia TXURI-URDIN
Biotika
caravanas oñate
DONOSTIA SAN SEBASTIAN AQVARIVM
PEUGEOT OÑATI GARAJEA
eureka! zientzia museoa
argia



## Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Igor Oyarbide** | EAJko Ingurumen zinegotzia Bergaran (2003-2007)

- Hondarribiarra izan arren, Bergarara bizitzera etorri ostean izan zen zinegotzi
- Udalean ingurumen kontuez arduratu zen, besteak beste, Agenda 21 abiaraziz
- Bere ustez, ingurumena zaborra kudeatzea baino gehiago da

# "Zinegotzi izateko aukeratzen zaituztenean lana izaten duzu buruan, ez aberats egitea"

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Kasu kuriosa da Igor Oyarbiderena, gaztea eta hondarribiarra izan arren, Bergaran izan zelako zinegotzi. Hemen emaztea topatu eta aurretik politikan sartzeko asmorik izan ez arren, lau urtez egon zen Bergarako Udalean. Oyarbidek hasieratik argi izan zuen ez zuela politikatik bizitzeko asmorik. Kontrara, bere ikasketen bitartez jasotakoa emateko garaia iritsi zela pentsatu zuen.

**Topikoetatik urrun sartu zinen politikan. Gaztea, herrira iritsi berria...**

Beno... Nik ez nuke horrenbeste esango. Bergarar batekin ezkondu eta hona etorri ostean bururatu zitzaidan politikan murgiltzea. EAJko kide egin ostean eskaini zidaten zinegotzi izatea eta gonbita onartu nuen. Egia esan, aukera ona iruditu zitzaidan: batetik, herria hobeto ezagutzeko aukera izango nuelako; eta bestetik, ezagutzen ez nuen arlo bat kudeatzeko erronka interesgarria zirudielako. Oso mutil aktiboa nahiz eta horregatik sartu nintzen politikan.

**Hortaz, zure ustez, politika jasotakoa erakutsi eta gauza berriak ikasteko toki aproposa da.**

Halaxe da, bai. Enpresa ikasketetan kudeaketari buruz asko jaso nuen eta ingurumenean interesa eduki arren ez nuen alor hori gehiegi ezagutzen. Gauzak honela, elkartruke on bat izan zela uste dut, gestioaz nekiena martxan jartzeko aukera izateaz gain, ingurumenaz asko ikasi nuelako. Politikak herritarrekin, erakundeekin... hartu-eman handiago bat izateko aukera ematen dizu. Nire kasuan, herrian integratzen lagundu zidan. Dena den, zinegotzi lana onartzean lana izaten duzu buruan, ez aberats egitea.



Oyarbide zinegotzi zela, San Martzial ermitako inguruak ordenatu eta berreskuratu zituen Udalak. | IMANOL GALLEGO

**Zu zinegotzi zinenean ingurumena ez zen arlorik garrantzitsuena.**

Nire ustez, Bergaran beti izan da gai xume bat. Hirigintza bezalako arloei garrantzi gehiago eman zaie. Adibide gisa, gogoan daukat Hirigintza eta Ingurumen komisioak ordu berean izaten zirela, nahiz eta bi esparruek zerikusi handia izan. Une hartan ez geneukan tekniko espeifiko bat, eta horrek gauzak zailtzen zituen. Hala ere, horrekin guztiarekin eta aurrekontu txikia genuela kontuan izanik ere, helburu gehientsuenak betetzea lortu genuela esango nuke.

**Zure ustez, non dago zuk egindako lanen aztarna?**

Garai hartan, agenda lokala martxan jartzea lan handia izan zen. Ez zegoen ezer eginda eta Bergarako Agenda 21a martxan jartzea ez zen erronka txikia izan. Agenda horri esker, hurrengo urteetan egin genituen proiektuen ildo nagusiak finkatzeko aukera izan genuen. Horrez gainera, komisio bakoitzak bere lana egiten zuen eta, ingurumentik elkartruke handiago bat behar zenez, komisioen arteko esparru komunak ere sortu genituen. Hala ere, Agenda 21a martxan jarri izana azpimarratuko nuke.

> "Zinegotzi izateak Bergaran integratzen lagundu zidan"

> "Ingurumen gaiekin Mendia Bizirik taldeak asko lagundu zigun"

**Zergatik hori?**

Agenda 21ek, hiru eremuren bitartez, udal baten lan esparru guztia jorratzen duelako. Agenda bat baino, filosofia bat dela esango nuke. Horri esker, Udalaren arlo ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena hobeto kudeatzen ikasi genuen.

**Ingurumena zaborrarekin lotzen dugu, baina arlo zabalagoa da.**

Egia esateko, zaborra Mankomunitatetik era zentralizatu batean kudeatzen zenez, beste proiektu batzuei heldu genien. Bergarako zarata mapa, flora eta fauna berreskuratzeko ekimenak, eguzki plakak jarri genituen zenbait eraikin publikotan...

**Guztia egiteko dagoen arlo batean nondik hasi?**

Zenbait proposamen eta proiektu Udaletik bertatik irteten ziren, baina nire kasuan, Mendia Bizirik taldearen laguntza izan nuen. Oso elkarlan aberasgarria izan zen eta horri esker proiektu egokiak gauzatzea lortu genuela esango nuke.

**Ea bustitzen zaren. Atez atekoari buruz zein iritzi duzu?**

Ez naiz bustiko. Argi dago erakunde guztiak zaborra murrizteko ahaleginak egiten ari direla, baina gakoa sisteman dago. Zein da onena? Ez dakit, garrantzitsuena herritarrei entzutea da.

Arrasate OPTIKA OPTOMETRIA

Kontzeziño kalea 6 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 25 98
www.arrasateoptika.com
arrasateoptika@euskalnet.net




Optometria konportamentala
•
Ukipen lente bereziak
•
Ikusmen terapia
•
Pertzepzio zailtasunak
•
Jatorrizko erreflexuak

# HERRIAK

ARRASATE

# Maisu Aranoren kalea Teresa Garcia maistraren lanaz osatzen

## Intxorta 1937 elkarteak eskatu dio Udalari kalearen izena aldatzea; bihar landuko da, osokoan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasateko Portaloi ondoan dago Felix Aranoren omenezko pasealekua. Bada, bihar Arrasateko Udalak osoko bilkuran onartzen badu, Felix Arano eta Teresa Garcia maisu-maistrak izena hartuko du kale horrek aurrerantzean. Intxorta 1937 Kultur elkartearen ekimenez heldu da kalearen izena aldatzeko eskaera Arrasateko Udalera: "Gobernu batzordetik pasa da eskaera eta orain osokoak izen aldaketa babestea espero dugu", adierazi du Julia Monge elkarteko kideak.



Portaloi ondoan kokatua, Maisu Arano pasealekua hainbat arrasatearren elkargune da gaur egun. | JOKIN BEREZIARTUA

### Kutsu erlijiosorik ez eskolan

Teresa Garcia Hernandez (Zaragoza, 1862) 1881eko abenduaren 11n izendatu zuten maistra. Felix Arano Saenz de Adana (Agurain 1858), berriz, astebete lehenago, 1881eko abenduaren 4an. Felix Arano pertsona liberala zen, ez sinestuna: "Honakoa esaten zuten Aranoren gainean: jakinduria, zintzotasuna, lanerako gogoa zuena eta ona izaeraz. Hizlari bikaina, ez zuen gogoko idaztea. Batez ere harreman pertsonalak zituen gogoko. Pertsona adoretsua eta dinamikoa zen, baina diziplina gutxikoa; ibiltaria ere bazen, pauso arinean ibilaldi luzeak egitea zuen gogoko".

Teresa Garcia, sinestuna izan arren, hezkuntzari kutsu erlijiosoa kentzearen aldekoa zen. Bien ustez, izaeraren trebatzea eta hezkuntza morala ziren funtsezko zereginak eskolan.

### Pedro de Viteriren eskoletan

Intxorta 1937 Kultur elkarteko kideek egindako ikerketaren arabera, metodo berriak ekarri zituzten irakaskuntzara: "Humanitatearen arau pedagogikoak nabarmendu zituzten: askatasuna, tolerantzia, zintzotasuna, izaeraren trebetasuna, hezkuntza morala, naturaren defentsa, bokazioa bultzatzea... Pertsona nagusieko errespetua bultzatu zuten, eta elbarrituak zein ezinduak babestu behar direla irakatsi zuten".

Teresa eta Felix Altsasun hasi ziren eskolak ematen baina, 1902an Pedro de Viterik Arrasaten eskola sortu behar zuela jakin zutenean, oposizioetara aurkeztu ziren. 245 gizon eta emakumeren artean lortu zituzten maisu eta maistra postuak. Jakin beharra dago Biteri eskoletan Europako pentsamendu ilustratua oso presente zegoela garai hartan: "Arrazoia zegoen iluntasunaren gainetik: askatasuna, tolerantzia, naturaren defentsa, hezkuntza, zientzien irakaskuntza...". Teresa eta Felix bat zetozen eskola horietako ideia berritzaileekin eta uko egiten zieten irakaskuntza egokitzeari, dogma ofizialei, erlijio edo politika gaiei bereziki.

### Maistra izaten lehenetakoa

Bestalde, emakumeek bizi zuten diskriminazioa oso agerikoa zen XIX. mendeko bigarren erdialdean. Hezkuntza gizonei zegoen bideratuta, emakumeak kargu publikoetatik kanpo zeuden. Ezin da ahaztu emakumeek botoa emateko eskubidea, esaterako, Bigarren Errepublikan lortu zutela, 1933ko azaroko hauteskundeetan. Urte haietan mugimendu feministaren lehen eskaeretako bat zen emakumeek hezkuntzarako sarbidea lortzea. Beraz, egoera hartan emakume gutxi zebilen maistra moduan lanean: "Teresak ereduaz aldarrikatu zuen hori, emakumeak ordura arte gizonendako ziren lanbideetan aritzeko gai zirela". Bada, Altsasun maistra jardun eta gero, Arrasaten maistren artean lehenetakoa izan zen, eskola laiko eta zibil baten. 1924ko apirilaren 26an hartu zuen erretiroa, 64 urte zituela.

Intxorta 1937 Kultur elkarteko kideek nabarmendu dute Teresa Garciaren "lan handia" ahaztuta geratu dela eta errekonozimendua merezi duela: "Emakume horren lana itzalpean geratu zen. Non geratu zen Teresa? Ez kalerik, ez omenaldirik, ezta aipamenik ere", diote elkartekoek.

## Ezkutuko lana azaleratzen

Intxorta 1937 Kultur elkarteko kideen arabera, Teresa Garciak "eginkizun oso garrantzitsua" izan zuen: "Teresa Garcia da, bere garaiko hainbat eta hainbat emakume bezala, benetako ahaztu horietako bat; agian errekonozimendu bakarra heldu zitzaion ikasleen aldetik". Garai hartan emakumeen lana ez zen aintzat hartzen eta orain, kalearen izena aldatzeko proposamenarekin, Intxorta 1937 Kultur elkartekoek Garciaren ezkutuko lana azaleratu gura dute.



Teresa Garcia. | INTXORTA 1937

ESANAK

**"Gobernu batzordetik pasa da eskaera eta osokoak izen aldaketa babestea espero dugu"**

JULIA MONGE | INTXORTA 1937




Kalea izendatzeko gaur egungo plaka. | J.B.


Artzain debagoiendarren gaztek arrakasta izan zuten. | IMANOL SORIANO


Debagoieneko Kroxeters taldekoak zuhaitzak gantxilloz apaintzen. | I.S.


Burruntzian erretako bildots pintxoak prestatzen. | I.S.

OÑATI

# Artzain Egunak gazta, bildotsa eta txakolina ekarri zituen Oñatira

## Hitzorduak mugimendua sortu zuen txantxikuen herrian eta gutxik egin zieten muzin gutizia txiki horiei

**GOIATZ ARANA** | OÑATI

Oñatira heltzea eta bildots erre usaina hartzea, biak bat, izan ziren zapatuan. Izan ere, gure artzainek ekoizten dituzten produktuak ezagutzera emateko helburuarekin, gaztak dastatzeko eman eta saldu ez ezik, Debagoieneko bildotsak burruntzian erre eta pintxotan eman zituzten.

Bailarako artzainek Idiazabal jatorriko ardi latxaren esne gordinez nahiz ardi latxaren esne ekologikoarekin egindako gaztak izan ziren aukeran, zaharrak eta berriak; eta kasu batzuetan, baita ahuntz eta behi gaztak ere. Erosi aurretik probatzeko aukera izan zuten salmenta puntuetara gerturatutako herritar eta bisitariek eta, hartara, erosi aurretik gehien gustatzen zaiena zein den jakiteko modua izan zuten. Saltzaileak pozik agertu ziren salmentak nola joan ziren ikusirik, nahiz eta jendeak gazta osoa baino gehiago erdia edo laurdena erosten zuela kontatu ziguten. Erosleek zaporea hartzen zuten aintzat gehienbat, baina asko eta askok bertako produktua izatea baloratzen zuten gehien.

### Bildots erre pintxoak agortuta

Sei-zazpi kiloko 20 bildots ekologiko erre zituzten burruntzian eta pintxotan saldu; 1,5 eurotan bakoitza. Eta usaina ez ezik zaporea ere aparta zuten nonbait, guztiak saldu zirelako; eta pintxoa laguntzeko, Arrasateko Otxia eta Oñatiko Upain txakolinak. Gatzatu tailerra ere egin zuten, eta ondo joan zen hori ere. Orotara, goiza "borobil" joan zela kontatu digute antolatzaileek.

### Zuhaitzak dotore

Bitartean, Debagoieneko Kroxeters taldeko lagunek gantxillo lanekin apaindu zituzten Foruen plaza ondoko zuhaitzak.



**GARIKOITZ GARAI**
ETXEZURI BASERRIA

"Artzain Egunak plaza aproposa eskaintzen digu: saltzeko egun ona da eta gure produktuak ezagutzera emateko aproposa. Jendeak probatu egiten du eta gehien gustatzen zaiona erosi; zaporea hartzen dute aintzat gehienbat".



**PEDRO SOLOGAIZTOA**
OÑATI

"Zer dagoen ikusiz buelta bat eman dugu, eta oraintxe nindoan gazta pintxoa jatera. Bildots errea probatzeko asmoa ere badut, baina geroxeago, orain sekulako ilara dago-eta. Etxean Oñatiko gazta izaten dugu beti".



**JONE LETAMENDI**
OÑATI

"Denetik dago gaur hemen. Bildotsa jan dugu eta primerakoa zegoen, laguna beste pintxo bat erostera joan da. Gazta zalea, aldiz, ez naiz hainbeste. Ekimen honek asko animatu du gaur giroa, jendea etortzera animatzen dut".


IMANOL SORIANO

OÑATI

# Fruta-arbolak eta lore gogorrak

Foruen plazaren alde baten Artzain Eguneko ospakizunak, eta bestean Zuhaitz Azokarekin lotutakoak izan ziren zapatuan Oñatin. Eguraldia bikain portatu zen, eta alaitasuna, kolorea eta bizia eurekin daramaten lore eta landareek are gehiago egin zuten dirdira; fruta-arbolak eta lore gogorrak izan ziren salduenak. Atzo, berriz, 60 bat lagunek 120 zuhaitz landatu zituzten Kasablanka-Ulma bidegorri zatian.


IMANOL SORIANO

BERGARA

# Osintxuarrak borobil asteburuan

Osintxuarrek asteburu ederra igaro dute festa giroan. Izan ere, San Emeterio eta San Zeledonio ospatu dituzte. Hala, bariku gauean *Emakume basatia* izeneko helduentzako ipuin saioaz gozatu zuten Maider Galarza ipuin kontalariaren eskutik, Txuringua tabernan. Zapatuan, berriz, bertso afaria egin zuten, Amets Arzallus eta Julio Soto bertsolariekin. Txuringua tabernako jatetxea bete egin zen eta giro ezin hobean jardun zuten osintxuarrek.

OÑATI

# Lur azpiko kontinentean 250 lagun barneratu dira Koben Egunean

**MAIDER ARREGI** | OÑATI
Ikerne Altubek, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako arduradunak, balorazio positiboa egin du: "Koben Egunak harrera ona izaten du; eta gaur, eguraldi onari esker, 250 lagun inguru etorri dira Arrikrutzera; beraz balorazioa oso positiboa da". Altubek azpimarratu zuen, koba guztietako bisitak kontuan hartuta, guztira bi mila lagun pasako zirela lurpetik Koben Egunean. Arrikrutzen, esaterako, toki askotako jendea batu zen, Gipuzkoa eta Bizkaikoa gehienbat.

**Ipuin musikatua**

Patxi Zubizarreta eta Peio Ramirezek 53. galerian ipuin musikatu goxoa eskaini zuten eguerdian. Atxaga eta Joxe Arratibelen hitzei esku soinuaren eta txeloaren melodia gehitu zieten.


Patxi Zubizarreta eta Peio Ramirezek ipuin musikatua eskaini zuten kobaren atarian eta 53. galerian. | JOSETXO ARANTZABAL



**KRISTINA ETA ENEKO**
ANDOAIN

"Egunkarian irakurri genuen Koben Eguna zela eta erreserba egiteko deitu genuen. Andoaindik familia osoa etorri gara. Lehen aldia da Arrikrutzera gatozela".



**IKERNE ALTUBE**
TURISMO ARDURADUNA

"Kanpotik jende asko etortzen da gaurko egunean; eta gaur gainera, ikusita zelako eguraldia egin duen, jende gehiago animatu da; baita herrikoak direnak ere".



**XANTI LARRARTE**
TOLOSA

"Bageneukan asmoa Arrikrutzera etortzeko, ez genuen ezagutzen-eta; lagunak animatu gara. Koben Eguna aprobetxatu eta hementxe gaude".



**IZASKUN MARTIN**
ZORNOTZA

"Ez neukan egun honen berri. Lagunek animatu ninduten eta, eguraldi onak lagunduta, taldean etortzera animatu gara Arrikrutzera, inoiz egon gabe gaude-eta".



**VIRGINIA, IZASKUN ETA KONTXI**
TOLOSA

"Sarrera erdi prezioan dagoela-eta aprobetxatu dugu. Egun polita da eta aurtengoan animatu egin gara eguraldi aparta zetorrela ikusita. Arrikrutzeko 53. galeria ikusteko gogoa geneukan. Kobak guztira 15 kilometro ditu, Gipuzkoako handiena omen da; gu 500 metrorekin konformatuko gara".

CALIDAD TURISTICA
*leku eta egun ahaztezinak*

Etxe-Aundi
Hotela - Jatetxea
Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com






**Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea**



Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak
- Parking handia
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa…

Etxe-Aundiren zilarrezko ezteiak ospatzen ditugula-eta, 2013an ezkontza-bazkaria gurean egiten duten bikote guztiek Tenerifera astebeterako eta mantenu osoan joateko egingo dugun zozketan parte hartuko dute.



Takarraran emakumeen lasterketaren bosgarren edizioa zapatuan egingo da, hilak 9. Irudian, iazko edizioa. | ARTXIBOA

# Berdintasunaren bidean, denetariko ekintzak asteon

## Udaleko Berdintasun Sailak eta Emakume Txokoak antolatu dute egitaraua

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Urtero moduan, Udaleko Berdintasun Sailak eta Emakume Txokoak egitarau berezia antolatu dute martxoaren 8ari begira. Emakumearen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko aukeratu duten leloa argia da oso: *Feminismoaren bidetik, emakumeak libre!* Lelo horrekin irtengo da egubakoitzeko manifestazioa Seber Altube plazatik (19:00).

**Dokumental interesgarria bihar**

Ekintzak bihar hasiko dira eta egitaraua jardunaldi feministek itxiko dute apirilaren 19an eta 20an. Izan ere, zapaturako aurreikusita zegoen *Komunikabideak eta boterea. Irakurketa feminista bat* tailerra ez zen egin jende faltagatik. Hala ere, antolatzaileek aurreratu dute tailerreko gidari izan behar zen Arantza Santesteban apirileko jardunaldi feministetan egongo dela.

Aste honetako ekintzei erreparatuz, bihar *Mariposas en el Hierro* dokumentala eskainiko dute Kulturaten (19:30). Berttha Gaztelumendi kazetari ospetsuaren obra da eta bertan hainbat indarkeria motaren biktima izan diren emakumeen testigantzak biltzen dira. Dokumentalean parte hartzen duten emakume guztiek helburu bera dute: indarkeria gainditzea eta bake zein justizian oinarritutako etorkizuna lortzea. Sufrimendutik itxaropenera egindako bidaia da filma.

ETAren indarkeria, indarkeria instituzionala, indarkeria matxista eta emakume etorkinek edo etxetik kaleratutakoek bizi duten egoera jorratzen dira, besteak beste.

**60 postu zapatuko azokan**

Egubakoitzeko manifestazioaz aparte, zapatuan bi ekintza garrantzitsu egingo dira. Batetik, Seber Altube plazan emakume artisau eta baserritarren azoka egingo da: "Eskaintza ahalik eta zabalena izaten saiatu gara eta horren arabera antolatu ditugu postuak", dio Amets Beltran de Gebara Emakume Txokoko dinamizatzaileak. 60 bat postu espero dituzte goizeko azoka horretan.

Egun berean egingo da Takarraran lasterketa, 12:30ean. Aurrez izena emateko hiru aukera daude: Emakume Txokoa, BAZ edo kiroldegia. Hala ere, egunean bertan izena eman ahalko da, 12:00ak bitartean.

### MARTXOAREN 8KO EGITARAUA

**Martxoak 5, martitzena:** *Mariposas en el hierro* dokumentala. Osteko solasaldia, Arantza Urkaregi eta Ainhoa Aznarezekin, euskaraz eta espainolez. Kulturateko areto nagusian, 19:30ean.

**Martxoak 8, egubakoitza:** Manifestazioa *Feminismoaren bidetik, emakumeak libre!* lelopean. Seber Altube plazatik irtengo da, 19:00etan.

**Martxoaren 8tik 22ra:** Martxoaren 8ko kartel ezberdinen erakusketa Emakume Txokoan.

**Martxoak 9, zapatua:** Emakume artisau eta baserritarren azoka, goizetik eguerdira bitartean, Seber Altuben.

**Martxoak 9, zapatua:** Takarraran emakumeen lasterketaren bosgarren edizioa 12:30ean. Portaloitik irtengo da eta egunean bertan izena emateko aukera egongo da.

**Martxoak 16, zapatua:** *Pantojismo o arrebato personal* izeneko tailerra, Belen Nevadoren eskutik. Izena emateko, deitu Emakume Txokora (943 79 41 39).

**Apirilak 19 eta 20:** Jardunaldi feministak. Egitarau osoa zehazteke dute antolatzaileek.

# Arizmendiko hiru ikasle aurrera Europako Gazte Parlamenturako bidean

## Irati Lopez, Iker Bengoetxea eta Leire Carreras dira bigarren faserako txartela lortu dutenak

**J.B.** | ARRASATE

Otsailaren 23an, Europako Gazte Parlamentura iristeko lehenengo kanporaketa jokatu zen Bilbon, eta Arizmendi Ikastolako talde bat, beste birekin batera, bigarren faserako sailkatu zen. Arizmenditik bi talde joan ziren: Arrasateko Gaztelupe eta Eskoriatzako Almen. Bada, Gaztelupeko hiru kidek hurrengo fasera pasatzea lortu zuten, zazpi talderen artetik lehenak izan ostean. Taldea osatzen duten ikasleak Batxilergoko lehen mailako Odei Marcos, Nagore Etxebarria, Maitane Mayor, Irati Lopez, Iker Bengoetxea eta Leire Carreras dira. Azken hiru horiek lortu dute Espainia mailako kanporaketarako txartela.

Zazpi taldek hartu zuten parte eta hiru sailkatu dira: IES Fene, Lauaxeta Ikastola eta Arizmendi Ikastolako Gaztelupe. Epaimahaia Marta de Benito, Carla Celda eta Laia Silviak osatu zuten, eta kontuan izan dituzten irizpideak honakoak izan dira: ingelesaren erabilera, parte-hartzea, ezagutza orokorra eta diziplina. Bigarren kanporaketa Bilbon bertan jokatuko da, apirilaren 25etik 28ra.

**Abesbatza eta erizaintza**

Bestalde, Arizmendik beste bi ekitaldi garrantzitsu izango ditu datozen asteetan. Batetik, zapatuan, XXVI. Eskola arteko Abesbatzen Topaketa egingo dute Amaia antzokian (17:00). Disney pelikulen hainbat kantu ezagun abestuko dituzte, euskaraz.

Horrez gain, martxoaren 13an, Lanbide Heziketako erizaintzako laguntzaileei zuzendutako jardunaldiak egingo dituzte Kulturaten –09:00etatik 16:00etara; luncha egongo da 14:15ean–. Jardunaldietan parte hartu gura duenak akreditazioa eskatu beharko du, martxoaren 8a baino lehen. Zainketa aringarriak izango dira bosgarren edizioko gaia eta moderatzailea Marisa Uribe, Debagoieneko ESIko erizain laguntzailea, izango da.



Arizmendiko ikasle talde bat, Bilbon. | ARIZMENDI IKASTOLA

### TAO, kale zein zinegotzi berri baten izendapena eta hiru mozio, eztabaidagai bihar osoko bilkuran

Martxoko ohiko osoko bilkura egingo dute bihar (18:00). Besteak beste, TAO sistemaren hasierako onarpena eztabaidatuko da. Hasierako asmoa da unibertsitate inguruan jartzea TAO proba modura. Horrez gain, Iraia Sola ordezkatuko duen Miren Josebe Landaluze zinegotziaren kargu-hartzea gauzatuko da bihar. Bestalde, hiru mozio izango dira mahai gainean, eta Intxorta 1937 Kultur elkarteak eskatuta, Maisu Arano kaleari Felix Arano eta Teresa Gartzia maisu-maistrak izena jartzea eztabaidatuko dute.

### Udaberriko Musikaldia eta Korrikaren etorreraren antolakuntza izango dute hizpide gaur Tokikoan

Gaurko Tokiko Gobernu batzarrean hainbat gai landuko dituzte. Besteak beste, Udaberriko Musikaldiaren bederatzigarren edizioa antolatuko dute. Gainera, Korrika 18 batzordeak martxoaren 20rako prestatu dituen Korrika txikia eta beste zenbait eskaera aurkeztuko ditu Kultura eta Jaietako batzordeak. Batzorde berean eztabaidatuko da Arrasate rugbi taldeak Seven txapelketa antolatu ahal izateko eskatu duen dirulaguntza. Bestalde, hiri autobusaren ibilbidearen handitzea ere izango dute hizpide.

# Lorontziak dendetan, Ibai-Arteren irudi gisa

**Ibai-Arte merkatari elkarteak ekimen berri bat abiatu du: elkarteko kide diren zenbait denden atarietan lorontziak jarri dituzte. Helburua da, elkartearen irudi bateratu bat emateaz gain, komertzioak dituzten kaleak apaintzea: "Herritarrak gustura sentitzea nahi dugu, kaleak erakargarriagoak eginez", diote.**





IBAI ARTE ELKARTEA

# Hamaika istorioz betetako Erdiko kaleko 40. zenbakia, 160 urtez

▸ Seigarren belaunaldiko Arantza Arantzabal Soto da Resusta Karrikiri dendako jabea

▸ Herriko denda adintsuenaren ibilbidea, amaigabeko istorio eta gorabeheraz josia

**MAIALEN GONZALEZ** | ARRASATE

"Karrikiri dendak zehazki zenbat urte dituen ezin da jakin, XIX. mendearen seigarren hamarkadan izan ziren zenbait zirkunstantziak data zehatza jakitea zailtzen dute -eta". Halaxe dio Jose Mari Velez de Mendizabal historialariak. Hala ere, jakin badakigu Arrasateko saltokirik adintsuena dela. Aurten 160 bat urte beteko ditu.

**Karrikiri familia**

Karrikiri (*r* bakarrarekin) nafar jatorrizko sendi baten abizena da. Aurreneko kidea XIX. mendeko lehen hamarkadan heldu zen Arrasatera. Pedro Jose aramaioarra, Maria Andresa Gorosabel garagartzarrarekin ezkondua. Florentzio semea (Aramaio, 1810) Arrasaten bere etxea izan zuen lehen karrikiritarra izan zen. Etxe hori Erdiko kaleko 40. zenbakikoa da; hain zuzen ere, Karrikiri dendaren eraikina. "Zenbait idazkiren arabera, Florentziok 1844an erosi zuen eraikin osoa. Badirudi, nahiz eta daturik ez dudan jaso, Karrikiriren lehen denda Zarugalde kalean egon zela", dio Velez de Mendizabalek.

**Lehen karrikiritar arrasatearra**

Florentzio Gasteizera joan zen bizi izatera eta Bartoloma alaba nagusiaren esku utzi zuen Arrasaten zeukan jabegoa. Bartoloma da, hain zuzen, Arrasaten jaio zen lehen karrikiritarra, 1839an. Baina etxearen jabetza ez zitzaion modu zuzenetik heldu, senarraren bidez baizik. Gaspar Baltasar Resusta Altunarekin ezkondu zen Bartoloma, 1862an. Almacenes de Cerrajeria enpresako buru Jose Maria Resustaren anaia zen Gaspar, eta harekin egiten zuen lan. 1864an, Florentziok zeukan etxeko hipotekaren zati bat Gasparrek kitatu zuen eta gainerakoa bere gain hartu zuen. Horrela, Florentziok bere suhiari aldatu zizkion ezkerraldeko denda eta solairu bereko beste areto batzuen jabetza. Salmenta horiekin, Florentziok lehen bi hipotekak kitatu zituen eta etxearen eskuinaldeko jabetza mantendu zuen. "Alde horretan Florentziok beste denda bat zeukan, hipotekako idazkitik ondorioztа daitekeenez", dio Velez de Mendizabal historilariak.

**Gaspar Resustaren heriotza**

1873an zendu zen Gaspar Resusta. Testamentuan, anaia Jose Maria izendatu zuen betearazle. Eta Bartoloma seme-alaben erantzukizun osoarekin geratu zen, Jose Maria koinatuaren laguntzarekin. Horrela, Resustak eta Miguel Madinabeitiak –biak koinatuak, Madinabeitiaren arrebarekin ezkonduta baitzegoen Resusta– hitzarmen bat sinatu zuten. Horren bidez, Resustak bere denda Madinabeitiari transferitu zion, bi urterako. "Zehazkizunen arabera, Florentzio Karrikirik izenpetutako hipotekako denda eskualdatu zen. Eta 1875ean, Madinabeitiak itzuli egin zizkion denda eta salgai zituenak".



Arantza Aranzabal Soto, Resusta Karrikiri dendako jabea, Asun Loiti langilearekin. | MAIALEN GONZALEZ

**Bartoloma Karrikiri**

1881eko abenduan, etxearen eskuinaldeari 20 bat urte lehenagotik zegokion hipoteka kitatu zuen Bartolomak, baita etxe osoaren jabetza bereganatu ere, dendaren titularitatea barne. Resusta sendiaren partaide izateagatik Bartolomak goi kontaktu ugari zituen eta negozioaren oinarri sendoak jarri zituen. Hiribilduko gunerik estrategikoenean kokatuta, denda pertsonaia ugariren topaleku ere izan zen. "Kasu horretan jarri behar da, adibidez, Bartolomak Pablo Uranga pintorearekin izan zuen adiskidantza". Bartolomari bere seme Ziprianok hartu zion lekukoa: Zipriano Resusta Karrikirik, alegia.

**Karrikiri, eta ez Karrikirri**

"Oraindik gaur egun gutariko askok pentsatzen dute deitura hori gaitzizena dela. Gertatzen dena da Karrikiri abizenaren kokapena gero eta urrutiago geratzen ari dela sendiarenekoen artean", dio Velez de Mendizabalek. Dolores Resusta Olañetak (1896) jarraitu zuen Ziprianoren negozioarekin. Anizeto Arantzabal Gantxegirekin ezkondu zen Dolores. Haien seme Roberto Arantzabal Resusta izan zen Karrikiri dendako bosgarren belaunaldia. Julia Soto Albisurekin ezkonduta, erretiroa hartu ondoren, Alaba Arantza da dendaren jabea.

**Seigarren belaunaldia**

Gaur egun, Arantza Arantzabal Soto da Karrikiri dendako ardura daukana. Arantzaren hamaikagarren abizena da Karrikiri. "Nik Zuzenbidea ikasi nuen, baina, gurasoen erretiroa heldu zenean, negozioarekin jarraitzea erabaki nuen. Txikitatik denda hau nire bizitzaren parte izan da, baita familiarena ere. Betidanik ikusi ditut gurasoak eta amama Dolores jo eta ke hemen lanean. Azken finean, historiarekin jarraitzeko erabakia hartu nuen", dio Arantzak.


Zipriano Resusta Karrikiri eta sendia. | J.M. VELEZ DE MENDIZABAL


Dolores Resusta, laugarren belaunaldikoa. | J.M. VELEZ DE MENDIZABAL

**ESANAK**

**"Negozioarekin jarraitu izana historiarekin bat egitea da"**

ARANTZA ARANTZABAL SOTO | JABEA

**DATUA**

**6**

BELAUNALDI

Belaunaldiz belaunaldi, gaur egun Resusta Karrikiri moduan ezagutzen dugunak 160. urtemuga du aurten.



Lokatza Ziklismo Eskolako txirrindulariak egueneko aurkezpenean. | JONE ALBENIZ

# Bergarako ziklismo taldea denboraldi berrirako prest

- Lokatza Ziklismo Eskolak denboraldi honetan arituko diren txirrindulariak aurkeztu ditu
- Debabarreneko Mikel Aristi Euskadiko profesional mailan estreinatuko da aurten

**MAITE FRAILE** | BERGARA

Ilusio eta gogo handiz aurkeztu zituen Bergarako Lokatza Ziklismo Eskolak maila eta adinaren arabera sailkaturiko 24 txirrindulariak. Aurten Euskadiko profesional taldean arituko den Mikel Aristi aurkeztu zuen lehenik, afizionatuen taldearekin batera: Eibarko Debabarrena taldeko bost txirrindulari, Arrasateko Kanpanzarreko bi eta Beasaingo Ekiko bat.

Alebin taldeko hamaika urteko hiru txirrindulariren eta infantil taldeko Iñigo Aranburu antzuolarraren txanda heldu zen ostean; kadete taldeko beste laurena, segidan; eta gazte zein jubenil taldeko 11 txirrindularirena, azkenik.

### Talde lehiakorrak

Iaz oso emaitza onak lortu zituzten Bergarako Lokatza osatzen duten taldeek eta, aurtengorako aurreikuspenak onak izan arren, 2012ko emaitzak gainditzea zaila izango dela diote.

Migel Angel Larrañagak, Lokatza Ziklismo Eskolako lehendakariak, gazte zein jubenilen taldea indartsu ikusten duela azpimarratu du. Talde hau ibarreko hamaika txirrindularik osatzen dute: gehiengoak bergararrak dira, zortzi hain zuzen, eta gainontzekoak, Oñati eta Antzuolakoak. Kadete taldekoei dagokienez, oso gazteak direnez, lehendakariak dio txirrindularitzan aritzen ikastea dagokiela; eta infantilei buruz esan du iaz baino gazte gutxiago daudela. Beraz, "aurten ikastoletan mutikoei bizikleta kirol bezala saldu ko diegu".

Bestalde, udalen eta babesleen murrizketen eraginez, iaz baino bi lasterketa gutxiagotan parte hartuko dutela aipatu digu: "San Martingo lasterketan ez gara izango".

Lokatza taldea gogotsu eta ilusioz ageri da denboraldi berria hasi eta emaitza onak lortzeko, baina talde bergararraren jomuga nagusiena izango da mutilek txirrindularitzan ikasi, gozatu eta taldea utzi ezkero, kirolarekiko zaletasuna barneratuta izan dezatela lortzea.

---

**MIGEL ANGEL LARRAÑAGA** | LOKATZAKO LEHENDAKARIA

## "Gure asmoa da lasterketetan iaz bezain onak izatea, baina ez da erraza"


JONE ALBENIZ

Denboraldia hasteko ilusio handiarekin agertu da Bergarako Migel Angel Larrañaga.

**Denboraldia hasteko prest al zaudete?**

Noski baietz, izugarrizko gogoa dugu. Sei hilabetetan zehar gogor entrenatzen aritu gara eta hainbeste denboraren ostean irrikitan gaude denboraldia hasteko.

**Nola ikusten dituzu taldeak?**

Talde guztiak oso lehiakor ikusten ditut, indartsuak dira eta irabazteko ezaugarriak dituzte. Talde jubenila gogor ikusten dut, eta baita kadeteak, infatilak eta alebinak ere. Dena den, gure helburu nagusia ez da hori, mutilek txirrindularitzan ikasi eta gozatu dezatela baizik. Bestalde, gerora, taldea uzterakoan, zaletasuna izaten jarraitu dezatela nahi dugu.

**Aurten aldaketaren bat eduki al duzue lasterketetako antolakuntzan?**

Bai, lasterketetarako prest eta gogotsu egon arren, ezin izango dugu denetan lehiatu. Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoaren egoerak nabarmen eragin digu, udalek eta babesleek diru laguntza gutxiago emango baitigute, eta ondorioz, aurrekontu txikiagoa izango dugu.

**Zein da Euskal Herriko lasterketa garrantzitsuena?**

Ospe zein entzute gehien daukan lehiaketa Gorlako igoerarena da. Ondoren, urte asko dituen Pazkoetako lasterketa eta San Martingoa. Aurten, baina, aurrekontu faltaren eraginez, ez gara San Martingo lasterketan izango.

---

## LASTERKETAK

**MARTXOAK 24**
Gorlara igoera

**MAIATZAK 1**
Labegaraietako proba

**MAIATZAK 19**
Pazkoetako lasterketa

**EKAINAK 8**
San Antonioko proba

# 197/2006 doktrina bertan behera uzteko eskatu dute Udal Gobernuak eta EAJk

## Banderen auzia dela-eta, plazan adierazpen askatasunaren aldeko oroigarri bat jarriko dute

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Otsailaren 25eko osoko bilkuran hainbat mozio izan zituen berbagai Bergarako Udalbatzak. Hasteko, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina bertan behera uzteko eskatu zuten Bildu, Aralar eta EAJk.

Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak aho batez ebatzi zuen 197/2006 doktrina ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela eta horregatik Bergarako Udalak doktrina hori bertan behera uzteko eskatu zuen joan den asteleheneko osokoan: "Nazioarteko giza eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu".

Horrez gain, Udal Gobernuak eta EAJk aro berriari ere egin zioten erreferentzia: "Euskal Herrian bizi dugun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoen aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek". PSE-EE alderdiak bakarrik bozkatu zuen aurka eta, beraz, aurrera egin zuen mozioak.

**Banderarena, "inposaketa"**

Bestalde, banderen auzia dela-eta, beste mozio bat aurkeztu zuten Bildu, Aralar eta EAJk, gai zerrendatik kanpo. Udala ez dago ados Espainiako bandera udaletxeko balkoian jartzera behartzearekin: "Bergararron gehiengoaren sentimenduen aurkako inposaketa onartezina da". Horrez gain, San Martin plazan adierazpen askatasunaren aldeko oroigarri bat jartzea adostu dute, "non bergarar gehiengoaren sentimendua" jasota geratuko den. Sozialisten kontrako botoarekin onartu zen.

Martxoaren 8a dela-eta, Udalak ateratako adierazpen instituzionala aho batez onartu zen; besteak beste, indarkeria sexistaren aurka borrokatzeko politikak eta berdintasun politikak "etengabe" uztartzeko konpromisoa hartu dute. Azkenik, PSE-EEk Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari eskatu zion Gipuzkoa osoko hiri hondakinen kudeaketa barne hartzeko "bokazioa" manten dadin. EAJk alde bozkatu zuen baina, Bildu eta Aralarren kontrako botoekin, mozioak ez zuen aurrera egin.

### Makillaje ikastaroa eta emakumeen afaria izango dira asteon Osintxuko herri batzarraren eskutik

Aste bukaeran Maider Galarzaren ipuin kontaketa saioa eta Amets Arzallusek zein Julio Sotok gidatutako bertso afari ederra izan ostean, bihar makillaje ikastaroarekin hasiko dira Osintxun. Martitzenero elkartuko dira, 19:00etan. Bestalde, egubakoitzean, hilak 8, emakumeen afaria egingo dute.

### 'Kuba aldaketa ekonomikoak: sozialismo eredu berria' hitzaldia bihar Migel Altuna Institutuan

Yailenis Mulet Kubako ekonomiaren ikerketa zentroko adituak hitzaldia eskainiko du bihar Kuban martxan dauden eraldaketa ekonomikoak gai hartuta. Euskadi-Cuba elkarteak eta Komite Internazionalistak taldeak antolatu dute ekitaldia. Migel Altuna Institutuan izango da hitzaldia, 19:00etan.



Arrasateko Portaloia | M. M.



Zerrajerako giltzarrapoak. | M. M.



Bergarako Zubieta behatokia. | M. M.

# Debagoieneko txoko eta objektuen ilustrazioak

- Mikel Murgizuren lanak Itzala tabernan ikusgai
- Argazkiak oinarri hartuta egindako koadroak dira

A. ARANBURURZABALA | ARRASATE

Debagoienean bereziki, baina baita Zarautz, Deba eta Donostian ere, berak eta bere anaia Josuk ateratako argazkiak oinarri hartuta egiten ditu Mikel Murgizuk koadroak. Paperezkoak dira, kartoi markoarekin aukeran. Horietako batzuk Arrasateko Itzala tabernan daude ikusgai.

Laugarren erakusketa du Arrasatekoa, aurretik Bergaran ere erakutsitakoa da. Oraingoan, garai bateko Zerrajeran egiten ziren burdinazko plantxak eta giltzarrapoak ditu, herriko txokoetako irudiez gainera; besteak beste, Portaloiaren irudi bitxia. Iaz egindako lanak dira Itzalan daudenak: gehiago dituen arren, zazpi ekarri ditu. Une honetan, Soraluzeko taberna batean ere baditu beste batzuk erakusgai.

**Hemengo ilustrazioak**

"Ez dira margoak, ilustrazioak dira", dio Murgizuk. Argazkiak ordenagailuan sartu, bertan margotu eta plotter edo inprimagailu handi baten inprimatzen ditu eta ondoren berniz bat ematen die babes moduan. "Kolorea ez galtzeko eta zikinik ez hartzeko ematen diet berniza; gainera, denborarekin zikinduz gero, trapu bat pasatzeko aukera ematen du horrek".

**MIKEL MURGIZU**
ILUSTRATZAILEA

**"Jende asko etorri da eta hitz ederrak esan dizkidate"**



MIKEL MURGIZU

Zaletasuna etxetik datorkiola dio. Aita eta arrebak margolariak ditu; amak, berriz, koadernaketak egiten ditu.

**Plumilla, eskulturak eta orain ilustrazioak.**

Bai, eta, egia esan, oso gustura nago, pozik. Hurbildu direnek hitz ederrak esan dizkidate. Jendeak asko eskertu du erakutsitako eguneroko tresna edo txokoen ikuspegi ezberdina. Luzatu egin dugu erakusketa, martxoan ere hemen izango ditut.

**Saldu ere egin dituzu.**

Bai, horixe. Ez zen hori helburu nagusia, baina... Portaloiarena, esaterako, segituan saldu zen. Tamainaren araberako prezioak jartzen dizkiet: 60, 80 edo 100 euro bakoitza.

Zer margotu aukeratzeko orduan, irudiak sinpatikoa izan behar duela dio. "Eguneroko objektuak direnean dira margotzeko politenak. Oso gustukoak dira, adibidez, Zerrajerako plantxa eta giltzarrapoa. Eginak ditut, era berean, Bergarako Otsein lantegiko garai bateko kordadun bizarra mozteko makinak. Trukua, baina, argazki on bat ateratzean dago, duda barik".

Argazkiak margotzeko aukeratutako koloreak, berriz, biziak dira. "Nire kasara noa margotzen, eta, bukatuta dagoela uste dudanean, geratu eta inprimatu egiten dut. Marko barik uzten ditut batzuk; beste batzuei, berriz, sistema berri batekin, kartoi berezi batean inprimatuz, markoa egiten diet".

**Aspalditik da margolaria**

Aspaldi dabil pintura eta baita brontzezko eskulturak egiten ere. Hala ere, ilustrazioetarako grina lanetik etorri zitzaion orain hiru urte. Lanean asko erabiltzen duen Photoshop programari beste erabilpen batzuk ematen hasi zen orduan. Eta asmatu egin zuen, antza, erakusketak izan duen harrera ikusita: jende askok ikusi ditu, saldu ere saldu ditut eta erakusketa gehiagotarako proposamenak jaso ditut".

ATARI
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA



Bizilagun komunitateen eta garajeen gestio administratibo guztiak egiten ditugu.

Ibargarai 1 BERGARA | Tel.: 943 76 70 49 | atari@atariadministrazioa.com | www.atariadministrazioa.com

# Etxe tutelatuekin eztabaida, osokoan

## Bestetik, futbol zelai berriaren araudia onartu zuten

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

San Martingo etxebizitza tutelatuena izan zen otsaileko osoko bilkuran eztabaida sortu zuen puntua. Hutsik dagoen San Martingo orube batean etxebizitza tutelatuak egitea proposatu zuen Bilduk, baina EAJk kontrako botoa eman zuen, "gaia batzordeetan landu barik, presaka edo inprobisatuta" aurkeztu zuelako Udaleko gobernu taldeak.



Eguenean egin zuen otsaileko osoko bilkura udalbatzak. | O.E.

### Etxe tutelatuak

Aurreko legealdian San Martin gunean egindako promozioen lur aprobetxamendua gizarte zerbitzuetara zuzendutako sei etxebizitza komunitarioak egiteko izango zela onartu zuten. Hori aldatzea proposatu zuen Bilduk egueneko osoko bilkuran. "Iruditzen zaigu beste orube hori aprobetxatuta, sei etxebizitza eraiki ordez 12 egin ahal izango direla, 40 metro koadro ingurukoak, horrela herritar kopuru zabalago batengana iritsiz", azaldu zuen osokoan Mikel Biain alkateak. "Aldundiari ere egin diogu kontsulta eta Zarautzen izan ginen, hango eredua ikusten. Aproposa iruditu zitzaigun Oñatin aplikatzeko".

EAJko Lourdes Idoiagak azaldu zuen oposizioak ez duela informazio hori jaso. "Hau ikusita, ados egongo ginateke, baina lan hori guztia ez da batzordeetan landu", zehaztu zuen.

Horrez gain, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, adierazpen instituzionala onartu zuten alde biek. Baita 197/2006 doktrina bertan behera uzteko eskaera eta San Lorentzo futbol zelaiko araudia ere.

**SAN LORENTZO FUTBOL ZELAIKO TASAK**

| | 18 URTETIK BEHERA | | 18 URTETIK GORA | |
|---|---|---|---|---|
| | ABONATUA | EZ ABONATUA | ABONTAUA | EZ ABONATUA |
| **Futbol zelaia** | 17 | 27 | 30 | 40 |
| **Aldagelak** | 15 | 22 | 15 | 22 |
| **Argia** | 7,5 | 7,5 | 7,5 | 7,5 |



Espaloietako elurra kentzen, pasa den martitzenean . | OIHANA ELORZA

# 40 herritar prest udal langileei laguntzeko

## Pasa den asteburuan, 60 bat lagun ibili ziren San Martinen eta San Lorentzon, besteak beste

**O. ELORZA / M. ARREGI** | OÑATI

Udalak positiboki baloratu du laguntza eskaerari herritarrek emandako erantzuna, nahiz eta azkenean boluntarioen behar handirik izan ez, "zorionez".

Lan horiek ondo koordinatzeko, herria lau gunetan banatu zuten eta auzolanerako hitzorduak ere zehaztu zituzten.

Mikel Biain alkateak argitu moduan, Udalak balorazio positiboa egiten du herritarrengandik jasotako erantzunari dagokionez, "nahiz eta zorionez ez dugun behar handirik izan".

Orain bi egubakoitz, batzarra egin zuten udal langileek herriko gune bakoitzeko boluntarioekin. Elurteetarako Udalak duen protokoloa zein den eta boluntarioek zein paper jokatu beharko luketen azaldu zieten; batez ere, behebarruetatik udal langileek garbitutako bide nagusira arteko zatia garbitzea.

### Herritarren laguntza

Guztira, 40 herritarrek eman zuten izena udal langileei laguntzeko. Herria lau gunetan banatu zuten eta auzolanerako hitzorduak ere adostu zituzten. Lau txandatan banatu zituzten: 09:00etan, 12:00etan, 15:00etan eta 18:00etan; ETEOn, gaztetxean eta Udaltzaingoan.

Pasa den asteburuan bete betean jo gintuen elurteak eta 60 boluntario inguru aritu ziren Udaleko brigadakoei laguntzen, elurra espaloi eta etxe atarietatik garbituz. Gatza ere bota zuten eta, ondorioz, astelehen goizean elurra egin arren, goizean autoa hartu zutenek igarri zuten.

# Gaztetxeko bertso afarirako txartelak salgai

**M. A.** | OÑATI

Hilaren 22rako, bertso afaria antolatu dute Antixenako gaztetxean, 21:00etan hasita. Bertan izango dira Maider Arregi, –egungo Oñatiko txapelduna–, Beñat Iguaran, Andoni Goitia eta Unai Gaztelumendi bertsolariak. Sarrerak dagoeneko salgai daude, bost euroren truke, Arrano eta Boga tabernetan.

### Ekintzaz betetako astea

Asterako, gainera, hitzaldiak eta ikas tailerrak ere antolatu dituzte. Zapatuan, martxoak 9, berriz, kontzertuak egingo dira Zuen Azkena talde oñatirraren eta Klabo Oxidado soraluzearren eskutik, 22:30ean hasita.

### Badator Korrika

Martxoaren 21ean iritsiko da korrika Oñatira eta, ekimen horren bueltan, gaztetxean ere badago zerekin gozatu. Hilaren 16an, Korrika jaia egingo dute Antixena gaztetxean, 22:00etatik aurrera. Eta 27an Betagarrii oñatiarrek zuzenekoa egingo dute.



Maider Arregi bertsolari gaztea, egungo Oñatiko txapelduna. | GOIENA

# Martirenak eta Maiztegik urrea jaso dute

Andoaingo Piano Jaialdian Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleak saritu zituzten: Naroa Martirena eta Anje Maiztegi, urrezko dominarekin; Unai Agirre eta Asier Berreteaga zilarrezkoarekin; eta zilarra eraman zuen, B mailan, Marta Igarzabalek ere.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

### Emakumeen bazkari erraldoia egingo da martxoaren 8an

Martxoaren 8an, lilatoia egingo da plazan, 18:00etan. Baina zapatuan, 13:00etan, herriko emakume denen argazkia egingo da; eta 14:00etan, bazkari erraldoia. Sarrerak salgai, 12 eurotan –langabetu, ikasle eta erretiratuek, 8 euro. Txartela erosteko azken eguna gaur, Artxubi, Arrano, Pake-leku eta Aloña Mendi tabernetan.

### Elkar Heziko ikasleak Holandara joango dira proiektua bukatzera

2012-2013 ikasturteko elkartrukearen bigarren fasea da hau. Hala, Elkar Heziko 22 ikasle eta bi irakasle joango dira Holandara martxoaren 10etik 17ra bitartean. Helburua da hemen hasi zuten proiektuari bukaera ematea. Sei lan onenak aukeratuko dituzte eta horien artetik bati saria emango diote.



Berdintasun zinegotzi Maider Aizkorbe eta Ana Bolinaga alkatea, egubakoitzeko agerraldian | MIRIAN BITERI

ARETXABALETA

# Askotariko ekintzak gertu, Emakumearen Egunaren harira

## Agerraldia egin dute Udal gobernuaren testu eta egitarauaren berri emateko

**MIRIAN BITERI** | ARETXABALETA

Hasi berri den hilabetean emakumea izango da protagonista Aretxabaletan; eta Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan, udal gobernuak gertatutako testuaren eta Gizarte Ongizate, Berdintasun eta Kultura sailek antolatutako egitarau zabalaren berri emateko, agerraldia egin zuten egubakoitzean. Ana Bolinaga alkateak eta Berdintasun zinegotzi Maider Aizkorbek parte hartu zuten horretan.

Lehenik eta behin, testua irakurri zuen Aizkorbek. Kalera ateratzeko hamaika arrazoi daudela aipatu zuen, hala nola, prekarietatea, pobrezia, diskriminazioa, jipoiak, bortxaketak edo prostituzioa. Horren harira, honakoa dio testuak: "Badakigu zer gura dugun: beste mundu bat, hobeagoa; emakumeok eta gizonok batzuen zein besteen onerako izango den harreman eta bizikidetza eredu berria sortu dezakegula elkarrekin konbentzituta gaude. Baina hori horrela izan dadin borrokatu egin behar dugu". Jarraian, alkateak hartu zuen hitza. "Konplexurik gabe, lotsarik gabe eta beldur barik" antolatutako ekintzetan parte hartzeko deia egin zuen.

**Adierazpen instituzionala**

Bestalde, otsailaren 18an egindako ezohiko bilkuran, Udalak martxoaren 8ari buruzko adierazpen instituzionala onartu zuen. Horretan, 1908an aldarrikatutakoak gaur egun indarrean jarraitzen duela nabarmentzen dute. Horren harira, gaineratzen dute "borroka hori are garrantzitsuagoa" dela aplikatzen ari diren murrizketengatik.

Adierazpen instituzionalak honakoa ohartarazten du: "Atzera egiten ari gara, diskurtso atzerakoi batek emakumeok berriz ere adingabe moduan tratatu nahi gaituelako, erabakitzeko gaitasunik gabe eta bizimodu prekario batera kondenatuta". Adierazpenak dio "mundu berria sortzeko bidean funtsezkoa" dela erakundeek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzea.

### EGITARAUA, EGUNEZ EGUN

**GAUR, MARTXOAK 4**

**19:00** *Aldamenekoa* liburuari buruzko solasaldia, Zaraian.

**MARTXOAK 6**

**19:00** *Encantadas* antzezlana, Zaraian.

**MARTXOAK 8**

**18:00** Agerraldia, plazan.

**22:00** On eta Kokein taldeen kontzertua, Kurtzebarriko kantxan.

**MARTXOAK 9**

**11:00** *Bigarren printzesa* ipuin kontaketa, Udal liburutegian.

**MARTXOAK 13**

**19:00** Begirada antzerki taldearen *Balitzen Hioa* antzezlana, Zaraian.

▶ Hilaren 31ra arte, *Emakume Komikigileak* erakusketa dago Arkupen.

▶ Zineklubean hiru film daude: hilaren 7an, *De tu ventana a la mia*; 14an, *¿Y ahora a donde vamos?*; eta 21ean, *Mas alla de las colinas*. 19:00etan dira.

ESKORIATZA

**Iñaki Etaio** | Idiazabal Gazta Jatorrizko Deituraren Kontseiluko kidea

# "Zortzi parametro izaten dira kontuan gazta ebaluatzeko"

▶ Iñaki Etaio gazta adituak dastatzea eskainiko du etzi, Zubiate labean

▶ Aurretik eman behar da izena Mankomunitatean edo Ibarraundi museoan

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Debagoieneko jardunaldi gastronomikoen bueltan, Idiazabal gazta dastatzea egingo dute etzi, eguaztena, Eskoriatzako Zubiate labean, 19:00etan. Interesa dutenek 943 79 64 63 telefono zenbaki, edo *turismo@debagoiena.net* edo *ibarraundi@eskoriatza.net* posta elektroniko bidez eman dezakete izena. Dastatzea gidatuko duen Iñaki Etaio gasteiztarrarekin egin dugu berba.

**Zer azalduko duzu dastatzean?**

Hasieran, gaztetan ebaluatzen diren parametro sentsorialen berri emango dut; gaztek izan behar dituzten ezaugarriak azalduko ditut. Sarreratxo teorikoaren ondotik, bi gazta probatuko ditugu, bat normala eta bestea ketutako gazta izango da. Dastatzearekin batera, joango gara hasieran aipatutako parametroak komentatzen. Horretaz gainera, kalitate kontrolean, gaztak nola ebaluatzen diren ere azalduko diet parte-hartzaileei. Gutxi gorabehera, ordubete inguruko dastatzea izango da asteon Eskoriatzan eskainiko duguna.


Iñaki Etaio. | GOIENA

> "Dastatzeetan gero eta pisu gehiago duten produktuen artean dago gazta"

**Zer nolako parametroak izaten dira kontuan?**

Zortzi parametro ebaluatzen dira. Batetik, ikusmira parametroak daude. Lehenengoa gaztaren forma da; definituta dago nolakoa izan behar den. Bigarrenik, azala dago: besteak beste, kolorea eta leuna den begiratzen da. Hirugarrenik, mamiaren kolorea izaten da kontuan, gazta erditik moztuta; eta laugarrenik, gaztak dituen "begiei" begiratzen diegu; hain justu, barruko zuloei. Horretaz gainera, gaztaren usaina ebaluatzen da, azalera konkretua izan behar duten zatiak egiten dira eta horiek erditik apurtu eta usaintzen dira. Gero, ehundura dago: malgutasuna, gogortasuna. Zazpigarren parametroa zaporea da; gazia, garratza edo mikatza den neurtzen da, besteak beste. Aldi berean, sumatzen diren aromak ere kontuan hartzen dira. Eta azkenik, gazta irentsi ostean geratzen den sentsazioa izaten dugu kontuan: zenbat luzatzen den sentsazio hori, eta tarte horretan sumatzen diren ezaugarriak.

**Azterketa zabala eta sakona egiten duzue. Parametro horiek kontuan izanda, nolakoa izango litzateke gazta on bat?**

Zuk esan duzun moduan, aipatutako parametroak izango dira kontuan. Baina, usainei dagokionez, esneki usaina nabarmendu daiteke, ardi esnearen usaina sumatzea. Aldi berean, gatzagiari ere erreparatzen zaio, gatzagi komertzialekin egindako gazta besteetatik berezituz. Arkumeen gatzagia erabiltzea da onena. Eta hirugarrenik, torrefaktu usaina dago. Dentsitate baxukoa izatea baloratzen da. Usainari dagokionez, horiek dira ezaugarri nagusienak. Eta bestetik, gazta ahoan dagoela, orekatua izatea azpimarratzen da: mingostasuna ez agertzea, garraztasuna orekatua izatea, gazi zaporea izatea, eta gozotasuna baxua izatea.

**Egun modan daude dastatzeak. Gazta dastatzeek ere harrera ona dute?**

Bai, noski. Gero eta dastatze gehiago egiten dira gurean. Produktu izarrak daude eta ardoa da guztien gainetik nagusitzen dena. Baina gero eta pisu gehiago hartzen ari diren bestelako produktuak ere badaude, eta horien artean, gazta dago. Horrekin batera, olio eta sagardo dastatzeek ere oso harrera ona dute herritarren artean.

# Lau informazio panel berri jarri dituzte Eskoriatzan

**M.B.** | ESKORIATZA

Informazio panel berriak ditu herriak joan den astetik. Hain justu, udaletxean, liburutegian, Zubiate labearen aldamenean eta kiroldegian jarri dira lau panel horiek, kanpoaldean. Udaletik jakinarazi dutenez, Eskoriatzako agendaren berri emango da horietan; hilero egongo diren ekintzen berri ipiniko da paneletan.

Udalak izango du informazio hori jartzeko ardura, eta aurrerago, beste hainbat panel jartzeko asmoa du. Adierazpen librekoak izango dira azken horiek, eta herriko eragileek erabili ahal izango dituzte.

**Sare sozialak**

Informazio panelez gain, Udaletik aipatu dute sare sozialen bidez ere jaso ahal dela agenda. Izan ere, dagoeneko Facebook kontua du sortuta, eta laster Twitterren ere egongo da, denon eskura. Gainera, epe ertainera, agendaren jarraipena zuzenean egiteko webgune berria egongo da.



Bingo afaria izaten da Emakumeen Asteko ekitaldi jendetsuenetarikoa. Aurten martxoaren 8an egingo da. | ARTXIBOA

ARAMAIO

# Itur-Zuri elkartearen Emakumeen Astea ekitaldi interesgarriz josita dator

Egitarauaren planteamendua urterokoa da, baina bada nobedaderik: El Coro Entredos emakumez osatutako abesbatzak saioa eskainiko du hilaren 9an

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Aurten ere Emakumeen Astea antolatu du Itur-Zuri emakume elkarteak, Aramaioko Udalarekin eta Emakunderekin elkarlanean. Belen Agirre elkarteko kideak adierazi digunez, 20 bat urte bete dira martxoaren 8aren bueltan aste berezi hau antolatzen denetik. Ekintzei dagokienez, "historikoak" direnak aipatu dizkigu lehendabizi Agirrek: "Ekintza batzuk historikoak dira eta horregatik ezin dira ukitu. Jendeak oso barneratuta ditu eta antolatzen ez badira hutsune handia suposatuko lukete".

**Bingo afarirako, 40 bat lagun**

Ekintza horien artean kokatzen dira, adibidez, bideo-kafe emanaldia eta bingo afaria. Bingo afarian 40 bat lagun elkartzea espero dute antolatzaileek: "Emakume nagusiei, batez ere, asko gustatzen zaie".

Ekintza horietatik haratago zuzendaritza taldearen irudimenaren eskuetan dago nobedadeak sartzea. Donostian atzo egin zen Lilaton emakumeen lasterketan parte hartzeko deia da horren adibide: "Iaz egin genuen deialdia lehen aldiz eta aurten errepikatzea erabaki dugu", dio Agirrek. Kontzertu akustikoa, berriz, duela bi urte antolatu zen lehenengoz; akustikoa formatu "beroa eta erakargarria" delako eta jendeari "asko" gustatzen zaiolako antolatuko dute aurten ere. Mery May musikari arrasatearra eta haren ahots ederra dira aurtengo gonbidatuak.

**Emakumez osatutako koroa**

Amaitzeko, abesbatza berezi baten emanaldia antolatu dute: "Astea borobiltzeko eszenikoa den zerbait antolatu ohi dugu eta aurten pentsatu dugu emakumez osaturiko koro bat ekartzea". Madrildik datorren El Coro Entredos abesbatza izango da gonbidatua, denetariko emakumez osatua: "Helburua betetzeko oso apropos iruditu zitzaigun eta jendearen gustukoa izango dela espero dugu", adierazi du Itur-Zuri elkarteko kideak.

### EMAKUMEEN ASTEKO EKINTZAK

**HILAK 5, MARTITZENA**

**19:00** *La fuente de las mujeres* bideo–kafe saioa Kultur etxean.

**HILAK 7, EGUENA**

**19:15** Mery May musikari arrasatearraren kontzertu akustikoa. Ondoren luncha egongo da.

**HILAK 8, EGUBAKOITZA**

**19:30** Bingo afaria San Martin eskolako jangelan. Bingoa 21:00etan hasiko da.

**HILAK 9, ZAPATUA**

**20:00** El Coro Entredos abesbatzaren kontzertua Kultura etxean.

Itur-Zuri elkarteak, Udalak eta Emakundek antolatuta.

ANTZUOLA

# Atez atekoaren 2. urteurrena ospatzeko, argazki masiboa

Martxoaren 7an, eguenean, bi urte beteko ditu hondakin selektiboaren bilketa sistemak

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Atez atekoaren jarraipen batzordetik, bigarren urteurrena ospatu nahian, martxoaren 9rako, zapaturako, jaia antolatu dute. Hala, Zurrategi plazan, 13:00etan argazki masiboa egingo dute. "Argazkia masiboa izateko herritar guztiak bertaratzea nahi dugu, gure egunerokoaren parte bihurtu den sistema eta, batez ere, antzuolarrok birziklatzearekin harturiko konpromisoa ospatzeko. Atez atekoarekin gustura gaudela adierazteko argazki masiboa aterako dugu. Haize errotekin eta kolore bereko kamisetekin etortzeko gonbidapena egiten diegu herritarrei", azaldu digute jarraipen batzordetik. "Argazkia ateratzeaz gain, urteurrena giro alaian ospatuko dugu, luntxa eskainiz. Bestalde, inguruko herrietako lagunak Antzuolara gonbidatu nahi ditugu, atez ateko sistema aurrez aurre ezagutu dezaten".

**Etxeko konpostaren jarraipena**

Mankomunitateak etxeko autokonpostaren jarraipenaren gaineko kanpaina jarri du martxan. Hala, datozen asteetan, telefono deien bidez ekingo diote jarraipen kanpainari. Ondoren, bigarren fase batean, bisitak egingo dituzte, konpostagailuen funtzionamendua eta egoeraren inguruko datuak jasotzeko asmoz.

LEINTZ GATZAGA

# Leintz Gatzagak ere aldaketak egingo ditu, 'Zero Zabor' herria izateko

Helburu horrekin, Udalak herriko hondakinak kudeatzeko proiektua aurkeztu diete herritarrei

**JULEN IRIONDO** | GATZAGA

Aldaketak datoz gatzagarrendako herriko hondakinen kudeaketarekin. Aldaketa nagusiak dira, batetik, auzoetan ere izango dituztela hondakinak gaika batzeko edukiontziak –orain arte berdea baino ez zuten–, eta, bestetik, organiko dena herrian kudeatuko dutela, etxean konposta eginda edo konpost-gune komunitarioen bitartez. Hala jakinarazi zieten herritarrei eguenean egindako batzarrean.

**Konpost-gune komunitarioak**

Labur esanda, egun herrigunean bakarrik dituzte hondakinak gaika batzeko edukiontziak, Dorletarako irteeran. Aurrerantzean ere egongo dira, txukunago, gainera, etxola baten barruan. Eta orain arte zaborra batzeko edukiontzi berdeak baino ez zituzten auzoek, Goierrik eta Olaunek ere papera eta kartoia batzekoa, ontzi arinena eta errefusarena izango dituzte aurrerantzean. Beirarentzako edukiontzia, berriz, kaleko ekarpen gunean egongo da, auzoetan ez, baina herriko jatetxeek ere izango dute eurena, inguruko zenbait baserrik ere erabili ahal izango dituztenak. Hondakinen proiektuko bigarren ardatza, berriz, da organikoaren kudeaketa. Eta horretarako bi konpost-gune komunitario jarriko dituzte: herrigunearen beheko aldean bata eta goiko aldean, bestea. Herritik kanpoko jatetxeek eurena edukiko dute.



25 herritar izan ziren azalpenak entzuten, eguenean . | JULEN IRIONDO

ELGETA

# Domekarako, Finalisten Jaia iragarri dute Elgetan

Mendi ibilaldia, bazkaria eta diploma banaketa antolatu ditu, aurten ere, Mendi Federazioak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Finalisten Jaia urteroko hitzordua da honezkero Elgetan, eta aurtengoa domekan, hilak 10, egingo dute. Herrian mendizale ugari elkartzea da, aurten ere, erronka. Euskal Mendizale Federazioak antolatzen du ekitaldia Elgetako Udalarekin elkarlanean. Mendi ibilaldia, bazkaria eta diploma banaketa iragarri dituzte, aurten ere, egitarauan.

**Mendi irteera**

Mendi buelta 25 kilometrokoa izango da. Ibilbidea, berriz, honakoa: Elgeta-Intxorta, Erdella, Aixola, Egoarbitza, Azkonabitza, eta Elgeta. Mendizaleak 08:00etan abiatuko dira Bolatokiko kiroldegitik.

Antolatzaileek jakinarazi dute gela bat prestatuko dutela koltxonetekin bezperan bertan lo egin nahi dutenendako, eta amaieran dutxa hartzeko aukera egongo dela kiroldegian bertan. Hori bai, interesatuei eskaera egiteko aholkatu zaie.

**Bazkaria eta ekitaldia**

Mendi buelta egin ostean, horrela gura dutenek, Espaloia kafe antzokian egingo den bazkarian parte hartzeko aukera izango dute. Bazkaria 15:00etan izango da, eta prezioa 24 euro da.

Antolatzaileek jakinarazi dute ezinbestekoa dela ordainketa aldez aurretik egitea. Izena emateko epea zabalik dago barikura arte, martxoak 8. Ordainketa egiteko argibide guztiak *www. zirkuirua.com* atari digitalean kontsulta daitezke. Momentuz, 62 lagunek eman dute bazkari horretarako izena.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA**
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

**BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE**
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

# Mondrak bi minuturen faltan egin zion garaipenaren gola Aloñari

- Urrezko hiru puntu lortu ditu Mondrak, eta hiru postu egin ditu gora sailkapenean
- Aloñak hiru garaipen behar ditu maila ziurtatzeko, eta lehenbailehen lortu gura ditu

**EMAITZA**

MONDRA
**1-0**
ALOÑA

**FITXA TEKNIKOA**

**Mondra:** Zabaleta, Crespo, Del Palacio, Iregi, Garmendia, Lopez (Aizpurua, 84. min.), Ormaetxea (Lodosa, 65. min.), Dueñas, Zaitegi, Uribarren eta Aizpurua (Azkarate, 65. min).

**Aloña Mendi:** Txalain, Endika, Lazkano, Olalde, Irizar, Juaristi, Txubi, Aritz (Millas, 87. min.), Unai, Lertxundi (Bikuña, 72. min.), eta G. Irizar (Aimar, 72. min.).

**Epailea:** Igor Anduaga.



Lertxundi oñatiarra eta Arrasateko Jon del Palacio, baloia eskuratzeko lehia gogorrean. | JOSETXO ARANTZABAL

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Partidu gogorra izan zen atzokoa, bai Mondrarendako bai Aloñarendako. Lurreko joko gutxi ikusi zen harmailetatik, eta baloi luzeak izan ziren nagusi. Horren emaitza, ikusteko partidu pobrea. Baina jokalariek asko zuten jokoan, batez ere arrasatearrek, eta aitortu behar zaie erakutsitako kemena. Zerrajeroak azken unera arte borrokatu zuten, eta azkenean lortu zuten hain beharrezkoa zuten garaipena. Azken unean lortu zuten urrezko gola: Mikel Aizpuruak egin zuen buruz 93. minutuan, epaileak partidua-ren amaiera adierazi baino bi minutu lehenago. Arrasatearrek sutsuki ospatu zuten gola, bai futbol zelaian bai harmailetan. Txanponaren beste aldean, nola ez, Aloñako jokalariak.

Txantxikuek ere defentsa lan ona egin zuten, eta behin baino gehiagotan iritsi ziren arrasatearren atera, baina ez zuten jaurtiketetan asmatu eta partidua amaitzear zela jasotako golak min handia egin zien.

**Azken aukerak**

Atzoko partiduak pizgarri efektua izan behar du Arrasateko taldean. Jaitsierako postuetatik irten da taldea momentuz, baina gertu jarraitzen dute oraindik. "Badakigu hemendik aurrera partidu guztiak finalak izango direla, eta horren jakitun gara. Aste tarteko saioetan ere gogor gabiltza, eta uste dut aurrera aterako dugula taldea", esan zuen norgehiagoka amaieran Iker Uribarren jokalari arrasatearrak.

Aloñaren egoera bestelakoa da. Hiru garaipen behar ditu maila ziurtatzeko, eta hori du lehentasuna. "Gaur gertatutakoa lehenbailehen ahaztu behar dugu. Martitzenean berrekingo diogu entrenamenduen dinamikari, eta hurrengo partidua prestatzen hasteak on egingo digu", zihoen Andoni Azkargortak. Mondra ere dagoen egoeratik irtengo dela uste du. "Jokalari onak dituen taldea da, eta erditik gora diferentzia markatzen dute".

**IKER URIBARREN** | MONDRAKO JOKALARIA

## "Ez dago garaipenik sufritu barik"



L.Z.

Mondrako jokalariendako partidu gogorra izan zen atzokoa.

**Garaipenaren gola azken minutuan!**

Bai. Badakigu partiduak bukaerara arte borrokatu behar direla. Azkenengo minutuan irabazteak, gainera, zapore hobea uzten du. Baina asko sufrituta irabazi dugu.

**Partidu gogorra izan da?**

Bai, hasieratik gogorra izango zelakoan geunden. Hemendik bukaerara arte, gainera, guztiak izango dira oso gogorrak, finalak. Gaur, ondo irten da.

**Jokalariak gogotsu aritu zarete partidu osoan.**

Bai, aste tarteko saioetan behin eta berriz aipatutako gaia izan da, eta nabaritu egin da jokoan. Gogor egin dugu borroka, eta emaitza izan du lan horrek.

**ANDONI AZKARGORTA** | ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

## "Ostiko handia hartu dugu gaur"



L.Z.

Mojategiko emaitza ahaztu eta beharrezkoak dituzten hiru garaipenak lehenbailehen lortu gura ditu Azkargortak.

**Gola azken minutuan!**

Bai, eta horrek min gehiago egiten du. Baina horrela izan da gaurkoan.

**Non okertu da partidua?**

Partidua nahi genuen bidetik eraman dugula uste dut. Badakigu erditik gora min handia egiteko gauza dela Mondra, eta bide guztiak ixten saiatu gara. Nik uste baloiarekin finago ibiltzea falta izan zaigula.

**Nola ikusten duzu denboraldi amaiera Aloñarendako?**

Lanak amaitzeko gutxi falta zaigu. Estu egongo da, baina hiru partidu irabaztea falta zaigu. Asmoa da lehenbailehen lortzea.

OHOREZKO ERREGIONALA

# UDAk irabaztea merezi zuen arren, bina berdindu zuen etxean Real Unionen aurka

## Sailkapen orokorrean laugarren postuari eutsi diote aretxabaletarrek

**EMAITZA**

UDA
**2-2**
REAL UNION



UDAk eta Real Unionek partidu polita eskaini zuten Ibarran. | JOSETXO ARANTZABAL

**MAIDER ARREGI** | ARETXABALETA

Partidu intentsua, eta UDA jokoan jaun eta jabe. Harmailetan askoren ahotan entzungo zen, ziurrenik, atzokoa aspaldian Ibarran jokatutako partidurik politena eta ikusgarriena izan zela. Pena izan zen, ordea, UDAk partidua irabazi ez izana, aretxabaletarrek hiru puntuak eskuratzea merezi baitzuten atzokoan.

Lehen zatian, irundarrek gogor ekin zioten lehiari eta 10-15 minututan area kanpotik oso ondo kontrolatutako gola sartu zieten aretxabaletarrei. "Baina UDAk urduri jarri beharrean, oso ondo jakin du aurrera egiten eta Beñat Etxabek berdintzea lortu du jokaldi bikain baten ondorioz", azaldu digu Igor Arenaza zuzendariak.

Berdinduta iritsi ziren atsedenaldira eta, bueltan, UDA nabarmen nagusitu zen zelaian. Aukera asko sortu zituen eta modu horretan etorri zen bigarren gola ere. "Julen Erañak Real Unionen atezainak egindako akatsaren ondorioz, gola sartu du. Izan ere, atezainak ez du baloia ondo heldu eta Erañak aprobetxatu egin du hori bigarren gola egiteko", azaldu digu Arenazak.

Hirugarren gola egiteko aukera politak sortu zituzten UDAko mutilek; eta merezi ere merezi zuten beste golen bat sartzea, baina ezin; horren ordez, Real Unionen bigarren gola iritsi zen, ezustean. Eta berdinketarekin, pena handiz, sailkapenean ez dute aurrera egiteko aukerarik izango aretxabaletarrek; laugarren postuan jarraitzen dute. "Pena izan da, merezimenduagatik eta jokalarien jarreragatik, irabaztea merezi genuen-eta. Garrantzitsua zen, gainera, aurrera egiteko eta beste urrats bat emateko goialdean".

"Partiduz partidu begira joan behar gara, argi dugu, goialdean daudenek ez dute-eta hutsik egiten. Orain, datorrenari aurre egin behar diogu", azaldu digu.

ERREGIONAL PREFERENTE

### Antzuolak bana berdindu du soraluzearren kontrako partidu borrokatuan eta puntu bat ekarri du etxera

Zapatua arratsaldean Soraluzen jokatutako partidua irabazi beharrekoa zuen Antzuolak. Lider zeuden antzuolarrak, 44 punturekin; soraluzearrak, aldiz, 33 punturekin, zazpigarren postuan aurkitzen ziren. Garrantzitsua zen irabaztea, lidertza sendotzeko eta, nola ez, maila igoera bermatzeko. Hala, lehen zatian, antzuolarrak aurrean jarri ziren eta atsedenaldira gol bateko abantailarekin joan ziren; Ander Aranak egin zuen gola. Bigarren zatian, ordea, gauzak kaskartu egin zitzaizkien eta Soraluzek partidua berdintzea lortu zuen. Puntu bat lortu dute, beraz, antzuolarrek, eta horrek Getariakorekin zuten aldea txikitzea ekarri die.

OHOREZKO ERREGIONALA

### Bergararrei sailkapenean gora egiten lagunduko dieten hiru puntuak etxean geratu dira

Partidu motela jokatu zuten Bergarak eta Beti Gaztek. Neka Galan entrenatzailearen arabera, baloi luze asko eta paseetan akats asko egindako partidua izan zen atzokoa. Baina lehen zatiko 15-20. minutuan gola sartzea lortu zuen Jokin Baltzategik. Hiru puntu garrantzitsu, sailkapenean gora egiten jarraitzeko. "Hor goialdean jarraitzeko etxean eta etxetik kanpora partiduak irabazi behar ditugu. Taldea oso animatua dago eta zerbait polita egin gura dugu aurten".

FUTBOLA-NESKAK

### Erraz irabazi dute Mondrako neskek; hiru gol sartu dizkiote Castejoni arriskurik gabeko partiduan

Partiduko lehen zatian jaun eta jabe izan ziren Mondrako neskak. Batere sufritu gabe eta erraz, bi gol sartu zizkieten Castejongoei. "Bigarren zatian, arriskatuz, berdinketaren bila irten dira Castejongoak, baina gu partidua erabakitzera irten gara; eta hirugarren gola etorri da azken 15. minutuan", azaldu digu Andoni Ezkurra entrenatzaileak. Sailkapen nagusian mantendu egin dira arrasatearrak, baina oraingo asteburuan partidu garrantzitsua dute eta beste urrats bat aurrera egiteko aukera paregabea. Hala, azken aurreneko postuan dagoen Eibarri irabazi egin beharko diote asteburuan Mondrako neskek.



LEHENENGO NAZIONALA

# Mondragon Unibertsitateak liderra menderatu zuen

## Joaneko partiduan moduan, arrasatearrak Atletico San Sebastian baino gehiago izan ziren

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**67-59**
ATLETICO SAN SEBASTIAN

FITXA TEKNIKOA

**MU:** Arantzabal (16), Kortabarria, Gorka (5), Barrena, Mikel Atxa (5), Barbero (15), Arejolaleiba (9), Martxel (12), Alex, Paul (5) eta Ander.

**Atlco. San Sebastian:** Sancho (4), Korta (10), Dominguez, Ruiz, Murua (5), Zabaleta (9), Zendoia (2), Marcos, Arruabarrena (10), Audela (13), Joserra (4) eta Mozo (2).

**Beste:** Zale dezente batu ziren Iturripen Lehen Nazional Mailako partidua ikusteko; tartean, zale donostiarrak.

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Lehen Nazional Mailako liderra menderatu zuen zapatuan Iturripen. Lehia parekatua izan zen, baina etxekoek agindu zuten markagailuan hasieratik, eta azken laurdeneko jokaldi erabakigarrietan ez zuen hutsik egin. Larreategiren taldeak sendo jarraitzen du sailkapenean.

**"Nortasuna" eskatu zien**

Donostiarrek talde ona dute: jokalari indartsuak eta azkarrak; eta arrasatearrek, beste horrenbeste. Hori horrela, bi taldeek lehia borrokatua jokatu zuten. Gainera, liderraren kontra jokatzeak asko motibatu zituen MUko jokalariak; saskiratze guztiak ospatu eta txalotu zituzten.

Lehen bi laurdenak oso parekatuak izan ziren: MUk hirukoa sartzen bazuen, Atletico San Sebastianek ere bai. Etxekoek, gehienez ere, zortzi puntuko aldea izan zuten atsedenaren aurretik. Dena den, aldageletara, sei puntuko errentarekin joan ziren: 39-33. Bigarren tartearen bukaeran, baloi asko galdu zituzten arrasatearrek.

Hirugarrenean heldu ziren partiduko berdinketa bakarrak: 44-44 eta 46-46. Tarte hartan, arrasatearrek, atsedenean zuten abantaila txikitu, eta galdu egin zuten. Hirugarren tarteko azken minututan, berriro ipini ziren aurretik markagailuan.

Laugarren tartean, zortzi puntuko tartea zabaldu zuten (59-51), eta donostiarren entrenatzaileak hutsartea eskatu zuen. "Nortasuna" eskatu zien jokalariei. Baina, ez zuen esperotako emaitza izan. Bi minuturen faltan, zortzi puntuko aldea zuen MUk, eta bukaerara arte mantendu zuen.

**JOSU LARREATEGI**
ENTRENATZAILEA

### "Partidu borobila egin dugu: erasoan eta defentsan"


M.B.

Pozik zegoen Josu Larreategi jokalariek egindako lanarekin. Denboraldian, bigarren aldiz menderatu zuten Atletico San Sebastian.

**Liderra menderatu duzue.**

Bai. Partidu borobila egin dugu, bai erasoan eta baita defentsan ere. Jokalariek barruan zuten guztia eman dute.

**Lehia oso parekatua izan da.**

Hala da. Antzerako taldeak gara. Dena den, hasieratik agindu dugu markagailuan eta horrek konfiantza handia eman digu. Azken tartean erabaki da partidua.

**Hemendik aurrera zer?**

Hamar partidu geratzen zaizkigu. Horietako bost Iturripen. Gure asmoa da etxekoak irabaztea, eta ahal badugu, kanpokoren bat ere bai.



MUko jokalariak saskiratzea egiteko saiakera egiten. | IMANOL SORIANO

EBA

## Laugarren porrota jarraian Natra Oñatirendako

**M.B.** | OÑATI

Bolada txarrarekin jarraitzen du Natra Oñatik. Asteburuan galdu egin du Burgosen: 85-65. Jarraian galtzen duen laugarren lehia da. "Orain arte ondo egiten genuena, orain ez dugu egiten. Hasieran sartzen genituen jaurtiketak, orain huts egiten ditugu. Bolada txarrean gaude, baina jokalariak animatuta daude", esan zigun Blancok.

Burgosko lehiaren gakoa hirugarren laurdenaren bukaeran egon zen. Oñatiarrek bi puntuko desabantaila zuten, eta berdintzeko jaurtiketa izatetik, zortzi puntu atzetik egotera pasa ziren. Epaileek hiru teknika adierazi zituzten azken segundoetan, eta Martin Robledak puntu bateko sei jaurtiketa sartu zituen jarraian.

SENIOR NESKAK

## Eskoriatzako neskek lehia eskasa jokatu zuten: 57-36

**M.B.** | ESKORIATZA

"Urteko partidurik txarrena jokatu dugu. Eskasa, oso txarra izan da. Ezingo nuke ezer positiborik azpimarratu. Lehenbailehen ahaztu behar dugu". Berba horiekin laburtu zigun partidua Eskoriatzako saskibaloi nesken entrenatzaile Fernando Rasok.

Cafes Aitonak menderatu zuen partidua hasieratik. Atsedenerako 14 puntuko aldea zuten donostiarrek: 30-16. "Ez dugu ezer ondo egin. Defentsan eta erasoan itxura eskasa eman dugu. Huts gehiegi egin ditugu, eta horrela, oso zaila da irabaztea", esan zigun Rasok.

Zerbait azpimarratzearren, gazte mailako jokalarien lana azpimarratu zuen: "Ahal izan dutena egin dute".

PROBINTZIAL MAILA

## Luzapenean irabazi zuen MUk, Bergararen kontra

### Gipuzkoako Probintzial Mailako derbia jokatu zuten bi taldeek Musakolako kiroldegian

**M.B.** | ARRASATE

Gipuzkoako Probintzial Mailan jokatzen duten Mondragon Unibertsitateak eta Bergarako Soraluze BKE taldeek derbia jokatu zuten egubakoitzean, Musakola kiroldegian.

Bergararrek lehia irabazteko bi jaurtiketa libre izan zituzten arren, luzapenean erabaki zen derbia etxekoendako.

Arrasatearrek agindu zuten partidu osoan zehar. Markagailuan atzetik ibili ziren mahoneroak.



MUko jokalari bat, Bergarakoen defentsaren aurrean. | IMANOL SORIANO

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**60-55**
SORALUZE BKE

Biak ala biak talde gazteak dira, baina MUk eskarmentu handiagoa duela erakutsi zuen.

Dena den, laugarren tartean suspertu egin ziren bergararrak, eta markagailuan zuten desabantaila txikitzen joan ziren. Taula azpian, errebotean, lan sendoa eginez, lehia berdintzea lortu zuten. Eta irabazteko jaurtiketa libreak ere izan zituzten. Bakarra sartu, eta berdinketarekin bukatu ziren arauzko 40 minutuak: 50-50.

**Bost minutuko luzapena**

Luzapenean, arrasatearrek esperientzia handiagoa dutela erakutsi zuten. Era berean, bergararrek ordaindu egin zuten lehia berdintzeko egindako esfortzua. Luzapeneko bost minututan, MUk jaurtiketa onak egin zituen, eta bergararrek ez zuten asmatu defentsarekin.

ESKUBALOIA

# Azken jokaldian kale egin ondoren 30-30 markagailuan

## Bergararrek lana ondo egin arren ez zuten garaipena lortu zapatuan Labegaraietan jokaturiko partiduan

**EMAITZA**

SORALUZE BKE
**30-30**
EGIA KATA TABERNA


Soraluze BKE taldea erasoan. | IMANOL SORIANO

**JAGOBA DOMINGO** | BERGARA

Aurkari zuzena jaso zuen zapatuan Labegaraieta kiroldegian Soraluze BKE taldeak. Donostiako Egia Kata Tabernakoak sailkapenean laugarren postuan zeuden; eta bergararrak, bosgarrengoan, hiru puntuko aldeaz. Alde hori murrizteko aukera, baina, alferrik galdu zuten azken segundoetan.

Markagailu parekatua izan zen nagusi partidu osoan zehar eta, emaitzak erakusten duen bezala (30-30), azken momentura arte tentsioa bizi izan zen Bergarako kiroldegian. Lehenengo zatian defentsak izan ziren protagonista eta atsedenaldira 14-13-ko markagailuarekin joan ziren. Bergararrak jokaldi landuak egiten saiatu ziren, horrela Egiakoen defentsa erditik apurtu eta gola errazago egiteko, hala ere, donostiarrak gogor ibili ziren atzean eta epaileek nahikoa lan izan zuten. Egiakoen jokoa, ordea, zuzenagoa zen. Lehenengo zatian, ezker hegaletik egin zioten min gehien Bergarako atezainari, baina, honen geldiketa on bati esker, atsedenaldia heldu aurretik kontraeraso pare bat aprobetxatu zituzten, eta aurretik joan ziren aldagelara.

### Ezin aukera aprobetxatu

Bigarren zatia nahiko ondo hasi zen Soraluze BKE taldekoentzat, aurrean berriz ere jokaldiak landu nahian eta Egiakoei falta asko egitera behartuz.

Baina bigarren zatiaren seigarren minutuan markagailuan atzetik jarri ziren. Azken minutuak heldu heinean, partidua berotzen joan zen, bi taldeek aukera gehiago izan zituzten, eta markagailuan gora behera asko egon ziren. Gauzak horrela, partiduko azken minutua heltzean, bergararrak aurretik zeuden, baina Egiakoek berdintzea lortu zuten eta, azken jokaldian, epaileak adierazitako falta bat txarto jokatu eta berdinketan amaitu zuten neurketa.


IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

# 28-27 irabazi zuten oñatiarrek

Irungo Suministros Goser taldearen aurka jokatu zuten oñatiarrek zapatuan Zubikoan, eta alde txikienagatik irabazi zuten: 28-27. Sailkapeneko azken postuetatik irteteko emaitza ona lortu zuten, landutako partidua egin ondoren, eta hurrengo jardunaldian Urolakoen aurka irabaziz gero, taulan gora egiteko aukera paregabea izango dute.

ESKUBALOIA

# Beste garaipen bat Ford Mugarri taldearentzat

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE

Trapagaranera joan ziren zapatuan Garciaren mutilak eta bertatik beste garaipen berri bat ekartzea lortu zuten: 22-32 irabazi zuten azken sailkatuaren aurka. Hala ere, Garcia entrenatzailearen arabera, norgehiagoka ez zen batere erraza izan, markagailuak erakusten duen bezala.

Sailkapenean bi taldeen postuak ikusiz gero –Ford Mugarri lehenengoa eta Trapagaran azkena– partidu eroso bat bezala aurreikusi zitekeen zapatukoa, baina lehenengo zatia oso parekatua izan zen. Trapagarangoek defentsan asko estutu zuten eta horren ondorioz Arrasatekoek arazoak izan zituzten erasoan; hala ere, bigarren zatian indartsuago jokatu zuten, eta lehenengo minutuetan lortutako abantaila partidua amaitu arte mantendu zuten.

### Datorren astean etxean

Atez ate Usurbil taldearen aurka jokatuko dute datorren astean.

ERRUGBIA

# Jokaldiak, kokapenak eta posturak landu zituzten

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARRASATE

Primerako giroarekin, ordu eta erdiko entrenamendu saioa egin zuten domeka goizean Arrasate errugbi eskolako gazteek. 9-12 urte bitarteko 14 mutiko elkartu ziren Mojategin, eta Ricardo Ercilla eta Ramon Barrutiaren gidaritzapean, fisikoa zein joko maila hobetzeko hainbat ariketa egin zituzten. "Arrasate, Bergara eta Aramaioko mutilak ditugu uneotan taldean", adierazi du Ricardo Ercilla entrenatzaileak. "Mutikoek domeka oro dute errugbia; entrenamendu saioa domeka baten, eta errugbi topaketa hurrengoan". Domekako saioan kokapena, joko taktikak eta posturak lantzeko ariketak egin zituzten hasieran. "Haurrak dibertitzea eta fisikoa apur bat lantzea dira gure helburu nagusiak", adierazi du Ercillak. "Umeei partidua jokatzea gustatzen zaie gehien, horregatik teknika lantzeko ariketa arinak egiten ditugu hasieran. Ondo pasatzea eta gustuko izatea da garrantzitsuena".

### Topaketa Arrasaten

Hurrengo domekan Arrasaten egingo dute eskola arteko topaketa. Ercillak aurreratu du lauzpabost talde etorriko direla Mojategin egingo diren partiduetan parte hartzera. "Errugbia denendako moduko kirola da", azaldu du. "Jokalari handi eta indartsuendako dela uste da, baina ez da horrela. Azkartasuna eta bizitasuna ere lantzen dira".


Mutikoak beroketa lanetan. | JOSETXO ARANTZABAL


Baloiaren mugimenduak ere landu zituzten saioan. | JOSETXO ARANTZABAL


Ercilla mutiko baten ariketa gainbegiratzen. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKIA

# Askotariko eski irteerak aukeran, bailarako taldeekin

## Aloña Mendik eta Besaidek kirol zuriaz gozatzeko proposamen ezberdinak dituzte martxorako

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Aurten, zorioneko daude eski zaleak. Negua gordina izaten ari da, eta horrek elurra egitea ekarri du. Hori horrela, eski pistak elurrez gainezka daude. Kirol zuriaz gozatzeko denboraldia bete-betean dago, eta hori aprobetxatuz, gure bailarako hainbat taldek eskiatzeko eta eski zeharkaldiak egiteko askotariko eskaintzak dituzte.


Eskiatzaile bat, pistetan. | GOIENA

**Besaidekoekin...**

Arrasateko Besaide mendi taldeak aste bukaerako eta egun bakarreko irteerak ditu aukeran.

Adibidez, hilaren 9-10eko aste bukaeran mendiko eskia egiteko irteera egingo dute Piau Engalyko estaziora. Federatuta egotea, zapaldu bako elurretan eskiatzen jakitea, eta pioletak eta kranpoiak eramatea beharrezkoa da. Interesatuek gaur, astelehena, eta bihar eman behar dute izena Besaideren egoitzan.

Bestalde, hilaren 10ean, egun bakarreko irteera egingo dute Formigalera; eta hilaren 16an eta 17an, aste bukaerakoa. Informazio gehiago *www.besaide.org* atarian duzue.

**...edo Aloñakoekin**

Aloña Mendi elkarteko mendi sailak, bestalde, eski zeharkaldia egingo du hilaren 9-10eko aste bukaeran, Portalet aldera. Norbere ezagutzaren arabera bi maila egingo dituzte. Interesatuek Aloña Mendi tabernan eman behar dute izena bihar baino lehen.

Azkenik, Aloña Mendi elkarteko eski sailak irteera egingo du Pazko astean, Alpeetara; hain justu, Le Plagne eta Les Arcrs eski estazioetara. Interesatuek *leireguene@yahoo.es* helbidean edo 649 315 015 telefonoan eman dezakete izena.


AURKEZPENA
M.B.

## Oñatiko kirolari buruzko atari berria

*Ok Magazinea*, Oñatiko kirolaren jarraipena egingo duen agerkari digitala, aurkeztu zuten barikuan. Aratz Losada diseinatzailea eta komunikatzailea izango da kudeatzailea. Webguneak hiru atal nagusi ditu: goiko aldean, albiste nagusi bat; ezkerreko zutabean, kirol albisteak; eta eskuinekoan, partiduen agenda eta iritziarendako gunea. "Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak dira agerkariaren oinarri. Informazio hori guztiori lau eratara publikatuko dugu: *berriak*, *irratia*, *bideoa* eta *hemeroteka* ataletan", esan zuen Losadak.

XAKEA

## Arrasate-Arlutz xake taldekoek ezin izan dute ohorezko mailan postua ziurtatu

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Esku hutsik etorri ziren Arrasate-Arlutz xake taldekoak zapatuan Donostiatik, Easo taldearen aurka jokatu ondoren. Ohorezko mailara igotzeko aukera paregabea izan zuten; hala ere, ez zen euren egunik onena izan eta 3-1eko puntu kopuruarekin bueltatu ziren.

Miguelek eta Etxagibelek berdindu egin zituzten jokaturiko partidak; eta Alcaidek eta F.Miguelek, galdu. Beraz, hirugarren sailkatuak dira.

**Datorren astean Bilbora**

Azken jardunaldia jokatuko dute eta, oraindik ere, mailaz igotzeko aukerak mantentzen dituzte.

## FUTBOLA

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Lagun Onak-Hondarribia | 0-0 |
| Ostadar-Berio | 4-3 |
| Aurrera-Urola | 2-2 |
| **Aretxabaleta**-Real Union | 2-2 |
| Trintxerpe-Tolosa | 0-2 |
| Oiartzun-Hernani | 3-0 |
| Beti Gazte-**Bergara** | 0-1 |
| **Mondra-Aloña Mendi** | 1-0 |
| Touring-Zarautz | 1-2 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Oiartzun | 53 | 24 |
| 2 | Real Union | 51 | 24 |
| 3 | Hernani | 51 | 24 |
| 4 | **Aretxabaleta** | 42 | 24 |
| 5 | Berio | 42 | 24 |
| 6 | **Bergara** | 41 | 24 |
| 7 | Tolosa | 34 | 24 |
| 8 | Hondarribia | 33 | 24 |
| 9 | Touring | 32 | 24 |
| 10 | **Aloña Mendi** | 29 | 23 |
| 11 | Urola | 26 | 24 |
| 12 | Ostardar | 26 | 24 |
| 13 | Beti Gazte | 26 | 23 |
| 14 | **Mondra** | 25 | 24 |
| 15 | Zarautz | 25 | 24 |
| 16 | Lagun Onak | 24 | 24 |
| 17 | Trintxerpe | 23 | 24 |
| 18 | Aurrera | 20 | 24 |

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Zarautz-Lagun Onak
Hondarribia-Ostadar
Berio-Aurrera
Urola-**Aretxabaleta**
Real Union-Trintxerpe
Tolosa-Oiartzun
Hernani-Beti Gazte
**Bergara-Mondra**
**Aloña Mendi**-Touring

### ERREGIONAL PREFERENTEA

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Getariako Keta -Amaikak Bat
Mutriku-Anaitasuna
Elgoibar-Ordizia
Zestoa-Idiazabal
Ilintxa-Lazkao
Zumaiako-SBB Mutrikuarrak
Beasain-Eibartarrak
Soraluze-**Antzuola**

### 1. ERREGIONALA, IGOERA

| | |
|---|---|
| **Aretxabaleta B**-Sanpedrotarrak | 1-1 |

### 1. ERREGIONALA, KOPA

**HURRENGO JARDUNALDIA**

**Arizmendi-**Zestoa B
**Bergara B-**Zumaiako
Ikasberri B-Soraluze B
Eibartarrak B: Atsedena

### OHOREZKO GAZTEAK

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Euskalduna-Orioko
Billabona-Ostadar
Beasain-Aurrera
Zumaiako-Tolosa B
Urola-**Mondra**
**Bergara**-Ordizia
Burumendi-**Aloña Mendi**
Lagun Onak-Amaikak Bat

### 1. GAZTEAK, IGOERA

| | |
|---|---|
| Anaitasuna-**Aretxabaleta B** | 3-2 |

## ESKUBALOIA

### LEHEN NAZIONALA

| | |
|---|---|
| Trapagaran-Ford Mugarri | 22-32 |

### GIPUZKOAKO 1. MAILA

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Tolosa-Donibane
Lau Bide-Amenabar
Eibarko Haritza-Leizaran
**Izarraitz Tab. Aloña**-Suministros Goser
Ordizia-Urola

### GIPUZKOAKO 2. MAILA

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Urnieta-Decotena
Ordizia-Amenabar
Tolosa-Leizaran
**Arrasate-Bergara**
Usurbil-Talleres Ondo
Saieko-Egia
Gabaz Elgoibar: Atsedena

## SASKIBALOIA

### EBA LIGA

| | |
|---|---|
| Antonio Robleda-Natra Oñati | 85-65 |

### LEHEN NAZIONAL MAILA

| | |
|---|---|
| MU- Atletico San Sebastian | 67-59 |

## ARETO FUTBOLA

### EUSKADIKO TXAPELKETA

| | |
|---|---|
| Eskoriatza-Berrio Santutxu | 2-2 |

**HURRENGO JARDUNALDIA**

EHU Araba-Eskoriatza

GU
RE
KI
RO
LA



GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

**Juan Carlos Ugarte** | Martxako Euskadiko txapeldun beteranoetan

# "Lesioen ikuspegitik askoz hobea da martxa korrika egitea baino, kolperik ez dagoelako"

- Iazko maiatzean, 54 urterekin eta kasualitatez hasi zen martxa egiten, eta gustura dabil
- Teknika "oso zaila" dela dio, kontzentrazioa galduz gero berehala egiten dela gaizki

JULEN IRIONDO | OÑATI

Oinez azkarren nor ibili lehian sortu omen zen martxa. Baina non dago oinezkoaren eta korri egitearen arteko muga? Arau batzuk jarri –nagusiak, hanka bat beti lurrarekin kontaktuan egon beharra eta aurrean dagoen hankako belauna ezin tolestearena– eta horra. Hala azaldu digu, dakigula, Debagoienean atletismoaren diziplina hau praktikatzen duen lagun bakarrak: "Aurretik alaba ibili zen, kadetea zela, denboraldi batez", dio Juan Carlos Ugartek (Oñati, 1957). Bakarra, eta Euskadiko txapelduna bera, beteranoetan, otsailaren 17an Gasteizen irabazita. Hori "anekdotikoa" dela dio, soilik hiru lagun zirelako lehian.

**Nolatan hasi zinen martxa praktikatzen?**

Beti ibili izan naiz korrika, federatu moduan lehian ez, baina bai lasterketa herrikoietan-eta. Aloña Mendiko taldeak nahi zuen aurkeztea Gipuzkoako klub arteko txapelketara eta jendea behar zen modalitate denak egiteko: altuera jauzia, pisu jaurtiketa... Martxarako ez zegoen inor, eta animatu egin ninduten. Horrela hasi nintzen; eta, egia esanda, iaz nahikoa gaizki nenbilen lesioekin, mokorrarekin, belaunarekin... eta ez nenbilen batere gustura. Martxa oso desberdina da, eta kanpotik dirudien arren gogorra dela, lesioentzat askoz hobea da; iaz nahikoa gustura geratu nintzen, eta aurten jarraitzea erabaki dut, dagoeneko federatuta, beterano mailan lehian.

**Ba berezia behar zuen zuretzako 54 urterekin hastea txapelketetan-eta lehian, ezta?**

Bai, bai [barre]. Ohituta nengoen Marisolekin [Ramos, emaztea du] joatera, laguntzaile modura. Oso gazte nintzela bakarrik egon nintzen federatuta, krosak-eta egiten. Baina ordutik korrikalari herrikoi moduan bakarrik ibili naiz.

**Orain arte esandakotik atentzioa eman didan beste gauza bat: lesioetarako hobea dela martxa; kanpotik kontrakoa dirudi, posturak behartuagoak direlako.**

Bai, horrela ematen du. Baina Interneten-eta begira ibilita, askok esaten dute jende nagusiarentzat oso ona dela martxa, kolperik ez dagoelako. Korrika egitean kolpea jotzen da mokorretan, belaunetan, orkatilan... eta asfaltoan eginez gero, gehiago. Horrez gain, niri oso ondo datorkit, ze taupadak ere ez doaz topera; korrika, ordea, pixka bat behartuz gero berehala igotzen dira taupadak, eta adinarekin bihotza ez da edonola ibiltzeko egoten. Martxan, taupadak lasaiago doazenez, entrenamendu luzeagoak egiteko aukera dago; nik, adibidez, ordu eta laurden inguru entrenatzen dut.

**Teknika ikastea erraza al da?**

Egia esanda oso zaila da. Eta, gainera, mugimendua naturala ez denez, martxa egiten zoazen bitartean teknika errespetatzea pentsatzen joan behar duzu denbora denean. Hasten bazara beste gauza bat pentsatzen, berehala ohartzen zara ez zarela ondo egiten ari. Nola egin behar den edonon topatuko duzu, hori egitea da batere erraza ez dena. Muskulu desberdinak erabiltzen dira korrika egitearekin alderatuta, gehiago gluteoak-eta mugitzen dira; hortaz, ohitu arte kosta egiten da. Baina behin hartuz gero, ni behintzat, ez naiz korrika eginda bezain nekatuta geratzen.

**Eta esan daiteke teknika menperatzen duzula, edo beti dago hobetzeko aukera?**

Ez, ez [barre]. Oraindik ere gauza batzuk ez zaizkit ateratzen. Gauza bat da arauak betetzea, baina gero kontuan hartu behar da atzeko hankarekin inpultsua nola hartu, besoak nola eraman... Entrenatu eta entrenatu egin behar da. Banoa, poliki-poliki. Uste dut gero eta hobeto egiten dudala, eta hori ikusten da: teknika zenbat eta hobeto egin, azkarrago joaten zara, berez. Lehiaketetan ari naiz denborak hobetzen.

**Bai; ikusi dut iazko Espainiako Txapelketatik oraingo Euskadikora ia bi minutu eta erdi hobetu duzula [5.000 metroetan].**

Espainiakora joan nintzen bi hilabete entrenatuta. Orain gehiago entrenatuta nago, hilabete batzuk badaramatzat, eta ari naiz teknika hobetzen poliki-poliki. Euskadiko Txapelketan oso gustura geratu nintzen lortu nuelako azarotik hona minutu eta segundo bat jaistea nire marka onena. Teknika aldatu egin dut apur bat eta askoz azkarrago ibiltzea lortu; niretzako oso denbora ona lortu nuen. Baina gero bideo batzuk ikusi eta ikaratu egiten zara ikusita nola ibiltzen diren. Nik azken txapelketan 5:27an-edo egin nuen kilometroa, eta elitekoek lau minutuan-eta egiten dute. Ikusten duzu eta ez duzu ulertzen nola egin daitekeen martxa halako abiaduran. Baina uste dut oraindik badudala hobetzeko tartea.



Juan Carlos Ugarte martxa lasterketa batean. | MARISOL RAMOS

> "Hasi nintzen klub arteko txapelketan diziplina denetarako jendea behar zelako"

> "Behin ohituz gero, ez naiz korrika eginda bezain nekatuta geratzen"

> "Jendeak atzera begiratzen zuen lehen, pasatzen nintzenean"

## Hirugarrena Zaragozan

Juan Carlos Ugartek brontzezko domina lortu zuen Espainiako beteranoen txapelketan, martxako 3.000 metroko proban; zapatuan, Zaragozan jokatutako proban, hirugarren lekuan bukatu zuen oñatiarrak. "Oso gustura nago egindako denborarekin eta bizi izandako sentsazioekin. Lehen aldiz hartu dut parte Espainiako txapelketan, eta ezin naiz kexatu. Pozik noa etxera", esan zigun proba bukatu ondoren.

Txapelduna 20 segundora izan zuen eta bigarrena 10era.

**Lasterketa aldetik, Espainiakoa, Euskadikoa eta halako txapelketez gain, izaten dira gehiago?**

Oso gutxi, nik dakidanez. Nik urte bat daramat martxa egiten; Euskadin martxako probarik egiten denik ez dut inoiz entzun, ez dakit egingo den. Katalunian bai, badaude, han asko praktikatzen da martxa. Duela bi aste izan da hango txapelketa, eta kategoria guztien artean, infantiletatik beteranoetara, ia 500 atleta aurkeztu ziren. Andaluzian ere egiten da martxa. Orduan, leku horietan egoten dira proba gehiago. Hemen, Gipuzkoan, lauzpabost izango gara martxa egiten dugunak, baldin bagara; nik beste bi baino ez ditut ezagutzen...

**... Debagoienean zu izango zara, agian, bakarra.**

Ba pentsatzen dut une honetan baietz; nik behintzat ez dut beste inor ikusi.

**Ba hain lasterketa gutxi egonda, ez da erraza izango, batez ere gazteentzat, martxa egiteko motibazioa edukitzea.**

Pentsatzen dut ezetz. Gazte bat martxan hastea zaila izan behar da; lehenengo, inor ez dutelako ikusten hemen. Hasteko motiboa izan daiteke baten bat ikustea egiten, edo entzutea talde batean bizpahiruk egiten dutela. Halakorik ez dago hemen eta, bestalde, lehia gutxi daude. Nik behin bakarrik egin dut lehia bat txapelketakoa ez dena, Toledon, azaroan; krosa eta martxa zeuden, Marisolek egin zuen krosa eta nik martxa, turismoa eginez bide batez. Zaila da. Dena dela, neuri lehia ez zait gehiegi gustatzen; entrenatzen duzu, eta lehiaketetan neurtzen duzu nola zabiltzan. Baina nik egiten dut kirola egitearren eta gustura nabilelako martxa egiten.

**Herrian ezer esaten dizute martxa egiten ikusten zaituztenean?**

Jende denak. Nik uste Olatera paseoan doazenak ohitu direla dagoeneko, baina lehen beti esaten zidan Marisolek jendeak atzera begiratzen zuela pasatzen nintzenean. Eta jendeak komentatzen dit bai, egiten dudana zer den, martxa al den.

**Beteranoen Europako Txapelketa izango duzu hurrengo erronka, martxoan Donostian. Ze asmorekin?**

Aprobetxatu egin behar da hemen bertan eginda. Asmoa da parte hartzea eta esan ahal izatea Europako Txapelketa baten egon naizela. Ikusten duzu zeintzuk apuntatzen diren eta ze denbora dituzten eta mundu bat dago haien eta nire artean.

# Heziketak inposatutako hainbat rol Euskal Herriko gaztetxeetan ere

'Gaztetxeak eta generoa' ikerketa egin du Pili Alvarez soziologo gazteak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARRASATE

Euskal Herriko 16 gaztetxe abiapuntu hartuta, gaztetxeetako kultura eta harreman motak aztertu ditu Pili Alvarez soziologo gazteak *Gaztetxeak eta generoa* izeneko ikerketan, Emakunderen beka bati esker. Hamar hilabetez behaketak, eztabaida taldeak eta elkarrizketak egin ostean denetiko kasuak topatu dituztela esan du soziologoak, baina dio gaztetxeak espazio libreak izanik oso markatuta daudela; ez dagoela aniztasunik. Jaiak nola planteatzen diren, eszenatoki gainean nortzuk egoten diren... detaile txiki asko direla dio, eta gehienetan arazoa ez dela identifikatzen.

"Teoria eta praktika ez datoz bat", esan du soziologoak. Berez, gaztetxeek antolamendu horizontala dute, antitaurinoak, antisexistak... dira, baina gero eguneroko funtzionamenduan heziketak inposatutako hainbat rol errepikatzen dira". Hilabete batez sei gaztetxeren ekintzak aztertu dituztela azaldu du Alvarezek, eta ondorioa da kontzertuak eta asanbladak direla gehien egiten diren ekintzak. "Gaztetxeetan jende mordoa biltzen da, kolektibo ezberdinetakoak, espazio libre bat delako inongo burokraziarik gabe (...), baina horri ez zaio garrantzia ematen. Agian barra, eszenatokia eta soinu ekipo on bat izateari lehentasuna ematen zaio, eta bilera egiteko lekua ez da aproposa".

**Kontzientzia hartzea helburu**

Arazoa identifikatzea eta debatea piztea dira orain helburuak. "Kontzientzia falta ikaragarria dago. (...) Askok uste dute berdintasuna dagoela eta espazio libre horretan guztiok berdinak garela, hori ez da horrela". Ikerketa, orain, bigarren fasean da. Unitate didaktiko bat, tailer ezberdinak... jakin-mina piztea, eta formazioa ematea dituzte helburu. Bigarren fase hori jaialdi batekin amaituko dute; Oñatiko gaztetxean egingo dute apirilean.



Oñatin Antixenako gaztetxea inauguratu zeneko bazkaria. | AMAIA TXINTXURRETA


Nerabea bere bizikletarekin zuhaitz baten gerizpean. | SLIGHTLY EVERYTHING

# Nerabezaroa: aldaketa, proba eta aurkikuntza garaia

Joseba Azkarraga irakasleak dio nerabezaroa ulertzeak lagunduko duela nerabea ulertzen

**L.Z.** | ARRASATE

Nerabezaroari buruzko artikulua argitaratu dute *Hik Hasi* aldizkarian, eta gaiaren inguruan Huheziko irakasle Joseba Azkarragak zein Aitziber Estonba sexologoak emandako argibideak jaso dituzte bertan.

**Fenomeno moduan ulertu**

Nerabezaroa, sarri, oso garai konplikatua bilakatzen da etxean; seme-alaba, bat-batean, ezezagun bihurtzen dela diote guraso askok. Azkarragaren esanetan, nerabea baino gehiago, nerabezaroa bera da aski ezezaguna. "Gaur egun, DBHko lehen urtetik batxilerrera edo ziklo formatibora bitarteko garai hori, 12tik 18ra —edo kasu batzuetan 20 urteak arte—, hauxe da adin horretako pertsonen egitekoa: nerabe izatea". Azkarragak bizitzako etapa horren garrantziaz jabetu gura ditu gurasoak: "Garapen biologiko, psikologiko, sozial eta sexualean garrantzia handia duen etapa izango da. (...) Nerabeek dena daukatela esaten da, eta ikuspegi materialetik hala izaten da sarri, esne mamitan haziak izan baitira; baina ikuspegi psikosozialetik hauskorragoak dira. Nerabeari arreta berezia eskaini ezean, familiak eta eskolak ulermena eskaini ezean, ulertuko dituen beste eragile batek eskainiko die arreta berezia: merkatuak".

Nerabezaroa ulertzeko, nerabeek bizi duten bilakaerako unearen garrantziaz jabetu behar dela dio Aitziber Estonba sexologoak, helduek haiekin duten jokaera zorrotzegia izan ez dadin, eman dezakeena baino gehiago eska ez dakion eta elkarbizitzarako bideak uztartzeko. Aldaketa fisikoak, aldaketa psikologikoak, eta aldaketa sozialak nabarmentzen ditu Estonbak. "Nia eraikitze horretan, probak egiten dituzte. Beren eta ingurukoen mugak ezagutu behar dituzte, eta sarri, bai fisikoki nahiz izaera aldetik, muturreko jarrerak hartu ohi dituzte", azaldu du Estonbak.

## Dokumentazio gune digitala sortu du Galtzagorrik

**L.Z.** | ARRASATE

Euskal haur eta gazte literaturaren dokumentazio gune digitala ipini du martxan Galtzagorri elkarteak *www.galtzagorri.org* atari digitalean. Bertan, euskarazko haur eta gazte literaturan argitaratzen diren liburuen inguruan prentsan egiten diren kritika literarioak bilduko dituzte, hilez hil. Horretaz gain, argitaratzen diren liburuen giden bilduma eta bibliografia jasoko dituzte. Galtzagorriko orrialdean dagoen E.H.G. Literatura atalaren barnean aurki daiteke atal berria.

Dokumentazio gune digital berria urtarriletik dago martxan Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikarako sailburuordetzaren laguntzaz. Atal berrian euskarazko haur eta gazte literaturan argitaratzen diren liburuen inguruko kritiken hemeroteka, gidak, eta bibliografiak aurkituko dituzue. Bestalde, dokumentazio gune digital horretan egongo da aurrerantzean Galtzagorri elkarteak orain arte martxan izan duen aldizkarien mailegu zerbitzua.

Formulario baten bidez eskaintzen du Galtzagorrik jasotako eta digitalizatutako aldizkariak maileguan hartzeko aukera. Hori bai, aldizkari horiek mailegatzeko, Galtzagorriko bazkide izatea ezinbestekoa da.

## Nerea Mendizabal gaur, astelehena, Kukumikuren egoitzan

Haurren emozioen inguruan eta guraso bezala jarri nahi diren mugen inguruan ariko da gaur, astelehena, Nerea Mendizabal psikopedagogoa Aretxabaletan. Nola erantzun haurraren emozio ezatseginen aurrean, mugak nola ipini... Saioa 17:30ean hasiko da Kukumikuren egoitzan. Prezioa 10 euro da, zazpi euro bazkideendako.

## Nerabeen ezaugarriak hizpide eguaztenean Arrasaten

Arrasateko Udal Prebentzio sailak antolatuta, nerabeen eta nerabezaroaren inguruan hitz egingo du Agipad elkarteko psikologo batek. Hitzaldia Kulturateko Loramendi gelan egingo dute, eta 12-18 urte bitarteko nerabeen gurasoei zuzenduta dago. Argibideak: 943 25 20 07 telefono zenbakian edo *prebentzio@arrasate-mondragon.net*.

## Anaia-arreben arteko harremanak aztergai Elgetako herri eskolan

Maala guraso elkarteak Baikara federazioarekin batera antolatuta, anaia-arreben arteko harremanak izango dituzte hizpide Elgetan martxoaren 14an, eguena. Baikarako Iñaki Saezek egingo du gurasoei zuzendutako hitzaldia, 18:30etik 20:00etara. Hitzaldiaren izenburua da *Gorrototik maitasunera joan-etorriko bidea*.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera** guraso.com



# GOIENA, POLTSIKOAN

Zure herriko albisteak,
Ibarreko albisteak.
Iragarki sailkatuak.
Jaioberriak.
Zorion agurrak.
Ezkontzak.
Eskelak.
Eguraldia.
Goiena Gida.
Goiena Kluba.

**DESKARGA EZAZU APLIKAZIOA!**

android

HTC
Samsung
Sony
Ericsson
LG
Motorola
Alcatel
Huawey
Nexus

Google play

iOS

iPhone eta iPod touchekin bateragarria.
iOS 3.0 edo berriagoa behar da.

Available on the iPhone App Store

Gainerakoak:

Nokia
BlackBerry
Windows
Symbian

*m.goiena.net/gida.html*

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# KULTURA




Imazek etxebizitzaren arazoari buruz egindako erreflexioaren une bat. | IMANOL SORIANO

## Kontsumitzen gaituen errealitatearen kontra, barrea

### Errealitateari eta gehiegizko kontsumoari kritika gordin eta umoretsua egin zion Virginia Imazek

**FITXA**

ANTZERKIA

**"CONSUMIENDONOS" OIHULARI KLOWN**

**Generoa:** Klown.

**Non:** Bergarako Zabalotegi aretoan.

**Eguna:** Egubakoitza, martxoak 1.

**Iraupena:** 90 minutu.

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Egubakoitza, arratsaldeko zortziak inguru. Virginia Imaz, kotxetik atera ostean, Bergarako Zabalotegi aretoko atean aurkitzen dugu. Oihulari Klown konpainiak sortutako *Consumiendonos* antzezlanaren estreinaldirako pare bat ordu besterik ez dira falta eta Imazi urduritasun puntu hori nabaritzen zaio. Bera donostiarra izan arren, Oihulari Bergarara itsatsita dagoen klown konpainia da. Urteetan gertatu den moduan, eta hamarretan frogatzeko aukera izango dugun bezala, Bergarak ez dio bizkarra emango eta Zabalotegira jende ugari hurbilduko da. Erronka ez da erraza, baina Imazek, urtetan egin duen moduan, errealitatea eta kontsumoaren gaia haur baten begirada kurioso, gordin eta alai batetik jorratzea lortu du.

**Kontzientzia kontzientziatua**

Albistegiek, egunero, leporaino sartuta gauden errealitate grisa gogora ekartzen digute: inflazioa, langabezi tasa, murrizketak... Eta Oihulari Klownek ere antzeko titularretatik sortu duen *Consumiendonos* antzezlanak errealitate bera kontatu arren, beste ikuspuntu bat erabiltzen du: lasaiagoa, erakargarriagoa, barregarriagoa.

*Consumiendonos* antzezlanari Oihulariren kutsua nabari zaio: ironia, umorea; errealitateak setazko eskularru batekin zaplazteko bat eman dizula dirudi. Min egiten du, barruak astintzen dizkizu baina aldi berean ezin diozu barreari eutsi.

Ikuskizunaren ostean, pozik dago Imaz, egindakoak izandako erantzun positiboagatik; baina ziur naiz dagoeneko hasi dela zenbait aldaketa pentsatzen edota hurrengo ikuskizunaren ildo nagusiak sortzen. Artistak, beti izango dira artista.



Neurri gabe erosteak ematen duen hasebetetze sentipena. | I.S.



Kontsumismoak jende askoren bizitza gidatzen duela ere salatu zuen. | I.S.

**VIRGINIA IMAZ** | OIHULARI KLOWN

### "Nire interes eta pasadizoez gainera, ikuslegoak markatzen dit norabidea"

Artista bat beti izango da sortzailea eta zirikatzailea. Virginia Imaz kontu hauetan maistra da, eta *Consumiendonos* bere azken lanean gure gizartea astintzen duen gehiegizko kontsumoa salatzeko tresna moduan umorea eta barrea erabiltzen ditu.

**Nola sortu zenuen kontsumori buruzko antzezlan hau?**

Aspaldiko kontu bat da, kontsumo arduratsuari buruzko emanaldi batzuetan eskatu izan digute gai honi buruzko hausnarketa bat egitea. Dena den, gai gehientsuenetan moduan, konklusioetatik baino klownklusioetatik abiatuta sortutako ikuskizun bat da.

**Kontsumoak luzerako ematen du, nola egiten duzu gaia mugatzeko?**

Prozesu bizi bat da: batetik, nire interesa pizten duten gai eta anekdotetatik hasten naiz; eta bestetik, ikuslegoaren erantzunaren arabera, batera edo bestera egiten dut.



I.G.

***Consumiendonos* komedia tranpa bat da?**

Ez, jendeak badaki Oihulari talde konprometitua dela eta gure ikuskizun guztiak antzerakoak dira. Umorea erabiltzen dugun arren, kontakizunak oso errealak eta askotan gordinak izaten dira.

**Kontsumituko gara?**

Ez dut uste, jendeak lehengoa nahi du, nazkatu gara eta hurbilekoak, ekologikoak... gero eta garrantzi handiagoa dauka.

# Ganbara abesbatza buru-belarri ari da datozen hilabeteotan dituen lehiaketak prestatzen

Zapatuan 125 bat lagun elkartu ziren Bergarako Santa Marina elizan Oñatiko abesbatza entzutera; Ejeako eta Spittaleko lehiaketetara eramango dituzten piezak eskaini zituzten

**LARRAITZ ZEBERIO** | BERGARA
Galtzak bete lan dabiltza Oñatiko Ganbara abesbatzan. Sari ugari lortutako taldea da, baina beti daude helburu eta erronka berriak, eta aurtengoa Spittal (Austria) da. Nazioarteko abesbatza lehiaketa egiten dute bertan, eta oñatiarrak bertan izango dira aurten. "Bost kontinenteetako abesbatzak elkartzen dira, eta maila altua da", adierazi du Ganbara abesbatzako zuzendari Aitor Biainek. "Lehiaketa horretan parte hartzeko hautatuak izanagatik bakarrik oso pozik gaude", esan du.

Lehiaketa uztailaren 5etik 7ra bitartean jokatuko da, eta oñatiarrek hamar pieza aurkeztu behar dituzte. Horietako batzuk zapatuan Bergarako Santa Marina elizan egindako kontzertuan eskaini zituzten. "Oso gustura gaude kontzertuak emandakoarekin", adierazi zuen Biainek. "Pieza berri asko estreinatu ditugu kontzertu horretan, eta inpresio onarekin irten gara".

Kontzertuan 15 pieza eskaini zituzten, sakra musika folklorearekin nahasturik. "Santa Marinan oso gustura abesten da sakra musika. Bestelakoak zaindu egin behar dira, izan ere erritmo bizkorragokoak izatera nahastu egiten dira apur bat".

Bergarako orfeoiak gonbidatuta izan ziren oñatiarrak Bergaran, eta 125 bat lagun gerturatu ziren Santa Marinara kontzertua entzutera. Bergararrak ere gustura gelditu ziren: "Oso onak dira, *tela marinera!*", esan zuen emanaldi amaieran orfeoiko zuzendari Karlos Etxanizek.

Austriara hamar pieza eraman behar dituzte, tartean antolatzaileek aukeratutako hiru. "Nahiko pieza zailak dira, eta horiek muntatzen ari gara orain". Zapatu goizeko adierazpenak dira. Ganbara abesbatzak egun osoko zuen entsegua egin zuen.

### Zaragozara apirilaren 6an

Austriara joan aurretik, Zaragozan, Ejeako lehiaketan ere izango dira oñatiarrak. Buru-belarri dihardute bi lehiaketak prestatzen, eta nabari zaie. Bergarako emanaldian argi geratu zen hori.



Ganbara abesbatza, zapatuan, Bergarako Santa Marina elizan. | IMANOL SORIANO



Aitor Biain zuzendari lanetan. | IMANOL SORIANO

# 'Euskararen Espektakulue'-k urteurrena bete du, Euskal Herriko 20 bat herritan izanda

- Oihan Vegak ikusle gutxi izan zituen barikuan Elgetan, baina pozik dago jasotako erantzunarekin
- Oñatin ere izango dute *Euskararen Espektakulue* ikusteko aukera; apirilaren 12an izango da



Oihan Vega, Elgetako kafe antzokian bakarrizketa egiten. | IMANOL SORIANO

**L.Z.** | ELGETA
Oihan Vega polifazetikoa dela ukaezina da. Duela urtebete estreinatu zuen Aretxabaletan *Euskararen Espektakulue*, eta ordutik Euskal Herriko hainbat herritan izan dute euskarazko bakarrizketa umoretsua ikusteko aukera. "Elgetan jende gutxi etorri da, baina egon direnak gustura egon dira, eta barre egin dute. Sentsazioetan ere neurtzen dira emanaldiak", esan du Vegak. Ordu erdiko bakarrizketa saioa da *Euskararen Espektakulue*, hausnarketa umoretsua berez serioa den tema baten gainean, baina formatuak etorkizuna duela iritzi dio bergararrak. "Euskarazko bakarrizketa gutxi ikus daitezke, baina urtebete honetan ikusi dudana da eskaera badagoela", esan du Vegak. "Gidoia aldatzeko unea iritsi zaigula uste dut, baina baikorra naiz; bide honek badu etorkizunik", gaineratu du. Eta Oihan Vegaren ausardiaz ez dugu inongo zalantzarik. Plaza gogorra izan zuen barikuan Elgetan, eta eszenatokian ondo defendatu zuen bere lana. Eskarmentuduna dela bistakoa da.



Vegak gitarra izan zuen lagun. | I.S.



Paper gainean egindako teknika mistoekin landutako margolanak ikusgai Aroztegin. | IMANOL SORIANO

# 'Joko bitxiak' arte bilakatu ditu Herrerok

## Martxoaren 10era arte, domeka, izango da ikusgai erakusketa, Aroztegin

**MAIDER ARREGI** | ARRASATE

Bergarako Aroztegi aretotik Miren Iturricastillok azaldu digunez, Jabier Herreroren eskultura eta margo erakusketak harrera ona izaten dihardu. "12 bat koadro eta 12 bat eskultura ekarri ditu bizkaitarrak; otsailaren 15ean ireki genuen eta aste hauetan jendearen sartu-irtena igarri da. Oraindik erakusketa aste osoan zabalik izango da, domekara arte, etorri nahi duenarendako", kontatu digu.

Jabier Herrero 48 urteko artista iodiotarra da. Grabatuak, eskulturak eta margolanak egiten ditu. Hain zuzen ere, paper gainean teknika mistoak erabiltzen ditu eta giza irudian oinarritutako lanak erakutsi dizkigu *Bernardo Soaresen mitoa* izeneko arte bilduma ikusgarrian.



Giza atalekin, eskulturan, *Joko bitxiak* egiten ditu Herrerok. | IMANOL SORIANO

**200 erakusketa baino gehiago**

Nazio eta nazioarte mailan, 200 erakusketa baino gehiago egin ditu dagoeneko Herrerok, 10 urteko epean. Tartean, Japongo Yozo Haamaguchi museoan eta New Yorkeko azokan izan ditu lanok erakusgai. Milanen edo Suediako Hudiksvall museoan ere erakutsi du bere arte bilduma.



IMANOL SORIANO

## 34.urteurrena kantu giroan ospatuz

Aritzeta abesbatzak, urteroko ohiturari eutsiz, Bergarako erdiguneari musika jarri zion, zapatu iluntzean. Abesbatzako 20 bat lagun inguru batu ziren hotzari aurre eginez kantuan egitera. 18 urteko taldekideak nahiz 60 urte pasatxo dituztenak ikusi genituen Aritzetaren 34. urteurrena ospatzen. Izaskun Labaien da hasieratik egon den taldekide bakarra eta gustura jarraitzen dutela kantu-poteoarekin azaldu zigun. Ondoren, denek elkarrekin, Ollagorra elkartean afaria egin zuten.

# Denis Jonesen dotorezia eta abilezia Kulturaten

**M.A.** | ARRASATE

Apustu gogorra egin dute Arrasateko Udaleko Kultura sailetik, gurean horren ohikoak ez diren doinu elektronikoak eta efektuz beteriko erritmoak izan ziren -eta entzungai barikuan Kulturaten. 50 lagun inguru batu ziren kontzertuan eta inor ez zuen hotz utzi Denis Jones musikari polifazetikoak. "Jendea harrituta geratu da. Uste baino doinu elektronikoagoak eta efektuz beteriko melodiak eskaini ditu. Berak bakarrik ordubete pasatxoko saio eskaini du. Baliteke jendeak ez ezagutzea musikaria, baina bere musika guztiz erraza da entzuteko eta barneratzeko", azaldu digu Karmelo Alberdi Kultura teknikariak. Inprobisaziorako ere lekua izan zen; azken bi abestiak bat-batean, barrutik ateratakoak izan ziren-eta. Horrelakoekin, hutsik geratzen diren esparruak betetzea dute helburu, Alberdiren esanetan.



Denis Jones musikaria, zuzenekoko une batean. | IMANOL SORIANO

# Euskal Herriko palindromo onena: 'Irudiak uluka iduri'

## Arrasateko palindromo onena Xabier Zubizarretarena: 'Errua erru; irria irri; urrea urre'

**M.A.** | ARRASATE

Egubakoitz iluntzean banatu ziren Euskal Herriko palindromo onenen hirugarren edizioko sariak. Zumarragako Xabi Lasaren *Irudiak uluka iduri* palindromoak irabazi du aurtengoan. Arrasateko palindromo onena, aldiz, Xabier Zubizarretak aurkeztutako hauxe: *Errua erru; irria irri; urrea urre*. Euskal Herriko txoko askotatik bidalitako 48 palindromoen artean egin du aukeraketa epaimahaiak: Markos Gimeno palindromogileak, Amaia Arana Udal euskaltegiko zuzendariak, Oskar Elizburu Erdu-AEK euskaltegiko zuzendariak eta Juan Mari Agirreurreta bigarren edizioko irabazleak. AEDko kide Maite Agirre gustura azaldu da parte-hartzearekin; bereziki, arrasatearren parte-hartzeak gora egin izana azpimarratu gura izan du Agirrek.



A. Etxabe, X. Zubizarreta, J. Sugasti, X. Lasa eta M. Agirre. | IMANOL SORIANO

GURE MUSIKA TALDEAK

BEHI BI BLUES



Behi Bi Blues zirkoan. | MADDALEN LOPEZ DE LACALLE

# "Metxa motz bat bezalakoak izaten dira gure kontzertuak"

- Gitarra, aho soinua, ahotsa eta sentimendua dira formatu honen ezaugarriak
- Gure helburua da aurten lehenengo diskoa kaleratzea

**JAGOBA DOMINGO** | BERGARA

*Cadillac Records* filma ikusi ondoren, blues musikaren sustraietara buelta egitea erabaki zuten Bergarako Azkaiter Pelox -ek eta Soraluzeko Gaizka Azkaratek. Muddy Waters eta Little Walter bluesman-en antzera, gitarra eta aho soinuarekin taberna zuloak astintzea erabaki zuten orain dela urtebete, eta ordutik hona 20 bat kontzertu eskaini dituzte Behi Bi Blues bikote bezala. Edozein egunetan etxe ondoan entzuteko aukera izanez gero, merezi du inprobisaziotik jaiotako proiektu ausart honi tartetxo bat eskaintzea.

**Nolatan hasi zenuten Behi Bi Blues?**

Bion arteko harremana Bergaran jo genuen kontzertu batean hasi zen. Ikasle Abertzalekoek kontzertu bat antolatu zuten eta bertara gutako bakoitzak proiektu ezberdin batekin jo zuen, nik [Azkaiter Pelox] Kapeldunak taldearekin jo nuen, Emon taldeko Ekaitz eta Aritzekin batera; eta Gaizkak, ZZ Blues Band taldearekin jo zuen. Nik gitarrarekin gehienbat rythm & blues musika jotzen nuen eta, berak aho soinua jotzen zuenez, hitz egiten hasi ginen. Kontuak kontu, kontzertu berean ZZ Blues Band-ekin kantu bat jotzea eskaini zidaten, eta kantu bat jo beharrean kontzertu erdi egin genuen batera. Momentu horretan erein genuen hazia.

**Elkar ezagututa, proiektu bateratua sortzea izan zen hurrengo urratsa.**

*Zamburleiker* diskoa grabatzera nindoanean, 2011 urte hasieran, kantu batzuek aho soinua behar zutela ikusi nuen, rockabilly-aren eta blues-aren hotsa entzun nuen, eta Gaizkarekin pentsatu nuen kantuei toke zaharra emateko aproposa zelako. Egia esan, kantuak egiterako momentuan tarte batzuk aho soinuari utzi nizkion, eta tarte hauek Gaizkaren izena zeramaten. Eta grabazioan aho soinuari eman zion sentimendua asko gustatu zitzaidan; beraz, hurrengo pauso naturala talde bat sortzea izan zen.

**Blues formatu klasikora bueltan?**

Guztiz, gure arteko konexioari irteera emateko formatu ezin hobea da. Gainera *Cadillac Records* pelikula eta Martin Scorsese-ren *Presents the blues* dokumental saila ikusi ondoren egin beharreko zerbait bezala ikusten genuen. Gitarra, aho soinua, ahotsa eta sentimendua; horiek dira formatu honen ezaugarriak.

**Gainera, kontzertuak emateko formatu erosoa da, ezta?**

Bai, kontzertuak emateko, entseguak antolatzeko, erabakiak hartzeko... talde batean baino askoz ere errazagoa da dena, logistika aldetik dena errazten da, eta publiko zein beste musikariekin hartu emana izateko giro hobea sortzen da. Askotan kontzertuetara gitarra, aho soinua eta anplifikadore bi besterik ez ditugu eraman behar, horrek dakarren guztiarekin. Momentu honetan oso pozik gaude formatu klasiko honekin.

**Eta nolakoak dira zuen zuzenekoak?**

Hasteko, kontu kontalari batzuk garela uste dugu, gure istorioak kantuetara daramatzagu eta letrek garrantzia asko hartzen dute bi pertsona garen momentutik. Talde batekin jotzean babestuago sentitzen zara, baina taula gainean gitarra garbi bat eta aho soinu bat besterik ez dauden momentuan esaten duzunak garrantzia asko du. Askotan, gainera, publikoarekin hitz egiten dugu, *feedback*-a lortzeak berebiziko garrantzia du. Musikalki, aldiz, metxa motz bat bezalakoak izaten dira gure kontzertuak. Lasai hasten gara bossa nova kantu batekin edo summertime bezalako kantuekin eta pixkanaka funky-a, hard rock-a eta blues-a sartzen ditugu; boogie eta rythm & blues musikarekin amaitzeko.

**Zuzenean ere uzten diozue tartea inprobisazioari...**

Bai, zalantzarik gabe, ikaragarri gustatzen zaigu inprobisatzea. Horregatik egiten dugu 50. hamarkadako bluesa. Hasieran ez nuen nire burua blues kantuak jotzeko gai ikusten, baina pixkanaka ikasi dugula uste dut. Eta ikaste prozesu honetan jam-ak oso garrantzitsuak izan dira; beste musikari batzuekin jotzeak asko erakusten dizula uste dut.

**Behi Bi Bluesen diskoa noizko?**

Aurten grabatzeko asmoa dugu, uztaila aldean denbora tartea izango dugulakoan nago eta orduan aprobetxatuko dugu lehenengo diskoa grabatzeko. Axular estudioan grabatzeko asmoa dugu, baina hori lortzeko aurretik finantzatzeko bide bat aurkitu behar ko dugu. Helburua da, hori bai, aurten grabatzea.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.**

**Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. ETXEBIZITZAK** | **3. LOKALAK** | **5. IRAKASKUNTZA** | **7. ANIMALIAK** | **9. HARREMANAK** |
| 101. Saldu | 301. Saldu | 501. Jaso | 701. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 302. Erosi | 502. Eman | 702. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 303. Errentan eman | 503. Bestelakoak | 703. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 305. Bestelakoak | **6. MOTORRA** | | |
| 106. Bestelakoak | | 601. Saldu | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | **4. LANA** | 602. Erosi | 801. Saldu | |
| **2. GARAJEAK** | 401. Eskaintzak | 603. Alokatu | 802. Erosi | |
| 201. Saldu | 402. Eskaerak | 603. Konpondu | 803. Eman | |
| 202. Erosi | 403. Bestelakoak | 604.Bestelakoak | 804. Hartu | |
| 203. Errentan eman | | | 805.Trukatu | |
| 204. Errentan hartu | | | 806.Galdu | |
| 205. Bestelakoak | | | 807.Aurkitu | |
| | | | 808. Bestelakoak | |

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Pisua salgai edo alokairuan probalekuan; 3 logela, 3 balkoi, sukalde- jantokia, egongela handi bat, komuna eta ganbara. Interesatuak deitu telefono honetara: 615-71 12 40.

**Abadiño.** Matiena auzoan pisua salgai. Bizitzen sartzeko moduan. Guztiz berriztatuta eta altzariz jantzia. 3 logela, igogailua, hegoaldera begira, denak kanpora ematen du, eta eguzkitsua. Zatoz ikustera, gustatuko zaizu. Prezioa: 199.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 688-86 18 78.

**Abadiño.** Matienan pisua salgai. Gela bi, egongela, bainu-gela eta sukaldea. Altzariz hornitua. Berogailua gas naturalarekin. 682-43 93 23 (9:30-13:00/ /15:30-20:00).

**Abadiño.** Pisua salgai/ alokairuan Muntsaratzen. Sukalde -egongela, 3 logela, bainugela eta komuna, balkoi handia, igogailua eta berogailua, garajea. Interesatuak deitu telefono honetara: 94-681 68 91.

**Aramaio.** Aita Gabirel Jauregi kalean etxebizitza salgai, errentan emateko aurkerarekin. 70 metro koadro. Bi logelakoa. Guztiz jantzia. Ganbara eta garajearekin. 679 45 57 62 (Ruben) edo 664 74 90 23 (Naiara)

**Arrasate.** Apartamentua salgai erdigunean, Uharkape kalean. 53 metro koadro erabilgarri. Egongela-sukaldea, bainugela, logela bat, balkoia eta jantzi-gela. Igogailuarekin. Berokuntza indibiduala. Jantzita. Ondo zainduta. Bizitzera joateko prest. 130.000 euro. Garajea aukeran. Interesatuak deitu telefono hauetara: 619 18 14 86 edo 665 74 82 43

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Interesatuak deitu telefono honetara: 647-77 73 92.

**Durango.** Durangon San Ignazio auzunean pisua salgai. Gela bikoa, argitsua eta lasaia. Prezioa: 155.000, euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 686-21 77 01.

**Durango.** Pisua salgai Durangoko erdigunean (merkatu plazaren ondo- ondoan). Logela bi. Sukaldea eta egongela, bat eginda. Trastelekua. Kontsumo baxuko berogailua. 63 m2 inguru. Erreformekin. Etxe oso- osoak kanpora ematen du. Oso argitsua eta eguzkitsua. Lasaia eta polita. 130.000 euro (argazkiak iragarkilaburrak.com eta idealista.com-en). Interesatuak deitu telefono honetara: 695-70 24 61.

**Eibar.** Etxea salgai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztatzeko. Interesatuak deitu telefono honetara: 94-655 05 53.

**Eibar.** Pisua salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukaldea, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar -hegoaldekoa da. Arroparako esekitokia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Interesatuak deitu telefono honetara: 656-78 60 97.

**Elorrio.** Elorrion estreinatu gabeko etxe berria salgai. 2 bainugela, 3 logela, sukalde ekipatua eta 8 m2-ko trastelekua. Prezioa: 210.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 634-45 72 01.

**Garai.** Oarbeaskoa baserria salgai.10.000 m2-ko lursaila. Garaiko San Migel auzoa, 6. 8.500 m2-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m2ko baratza, frutalak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetza kontsulta, jatetxeak(2) eta bus geltokitik 150 metrotara. Durangotik 10 minutura. Ap-8 autopistatik 5 minutara. Interesatuak deitu telefono honetara: 639-83 34 89. Emaila: jo.amantegi@gmail.com.

**Iurreta.** Pisua salgai Iurretan, Maspe kalean. Interesatuak deitu telefono honetara: 633-23 38 48 (Jon).

**Iurreta.** Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 66.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 685-72 80 42.

**Iurreta.** Iurretan, Maspe kalean, 3 logelako pisua salgai. Interesatuak deitu telefono honetara: 633-23 38 48.

**Mallabia.** Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 112m2 azalera eraikituak. Aukera bikaina. Interesatuak deitu telefono honetara: 695-77 31 41.

**Oñati.** Erdigunean 67 m2ko etxebizitza salgai. Sukalde guztiz hornitua, egongela, bi logela eta komuna. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 215.000 euro. Garaje itxia, 35 metro koadrokoa, aukeran. Interesatuak deitu telefono honetara: 659-72 06 64.

**Zaldibar.** Zaldibarren pisua salgai. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea biltegiarekin eta balkoia. Altzariz hornitua. Harremanetarako deitu 697 -28 59 48.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Atxondo.** Apatan, lau logela, komun bi, egongela eta sukaldea duen pisu berria salgai edo alokairuan. Garajea aukeran. Interesatuak deitu telefono honetara: 679-29 08 96.

**Bastida.** Labastidan oporretako pisua alokatzen dut igerilekuarekin. Torre - otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuak deitu hona: 620-62 92 45.

**Durango.** Landako etorbidean, logelak alokagai. Interesatuak deitu telefono honetara: 607-68 64 02.

**Durango.** Pisu bat alokatzen dugu Durangon. 2 logela, 2 komun eta 90 m2-ko terraza. Oso eguzkitsua. Interesatuak deitu telefono honetara: 637 -41 64 38.

**Elorrio.** Elorrion apartamentua alokagai herri erdian. Logela bat, sukalde-egongela. Eguzkitsua eta bizitzera sartzeko prest. Interesatuak deitu telefono honetara: 94-682 04 38 (gauez deitu).

**Elorrio.** Elorrion estreinatu gabeko etxe berria alokagai. Bi bainugela, hiru logela, sukalde ekipatua eta 8 m2-ko trastelekua. Prezioa 650 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 634-45 72 01.

**Elorrio.** 50 m2-ko atiko berria alokagai Elorrion. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Igogailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko... Oso polita. Interesatuak deitu telefono honetara: 606 -04 38 35. Emaila: loitzate@hotmail.com.

**Eskoriatza.** Etxebizitza errentan ematen da Eskoriatza erdian. Etxea berri da, hiru logela eta bi komunekoa. Interesatuak deitu telefono hauetara: 652-70 08 00 / 620-50 08 49.

**Oñati.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta komun bat. Bi balkoirekin. Oso eguzkitsua. Jantzia, bizitzera joateko moduan. Hilean 500 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 670 30 60 98

**Puerto rico (Kanariar irlak).** Neguan kanariar irletan apartamentu bat alokagai, Puerto Rico herrian. Bista onak. Interesatuak deitu telefono honetara: 600 -46 44 11.

**Santo Domingo de la Calzada (Errioxa).** Pisu berria alokatzen da Santo Domingo herri erdian. Ezkaraitik hurbil. Denboraldietarako. 2-4 pertsonentzako. Interesatuak deitu telefono honetara: 657 -77 26 13.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikotea pisu bila Aramaion. Deitu zenbaki honetara:.620 15 13 11

**Arrasate.** Etxebizitza behar dugu errentan erdigunean. Logela bat edo bikoa. Interesatuak deitu telefono honetara: 672 96 08 22

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. 400 euro inguru ordain ditzaket. Daniela. Interesatuak deitu telefono hauetara: 727 74 42 36 edo 686 07 39 33

**Bergara.** Bikote euskalduna etxe bila alokairuan, gerora erosteko eskubidearekin. Interesatuak deitu telefono honetara: 695 72 55 96

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi edo hiru logelakoa. Interesatuak deitu telefono honetara: 638 93 11 48

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa. Urgentea da. Interesatuak deitu telefono honetara: 608 02 24 69

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Bi edo hiru logelakoa. Interesatuak deitu telefono honetara: 671 84 71 71

**Etxebizitza bila.** 500-600 euroko pisu bila. Urgentea da. Arduratsuak. 722 28 84 39

**Iurreta.** Baserria alokatu edo erosiko genuke, lur sailekin. Iurretan. Interesatuak deitu telefono honetara: 647-44 40 57.

**Durangaldea.** Pisu txikia alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest. 665-70 34 08.

### 105. ETXEAK OSATU

**Abadiño.** Logela bat alokagai Muntsaratz auzoan. Komun pribatua, ikuspegi paregabea, argitsua eta oso merke. Interesatuak deitu telefono honetara: 653-71 24 67.

**Abadiño.** Logela bat alokatzen dut Muntsaratz auzoan (Abadiño). Pisu berria, eguzkitsua eta merke. Interesatuak deitu honako telefono honetara: 679-61 71 54.

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan erdigunean, Andra Mari auzunean. 603 14 28 89

**Arrasate.** Bi ikasle gara eta etxebizitza osatzeko lagun bat behar dugu. 195 euro. Unibertsitatetik gertu. Interesatuak deitu telefono honetara: 682 59 60 67 telefonora.

**Arrasate.** Etxea osatzeko logela ematen da errentan. Deitu 699 11 45 14 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 629 80 77 73 telefonora.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko erdialdean. Jone. Interesatuak deitu telefono honetara: 636 05 36 18

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 230 euro dena barne. Interesatuak deitu telefono honetara: 670 85 86 68

**Berriz.** Berrizen logela bat alokagai. Erdi-erdian, tren geltokitik eta autobus paradatik minutu batera. Interesatuak deitu telefono honetara: 615-75 21 36.

**Durango.** Logela bat alokagai Durangon, Ibaizabal auzoan. Komun pribatuarekin. Interesatuak deitu telefono honetara: 652-86 57 80.

**Durangaldea.** Durangon, Alluitz kalean, pisua partekatzeko lagun baten bila nabil. Prezio onean. Neska gurago, mutila baino. Interesatuak deitu telefono honetara: 688 -67 86 90.

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Elorrio.** Elorrioko Berrio-Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! Interesatuak deitu telefono honetara: 658-75 92 64.

**Elorrio.** Elorrion, Berrio-Otxoa kalean, garaje itxia salgai. 17.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 634 -45 72 01.

**Elorrio.** Garaje itxia salgai elorrio erdialdean. Interesatuak deitu telefono honetara: 660 -45 87 56.

**Garajea salgai.** Auto birako garaje-plaza itxia salgai Montevideo kalean. Interesatuak deitu telefono honetara: 670-80 92 25.

**Oñati.** Atzeko kalen 17 metroko garaje itxia salgai. Interesatuak deitu telefono honetara: 665-71 77 98.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia errentan edo salgai Kontzeziño kalean, Iturbide egoitza parean. 15 metrokoa. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 77 08 02 edo 628 14 92 74

**Arrasate.** Uarkapen garaje itxia ematen da errentan. Interesatuak deitu telefono honetara: 680 77 64 05

**Bergara.** Garaje itxia, 18 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 943 76 06 60

**Tolosa.** Garajea alokairuan Tolosako Nafarroa etorbidea / Samaniego kalean. Ondo kokatua eta errez aparkatzeko modukoa. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 649-07 34 42, Emaila: martinmari2003@yahoo.es

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**Gasteiz.** Azken erabilera: Tailer mekanikoa garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonei moldatua. Hiri erdigunekiko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzea ere posible da: 800euro/hil. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 665-75 78 07 (Ana) emaila: ana. vitoria. gasteiz@gmail.com.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Gasteiz.** Gasteizen 70m2ko lokal zoragarri bat alokatzen da. San antonio 23 kalean dago. Biltegia, komuna eta bi erakusleiho ditu. Duela bost urte guztiz erreformatu eta egokitu zen. Erakusmahaia eta apalak ditu. 1200 euro/hil. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 693 -24 37 12.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Lokala errentan hartu nahi dugu aretxabaletan. Lagunekin egoteko lokal bat bilatzen ari gara. Prezioa negoziatzeko prest gaude, 400 euro inguru. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 688-60 24 78 / 634-46 47 07.

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Haur Hezkuntza ikasi duen 23 urteko neska prest haurrak zaintzeko. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 688 88 39 57 .

**Arrasate edo Bergara.** Emakumea gertu lanerako, orduka, nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan zein tabernan. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara:673 47 53 74

**Arrasate, Bergara edo Aretxabaleta.** Mutila gertu tabernan laguntzen edo nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientziaduna. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 662 08 22 03

**Arrasate.** 18 urteko neska euskalduna goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 943 79 52 50

**Arrasate.** Bertako emakumea, 54 urtekoa, nagusiak edo umeak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 943 79 60 89

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000 €
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000 €
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000 € baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m2. 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405 €.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m². 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 699 54 17 27

**Bergara.** 48 urteko neska lanerako gertu. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 606 24 79 09

**Bergara.** Arratsaldetan nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Esperientziaduna. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 610 34 97 88

**Bergara.** Bergarako emakumea gertu gauetan emakumeak zaintzeko. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 665 75 41 32

**Bergara.** Emakume arduratsua, euskalduna, haur heziketa tituluduna eta eskarmentu handikoa, umeak zaintzeko gertu. Arantza. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 688 65 30 62

**Bergara.** Emakumea prest arratsaldez, orduka, lan egiteko. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 650 62 12 94 edo 943 76 19 52 .

**Debagoiena.** Dendatan, tabernatan zein nagusiak zaintzeko gertu nago. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 634 16 78 71

**Debagoiena.** Emakume arduratsua lanerako gertu, nagusiak zaindu edo etxeko garbitasun lanak egiteko. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 688 69 07 28

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko. Legezko paperak ditut eta esperientzia handia. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 672 96 08 22

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 674 93 20 47

**Debagoiena.** Emakumea lan bila: ume zein nagusiak zaintzen, tabernatan edo etxeak garbitzen. Autoa daukat. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 67 20 00 86

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxeko lanetan, lantegian zein jatetxetan. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 647 10 58 72 edo 943 79 96 25.

**Debagoiena.** Emakumea nagusiak zaindu eta garbitasun lanetarako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 637 07 23 70

**Debagoiena.** Eraikuntzan, garbiketan zein mekanika lanetarako gertu nago. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 671 26 74 74.

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile tituludun gizona, antzuolarra, San Juan de Diosen lan egindakoa, lanerako gertu. Interesatuak: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Debagoiena.** Erizain titulua daukan neska lan egiteko gertu. Gauean edo egunean zehar ospitalean edo etxean nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 688 80 27 01 edo 943 25 02 96

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka. Maite. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

**Debagoiena.** Neska orduka edo gauez lan egiteko gertu. Silvia. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 630 99 11 85

**Debagoiena.** Gizona gertu lanerako. Nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela, egun osoz. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 602 07 12 06 telefonora.

**Debagoiena.** Erizaintza laguntzailea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko. Etxeko garbitasunak ere bai. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 630 20 12 03

**Debagoiena.** Mutil arduratsu eta eskarmentuduna egun osoz lanerako gertu. Denetariko lanak egiteko gertu. Legezko paperak ditut. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 602 48 36 75

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, legezko paperekin, lanerako gertu: igeltsari edo nekazaritza laguntzaile, zerbitzari zein nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa dazkat. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 648 75 24 96

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako: sukaldari laguntzaile, eraikuntzako peoia, garbiketa industrialak edota etxeko lanak egiten. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 688 86 04 02

**Debagoiena.** Mutila gertu makanikari lanak egiteko. Baita igeltsero, margolari eta berritze lanak egiteko ere. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 691 795 334

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, margoketa lanetan, soldatzen edo nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Gidabaimena daukat. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 637 07 23 70

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen edo atariak garbitzen lan egingo nuke. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 679 30 65 28

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esparientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono hauetara: 695 73 87 95 edo 943 71 53 74

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 678 98 54 64

**Debagoiena.** Neska arduratsua geru garbitasun lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia eta erreferentziekin. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 634 28 16 34

**Debagoiena.** Neska arduratsua orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 636 80 87 68

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke gauez, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 674 93 20 47

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna lan bila etxean bertan bizi izaten. Berehala hasteko moduan. Deitu 727 74 42 36 edo 686 07 39 33 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska euskalduna, esperientzia eta informeekin, umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Baita gauez ere. Disponibilitate osoa, gidabaimen eta autoarekin. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketan. 632 09 72 93

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketan. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 617 64 08 48

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: umak edo nagusiak zaintzen eta atari garbiketak egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 617 64 08 48

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi zein umeak zaintzeko edota garbitasun lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Orain Eibarren bizi naiz. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 631 22 32 92

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Nagusi edo umeak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein egun osoz. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 672 70 71 25

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zaintzen, garbiketak, atariak eta abar Debagoienean. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak ere baditut. Interesatuok deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danni. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

**Gaztea lan bila.** Gazte arduratsua lan bila. Abeltzaintzan, baserrietan, mendian edo igeltsero lanetan. 631-20 42 37.

**Gaztea lan bila.** Gaztea lan bila. Nagusien zaintzan, paleta laguntzaile aurreratu legez, edo antzeko lanen baterako. 697-66 48 18.

**Gizon arduratsua lan bila.** Gizon arduratsua edozertan lan egiteko prest. 653-29 86 17.

**Gizonezkoa lana egiteko gertu.** Astelehenetik egubakoitzera arratsaldez lan egiteko gertu nago, eta baita asteburuetan ere. Edozein lan egiteko gertu. Deitu 636 60 48 51 telefono zenbakira.

**Lan ezberdinak egiteko prest.** Basoan lan egiteko, margo lanak eta elektrizitate lanak egiteko mutila eskaintzen da. Esperientzia handia eta orduka edota jornada osoa lan egiteko prest. 697 74 79 61 .

**Lan bila nabil.** Biltegietan ganadua zaintzen, igeltsero, lorezain zein mendian lan egiteko prest. 638-32 03 45.

**Lan bila zaintzan, garbiketan, sukaldean.** Lan bila nabil, pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile. Erreferentzia onekin. 638-43 79 01.

**Mutil arduratsu eta eskarmentuduna egun osoz lanerako gertu.** Mutil arduratsu eta eskarmentuduna egun osoz lanerako gertu. Denetariko lanak egiteko gertu. Legezko paperak ditut. 602-48 36 75.

**Mutila gertu edozein lan egiteko.** Etxeko mudantzak, jardineko lanak, etxeko mantenu orokorreko lanak egiten ditut. 663 34 70 36

**Neska arduratsua gertu lanerako.** Neska arduratsua gertu lanerako: nagusi edo umeak zaindu eta garbitasun lanetan. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientziaduna. 631-22 32 92.

**Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko.** Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko debabagoienan. Jatetxeetan ere bai, laguntzaile gisa. 630-20 12 03.

**Zaintzan zein garbiketan lan bila.** Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak (taberna, portalak, etxeak...) egiteko prest. 24 orduz edo egunez. 648-20 03 70.

**Zaintzan, garbiketan edo baserrien mantentzean lan bila.** Pertsona nagusien zaintzan, garbiketan edo baserrien mantentzean lan bila nabil. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 638-37 36 79.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Frantsesa.** Neskatila batentzako frantses irakasle bat behar dugu, zerotik hasteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 43 80 66

**Matematika eta fisika.** Matematika eta fisikako eskola partikularrak hartuko nituzke, Batxilergoko 2. mailakoa. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 679 74 00 61

**Teknologia.** Batxilergoko bigarren mailako teknologia eskola partikularrak hartuko nituzke. 679 74 00 61

### 502. EMAN

**Eskola partikularrak.** Esperientziadun irakaslea eskola partikularrak emateko eskaintzen da, bakarka edo taldeka. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 615-73 53 85 telefono zenbakira edota idatzi biritxi@gmail.com helbidera.

**Eskola partikularrak emateko prest.** Neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest. Astean zehar, bai eta asteburuetan ere. Esperientzia handikoa. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 653-71 24 60.

**Ikasketa arazoak, hiperaktibitatea.** Kontsulta psikologikoak. Haur eta gazteak. Ikasketa arazoak, hiperaktibitatea, ikasketa teknikoak. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 679-72 30 21.

**Ingeles irakaslea.** Esperientziadun eta hizkuntza eskolako tituludun ingeles irakaslea naiz. Klase partikularrak ematen ditut, bakarka edo taldeka (talde txikiak). Maila guztiak. Informazio gehiago nahi izanez gero, 637 -29 24 65 telefonora deitu.

**Inglesa,frantsesa, matematika,fiska eta abar.** Klase partikularrak ematen dira: ingelesa, frantsesa,matematika, fisika,kimika,,eta abar. Taldeka edo bakarka. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@yahoo.es.

**Klaseak , ikas-teknikak.** Klase partikularrak , ikas teknikak: erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloak ; LH, DBH eta batxilergoa. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 656 79 15 99.

**Kimikari euskalduna eskola partikularrak emateko prest.** Kimikan lizentziatutako neska gazte arduratsuak eta ikasle bikaina izandakoak Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza,- batxilergoa nahiz unibertsitate mailako eskola partikularrak eta osagarriak ematen ditu. Arreta pertsonalizatua eta ordutegi zabala. Informazio gehiagorako jarri harremanetan edutxo@hotmail.com helbide elektronikoan edo 635-20 85 33 telefonoan.

**Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest.** Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Astean zehar eta baita asteburuetan ere. Esperientzia handikoa. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 653-71 24 60

**Neska euskaldunak eskola partikularrak ematen ditu.** Neska euskalduna batxilergoduna eta administrazioan titulatua eskola partikularrak emateko prest. Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoan. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 662-36 41 67

**Partikularrak.** Irakaskuntzan esperientzia duen gazte euskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrak emateko prest. Telefonoa: 675-00 79 19 emaila: egorrono@gmail.com

**Psikologo euskaldunak ikasketa teknikoak eskaintzen ditu.** Psikologo euskaldunak eskaintzen du: ikasketa teknikoak, idazketa-irakurketa-ulermen arazoak. Interesatuak eta harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 679-38 23 69.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana salgai.** Ohe handi bi eta saloia. 8 urte. Garaje handia. 27.000 euro. 653-71 23 21.

**BMW e30 salgai.** Bmw e30 318i bat saltzen dut. Kotxeak 18.000 km ditu eta beltza da. Zenbait aldaketa egin dizkiot: kirol ihes-hodia, errodamendu berriak, pneumatiko berriak. Gainerako guztia seriez etorri bezala dago. Prezioa 1500 euro da eta «piña momo» bat ematen dut opari. Saltzeko arrazoia erabiltzen ez dudalako da. Telefono zenbakia: 688-61 45 88.

**Daf 55.250 kamioia salgai.** Daf 55.250 garabi kamioia salgai. 2002. Urtekoa. 600.000 km eta egoera onean. Oraindik erabilgarri. P. M. A.: 15.000kg. Kargatu daitekeen gehienezko pisua: 7400kg. 699 -99 85 10. 659-42 58 90. Posta: aotxotorena@yahoo.es.

**Furgoneta salgai.** Mercedes Viano fun furgoneta luzea salgai. Kristal tindatuak. Bizikletak eramatekoa. Mahai eta ohearekin.6 lagunentzako lekua. Oso egoera onean. Zatoz ikustera! 615-00 72 16.

**Furgoneta salgai.** VW California furgoneta salgai. 2.500. Tdi 102 cv. 656-76 46 73.

**Karabana salgai.** 4-5 plazadun Roller karabana salgai. Egoera eta prezio onean. 679 -31 00 83.

**Motorra salgai.** Derbi motorra salgai. Gurpilak berriak ditu eta bateria jarri berria. Beti garajean dago. Paperak eta itv eguneratuak. Prezioa adostu daiteke. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 653-01 72 51.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ahuntz eta aumak salgai.** Ahuntz eta aumak salgai. Telefonoa: 695-71 00 68.

### 703. EMAN

**Katuak opari.** 2012ko uztaileko katu txikiak opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 92 70 71

**Txakurkumeak.** Arratoi-txakurkume bat eta artzain-txakurkume bat ematen dira opari. 685 75 86 49

**Txakurkumeak.** Bi arratoi txakurkume ematen dira Aramaion. Bat emea eta bestea arra. Bi hilabete dituzte. 945 44 51 46

**Txakurra opari.** "Bodegero Andaluz" arrazako txakurra, emea, emango nuke opari. 600 05 50 74

### 704. BESTELAKOAK

**Artzai txakurra galdu Aramaion.** Artzai txakur emea galdu zen larunbat goizean Aramaion. Gorrixka da eta mutur punta beltza du. Merke izenari erantzuten dio. Norbaitek ikusi edota aurkitu badu mesedez deitu telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik mila esker. Harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 655 71 39 27

**Setter txakurra galdu da Oñatin.** Setter arrazako txakurra galdu zen Oñatin ostiralean, otsailaren 8an. Zuri kolorekoa da eta lepoko laranja dauka. Norbaitek aurkitzen badu dei dezala telefono honetara:. Harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 678 62 40 07

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Akuarioa.** 80 litroko akuarioa + armairua. 80 litroko akuarioa salgai. Osagarri guztiak dauzka: filtroa, argia (eguneko eta gauekoa), harriak, apaingarriak, kristalaren atzeko fondoa, oxigenatzeko motorra tuboarekin, etab. Bere armairua du neurrira. Janaria eta ur egokitzailea opari. Oso ondo zaindua dago. Dena 150 eurotan baina prezioa adostu daiteke. 653-01 72 51.

**Aulkiak eta mahaiak salgai.** Tabernetako terrazetako mahaiak eta aulkiak saltzen ditut. Prezio ekonomikoa. Harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 691-78 86 31.

**Dekorazio aldizkariak salgai.** Dekorazio aldizkariak salgai. la debalde. 695-70 62 27.

**Furgonetako ohea salgai.** Volkswagen t5-eko ohea salgai, koltxoi eta izarekin. Egoera onean. Prezioa: 300 euro. 669 -10 43 22 (Igor). Posta: igor.anitxu@gmail.com.

**Hamster kaiolak salgai.** Hamsterrentzako bi kaiola salgai, bere gurpil, janontzi eta edalontziekin. Erabiliak direla eta barroteek oxido pixka bat dute. Biak 10 euro. 653-01 72 51.

**Izotza egiteko gailua salgai.** Izotza egiteko gailua salgai. Oso prezio ekonomikoa. 691-78 86 31.

**Kanpadenda salgai.** Marechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonarentzat. Aukera ezinhobea!100 euro. 615-00 72 16.

**Ostalaritzako materiala salgai.** Negozioa ixten delako, ostalaritzako materiala salgai. Edalontziak, mota guztietako platerak, mahai-tresnak, makina erregistratzailea, lanparak, aulkiak.... Dena egoera onean, oso gutxitan erabiliak. 674-96 03 64.

**Sofa salgai.** 3 plazako sofa salgai. Chaise longuearekin. Oso ondo zaindua. 615-00 72 16.

**Taxi lizentzia.** salgai Bergaran. Deitu telefono zenbaki honetara: 617 42 97 45

**Terrazarako kulunkaulkiak.** Terrazarako egurrezko bi kulunkaulki salgai. Etxe aldaketagatik saltzen ditut. Berri berriak daude, ia ez dira erabili. Biak 100 eurotan. 653-01 72 51.

**Transportina salgai.** Animali txikiak edo ertainak eramateko transportina salgai. Neurriak: 30x40x22cm. Behin bakarrik erabilia. 653-01 72 51.

**Trikitixa salgai.** Dino Baffetti urdina salgai. 4 ahosduna eta oso ondo zaindua. Interesatuta baldin bazaude, jarri kontaktuan nirekin 94-658 33 77 zenbakian (gauez deitu).

### 802. EROSI

**Aramaio.** Lursaila erosiko nuke. (Naiara). 615 79 17 07

**Bergaran** edo Debagoienean lursaila erosiko nuke. Hektarea bat edo bikoa. 625 70 21 98

**Bizikleta bat nahi dut.** Errepidean ibiltzeko bizikleta gura dut. Zaharra eta merkea bada berria eta karua baino hobe. 94-648 14 15

**Elurretarako erraketak.** erosiko nituzke. Harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 655 71 41 24

**Ordenagailua.** Ordenagailu eramangarria erosiko nuke. Harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 656 75 76 98

**Trikitixa erosiko nuke.** Trikitixa bat erosiko nuke, 4 ahotsekoa eta SIb-en afinatua. Ahal izanez gero Zero Sette markakoa. Erabiltzen ez duzun trikitixa hori saltzea erabakiko bazenu, jarri kontaktuan!.678 82 29 95

### 804. HARTU

**Bidali zure ordenagailua Peru eta Boliviara.** Hondatuta,zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Bolivia eta Peruko eskoletara. 655-71 76 66.

**Bizikletak.** Bizikleta zaharrak botatzeko badauzkazu, nik jasoko dizut. Iñaki. 699 06 23 95

**Liburuak batzen ditut.** Zuen etxeetako apal zein ganbaratik kendu nahi dituzuen liburuak batzen ditut. 645-72 00 52.

**Sukaldea jantzeko materiala behar dugu.** Onatiko gaztetxean sukalde herrikoia egiteko asmoa daukagu. Horretarako, edalontzi eta plateretatik hasi, eta sukaldea lortzeraino, esker onez jasoko ditugu era guztietako tresna, gailu eta aparatuak. 688 68 14 60

**Sofak.** Etxetik sofa zaharrak hartu eta bere erantzukizunaz arduratzen gara. Zaborretara bota beharrean utzi geure esku gu arduratuko gara etxetik bertatik sofa zaharrak hartzeaz eta bere berrerabilpenaz edo birziklatzeaz. Zerbitzu guztiz doakoa da. 671-92 06 49.

### 806. GALDU

**Belarritakoak Aretxabaletan.** Igande karnabaletan belarritako baltzak galdu nituen Aretxabaletan. Norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara. Eskerrikasko.675 00 66 03

**Bideo kamera Arrasaten.** Larunbatean, otsailaren 9an, bideo kamera bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, BAZen utzi edo telefono hontara deitu. Mila esker. 616 81 21 25

**Erlojua Oñatin.** Otsailaren 29an, emakume erlojua galdu nuen Ugarkaldetik kalera bidean. Lotus etxekoa, zilar kolorekoa, esfera beltz eta zenbaki laranjaduna. 686 69 44 22

### 808. BESTELAKOAK

**Baratza Bergaran.** Baratza jartzeko lursail bat hartuko nuke. Deitu 650 62 12 94 edo 943 76 19 52 zenbakietara.

**Baratza Oñatin.** Lursail bat nahiko nuke baratza jartzeko, Onatin. 647 24 40 54

**Lekuko bila Bergaran.** Astelehenean, otsailak 18, Ibargarai 11 kalean, fruta denda parean autoa kolpatu zidaten aparkatuta nuela. Eguerdi aldera. Norbaitek zerbait ikusi badu mesedez deitu. Mila esker. Harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 660 04 77 70

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasateko elkarte gastronomiko baten plaza erosiko nuke.** Zure plaza saltzeko asmoa baduzu nik erosiko nizuke. Alde zaharrean bada hobe, baina ez ditut beste aukerak baztertzen. Harremanetan jartzeko, deitu ezazue telefono honetara: 667 95 73 16 .

**Bazkide berrien bila Txoko Salabarriren parte izateko.** Bazkide berrien bila gabiltza Txoko Salabarriren parte izateko (Mendizabal auzunean). Interesatuek deitu 650-49 90 74

# Mugikor bidezko ordainketa aurten ezartzea nahi dute

Bartzelonako MWC erakustazokatik ateratako joera nagusietako bat da

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Mugikor bidezko ordainketak ez dira inolaz ere gauza berria eta Japonian urteak daramatzate eguneroko ordainketa txikietan sistema hau erabiltzen. Txanpon-txartel elektronikoak bezalatsu, gurean garraio publikoan edo janari banaketa makinetan erabiltzen diren moduan, ordainketa modu hori 2013an mugikorretara eraman eta zentralizatu egingo dela diote. Hala erakusten du Bartzelonan egin berri duten Mobile World Congress erakustazokatik ateratako joera nagusiak, alorreko enpresa nagusiek horretan ipini baitute fokuetako bat aurtengo edizioan.

### Adiskidetasun estrategikoak

Visa, MasterCard eta PayPal enpresek aurkeztu dituzte asmorik handienak eta gertu daude proposatutako sistemak mugikor eta sistema eragile nagusietan ezartzeko. Helburua bakarra da: mugikor eta tabletak eguneroko ordainketetan erabili ahal izatea. Teknologia aspalditik dago gertu eta orain sistema ezartzea da geratzen dena, eskuko telefono inteligenteen erabateko zabalkundea ikusita.

### NFC-a, abiapuntu bezala

NFC delako teknologiak izan du garapen handiena alor honetan. Bluetooth-aren antzeko irismen txikiko sare segurua erabiltzen da horretarako. Dagoeneko gailu askok dakarte NFC teknologia eta Google-ek, esate baterako, aspaldi egin zuen aldeko apustua *Wallet* sistemarekin. Bilaketen handikiari, orain, Samsung eta Visa gehitu zaizkio. Hain zuzen, Samsung-ek teknologia horren bidez, Visaren ordainketa kanalak erabiliko ditu. Aliantza honek, duda barik, bultzada handia emango dio mugikor bidezko ordainketari. Ez da alorreko bategite bakarra izan eta Orange eta MasterCardek ere eskutik joateko hitzarmena sinatu berri dute, eta lanean hasiko diren lehen lurraldeetako bat Espainia da; MasterPass izeneko ordainketa plataforma irekiko dute bi enpresek kasu honetan.

### 'Datafono' pertsonalak

Nagusiki NFC teknologia erabiliko bada ere, ez da izango ordainketa bide bakarra. Erosketak egiteko QR kodeak ere erabiliko ditu Orange eta MasterCard-en sistema honek, produktuaren barra kodea eskaneatu eta ordainketa kutxatik igaro gabe egiteko. Diotenez, sistema hau erosoagoa eta arina da, ez dagoelako etengabe erosketa bakoitzeko sistemari gure txartelen datuak eman beharrik.

Telefono aurreratu guztiek, baina, ez darabilte NFC sistema eta badaude bestelako ekimenak NFC-a guztiz baztertzen dutenak. PayPal da horietako bat. Iaz kreditu txartelak irakurtzeko hardware osagarria aurkeztu zuten, TPV ala "datafono" moduko bat bilakatuta. Hala ere, PayPal-etik onartzen dute ordainketa sistema erraztu eta sinplifikatu beharra dagoela. PayPal-ek, lehia honetan, ospe zabaldua du Internet bidez erosketak egiten dituzten erabiltzaileen artean, oso segurua delako.

### Uda ostean, martxa betean

Zerbitzu gehienen plana da uda ostean guztia abian izatea. Ordurako operatzaileek aplikazioak eta ordainketa sistemak aurkeztuta izan beharko dituzte eta, noski, terminaletan eta komertzioetan mugikor bidezko ordainketetarako hargailuak ipinita. Estatuan, Vodafone, Movistar eta Orange konpainiek iragarri dute jada hala egingo dutela eta espero dute erabiltzaile eta komertzioen %30ak, gutxienez, sistema berria erabiltzen hastea. Adituek diote hori dela egitasmoak arrakasta izan dezan beharrezko masa kritikoa. Vodafone konpainiatik, gainera, eman dituzte xehetasunak eta diote 20 eurotik gorako erosketetan beharrezkoa izango dela PIN-a sartzea, adibidez; bestela ez. Vodafonek Visarekin egin du tratua, Telefonicak Caixarekin eta Orange-ek MasterCard-ekin. 2016 urtera arte iraungo du hasierako zabalkunde faseak eta nahi dute ahalik eta telefono eta gailu gehienek izatea NFC teknologia.

# Hobekuntza tekniko berriekin, abian da atzera 'Umap.eu'

**J.B.** | ARRASATE

Twitterren euskaraz egiten den jarduna bildu eta antolatzen duen webgunea berritu eta berrabiarazi egin dute. Martxan da berriz ere *Umap.eu*.

Duela bi urte ekin zioten *Umap.eu*-ren proiektuari eta, hobekuntza teknikoen ostean, martxan da berriz. 2012ko udan sistemak goia jo zuen eta horregatik egin behar izan dituzte aldaketak. Orain arteko ezaugarriekin jarraitzen du zerbitzuak, baina.

### Euskaldunen atzematea

Euskaldunak izan daitezkeen tuiterlariak identifikatzen ditu Umap-ek eta, euskaraz dihardutela atzemanda, haien jarduna aztertzen du. Horri esker, *Trending Topic*-a edo gai komentatuenen zerrenda osa dezake, traola daukaten hitzak kontatuta. Egunean pil-pilean dagoena atera dezake, hortaz, sistemak eta hori aurkeztu.

Euskal tuiterlarien zerrenda ia osoa osatuta dauka Umap-ek eta aktiboenen zerrenda ere egiten du, jarraitzaile kopurua, jasotako bertxioak, idatzitako euskarazko txioen interesa eta beste hainbat datu kontuan hartuta.

### Albistegi automatikoa

Umap-ek hortaz albistegi "robotizatu" baten funtzioa dauka eta erabiltzaileen artean gehien partekatu eta komentatutako loturak eta gaiak azaleratzen ditu. Aktualitatea jarraitzeko bide interesgarri eta bizia planteatzen du Eibarren egoitza duen Code&Syntax enpresak garatutako sistemak.




Umap berriaren pantaila-irudia. | UMAP.EU




Amazon-en denda digitala. | AMAZON

# Musika salmentak, 1998az geroztik lehen aldiz gora

Formatu digitalaren hazkundeak ekarri du igoera, baina %0,3koa besterik ez da izan 2012an

**J.B.** | ARRASATE

Industria Diskografikoaren Nazioarteko Federazioak urteko txostena aurkeztu du. 1998an hasitako salmenten beherakadarekin amaitu zen iaz, txostenaren arabera, eta hazkunde hori salmenta digitalak eragin duela zehazten du. Musika salmenta osoaren %9a besterik ez da digitala, baina formatu horrek eman dio arnasa alorrari, txostenaren arabera. Hazkundea, hala ere, txikia izan dela diote, zehazki %0,3koa.

### Copyright-arekin bueltaka

Musika salmentaren etsaia deskarga ilegala dela berresteko ere erabili dute txostena. Placido Domingo kantari espainiarra da federazioko presidentea eta hark gobernuei eskatu die egile eskubideak zaintzeko neurrietan gogorragoak izan daitezela. Hain zuzen, opera kantariaren jaioterria da, federazioaren arabera, "herrialde piratenetako bat". Industria diskografikoaren merkatua %5 jaitsi zen 2012an. Munduan mailan, iaz, industria horrek 4.250 milioi euro irabazi zituen eta Espainian 141 milioi. Proportzio horri "txikia" dela deritzote federaziotik. Domingok berak Espainiako Gobernuari jakinarazi dio Sinde Legea porrota izan dela. *Copyright*-aren babesa ezinbesteko jo du Domingok, esanez modu bakarra dela industriak dirua egiten jarraitu eta artisten ibilbide eta garapenean inbertitzen jarraitzeko. Musikarien biziraupenerako ezinbestekotzat jo du, hortaz, egiletzaren babesa.

# Google Glass aurten salduko dute, 1.500 dolarretan

**J.B.** | ARRASATE

Google-en errealitate areagotuko betaurrekoak aurten merkaturatuko dituztela konfirmatu dute. 1.500 dolarren bueltan ipiniko dute salgai betaurreko parea. Hasiera bateko asmoak aurreratu eta 2013an bertan eskura izango dira Google-en betaurreko famatuak. Oraindik gutxi dira aurreratutako xehetasunak, baina Google-etik baieztatu dute Bluetooth teknologia erabiliko dutela betaurrekoek, eta Android eta IOS-a daramaten gailuekin bateragarriak izango direla. Ez dute 3G konexio propiorik izango eta, beraz, beharrezkoa izango da inguruan 3Ga duen gailuren batera konektatzea. Diseinu eta modeloen inguruko xehetasunik ez dute ezagutzera eman.

# Europa, 5G teknologia ikertzen aitzindari

**J.B.** | ARRASATE

Europar Batasunak 50 milioi euro bideratuko ditu 5G-aren ikerketarako, eta Telefonica, British Telecom, SAP, Nokia eta France Telecom konpainiek esku hartuko dute. Europa mugikorren industriaren lehen lerroan kokatzea da helburua. 4G sareen osteko belaunaldian hasiko lirateke, hortaz, lanean Europako ikerlariak. Telefonia konpainiez gain, alorreko handiki askok ere partaidetza izango dute, modu batean edo bestean, Nokia, Siemens edo BMW moduko etxeekin.

5G sareak, diotenez, egungoak baino 1.000 aldiz datu bolumen handiagoari eusteko gauza lirateke, eta mugikor eta tabletez gain etxeko gailuetan edota autoetan ere erabili daiteke.

## TELE-BEGI



IMANOL GALLEGO

# Zinea telebista baino errazagoa

Beti pentsatu izan dut zinea telebista baino konplexuagoa izango zela, baina aurtengo Goya eta Oscar sariak ikusi ostean kontrakoa pentsatzen hasi naiz. Bi akademiek aurtengo uzta oparoa goraipatu zuten, horrekin ados nago, aurten pelikula on ugari ikusteko aukera eduki dugu-eta. Baina *Blancanieves*, *Lincoln*, *Grupo 7*, *Argo*… egin ostean, ez dakite ganorazko galak egiten?

Bietan telebistarekin zerikusi handia duten aurkezleak aukeratu zituzten eta ironia nahiz "txisteak" izan ziren bi galen ardatz nagusiak. Zoritxarrez, bi ekitaldiak nahiko aspergarriak izan ziren eta nire ustez luzeegiak. Momentu hauetan Buenafuente eta Whoopi Goldbergen galak datozkit burura, zenbat barre! Dena den ezberdintasun nabarmen bat aurkitu dut bi ekitaldien artean. Oscar garrantzitsuena Michelle Obamak eman zuen Etxe Zuritik, esan beharrik ez dago, Goyatan ez dugula horrelakorik inoiz ikusiko. Ze gertatuko litzateke Elvirak (Rajoyren emazteak) film onenaren gutun-azala izango balu? Akaso, ohituragatik edo, poltsikoan gordeko luke irabazlearen izena irakurri beharrean!

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

**ASTELEHENA, 4**



**Tertulia**

Gaurkotasuneko gaiak izango dira berbagai asteleheneko solaskideekin, Txomin Madinak gidatuta. | **20:17**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:20** Onein
**13:42** Laino arteko plana
**14:12** Ekogune
**14:42** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:18** AsteON
**15:58** Bizitegia
**16:28** Zorion Agurrak
**16:33** Berriak
**16:58** Eguraldia
**17:01** Onein
**17:33** Aho bizarrik gabe
**18:44** Ekogune
**19:14** Hitzlandia
**19:35** Beranduegi.tv
**19:55** Berriak
**20:15** Eguraldia
**20:17** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:29** AsteON
**21:59** Harmailatik
**22:44** Berriak
**23:04** Eguraldia
**23:07** Magazinea
**23:52** Harmailatik
**00:12** Eguraldia

**MARTITZENA, 5**



**Albistegia**

Asteburuan eta egunean zehar jasotako albisteak eskainiko dizkizue Monika Belastegik. | **14:45**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Ekogune
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:10** Harmailatik
**15:55** Onein
**16:17** Aho bizarrik gabe
**17:28** Berriak
**17:48** Eguraldia
**17:51** Esatea libre
**19:09** Harmailatik
**19:54** Zorion Agurrak
**19:57** Berriak
**20:17** Eguraldia
**20:19** Magazinea
**21:04** Gurean gaur
**21:34** Bertso saioa
**22:14** Berriak
**22:34** Eguraldia
**22:39** Magazinea
**23:24** Bizitegia
**23:52** Berriak
**00:39** Berriak
**00:44** Eguraldia
**00:47** Magazinea

**EGUAZTENA, 6**



**Makrobiotika**

Eguazteneko osasun tartean Jesus Larretxea makrobiotikako aholkularia izango dugu berbetan. | **20:19**

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:10** Harmailatik
**13:55** Sagarrondotik
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Klaketa
**15:45** Onein
**16:11** Harmailatik
**16:56** Sagarrondotik
**17:29** Zorion Agurrak
**17:34** Berriak
**17:54** Eguraldia
**17:56** Ikusmira
**18:19** Hitzlandia
**18:42** Bizitegia
**19:12** Ikusmira
**19:29** Beranduegi.tv
**19:49** Zorion Agurrak
**19:52** Berriak
**20:17** Eguraldia
**20:19** Magazinea
**21:04** Gurean gaur
**21:35** Sagarrondotik
**22:17** Ekogune
**22:47** Berriak
**23:07** Eguraldia
**23:09** Magazinea
**23:54** Harmailatik
**00:04** Berriak
**00:24** Eguraldia

**EGUENA, 7**



**'Planik bai?'**

Asteburuko planik bai? Maider Arregik emango dizu asteburuko kultura hitzorduen berri. | **17:14**

**12:00** Magazinea
**12:50** Gurean gaur
**13:20** Bertso saioa
**14:00** Ikusmira
**14:23** Onein
**14:44** Zorion Agurrak
**14:46** Berriak
**15:06** Eguraldia
**15:09** Ikusmira
**15:27** AsteON
**16:07** Berriak
**16:27** Eguraldia
**16:30** Onein
**16:56** Ikusmira
**17:14** Planik bai?
**17:34** AsteON
**18:14** Bertso saioa
**18:54** Zorion Agurrak
**18:59** Beranduegi.tv
**19:24** Berriak
**19:44** Eguraldia
**19:48** Planik bai?
**20:10** Zorion Agurrak
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** Laino arteko plana
**21:59** Planik bai?
**22:19** Berriak
**22:39** Eguraldia
**22:42** Magazinea
**23:27** Klaketa
**00:00** Planik bai?
**00:20** Berriak
**00:40** Eguraldia

**EGUBAKOITZA, 8**



**'AsteOn'**

Asteak emandako albiste esanguratsuenen errepasoa egingo dugu, besteak beste, *AsteOn* saioan. | **22:00**

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Zorion Agurrak
**13:10** Gurean gaur
**13:40** Onein
**14:11** Bizitegia
**15:05** Eguraldia
**15:08** Planik bai?
**15:28** Erreportajea
**15:58** Laino arteko plana
**16:28** Beranduegi.tv
**16:48** Zorion Agurrak
**16:53** Berriak
**17:13** Eguraldia
**17:16** Planik bai?
**17:36** Erreportajea
**18:06** Zorion Agurrak
**18:09** 28.Klip
**18:41** Beranduegi.tv
**19:05** Zorion Agurrak
**19:08** Berriak
**19:28** Eguraldia
**19:30** Planik bai?
**19:50** Goierri Creation Center
**20:23** Laino arteko plana
**20:53** Gurean gaur
**21:25** Berbetan
**22:00** AsteON
**22:30** Berriak
**22:50** Eguraldia
**22:53** Esatea libre
**00:47** Planik bai?

### ARRASATE IRRATIA

#### Emakumeen Nazioarteko Eguna berbagai, 107.7an

Martxoaren 8an ospatuko da Emakumeen Nazioarteko Eguna eta, horren harira, Arrasateko Emakume Txokoko Amets Beltran De Gebara elkarrizketatuko dugu. Egun horretarako prestatu duten egitaraua eta nondik norakoak kontatuko dizkigu Arrasate Irratiko uhinetan.

#### From The Jam taldea ikusteko sarrerak zozketatuko ditugu

Egubakoitzean 22:30ean emango dute kontzertua Oñatiko Gaztelekuan From The Jam eta Plan B taldeek. Bertara joateko sarrerak lortu nahi badituzu, Arrasate Irratian eskuratu ditzakezu. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera eta hartu parte zozketan.

#### Zoriondu zure familiartekoak edo lagunak irratitik

Norbait zoriondu nahi eta mezuren bat utzi nahi baldin badiozue, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Bidali zuen zorion agurrak Arrasate Irratira eta geuk zoriondu ko ditugu bertatik. Kanturen bat eskaini nahi badiozue ere, ematen dugu horretarako aukera.

## TELE-ALBISTEAK

# Mondra eta Aloñaren arteko derbia ikusgai 'Harmailatik' saioan

Bestelako kirol hitzorduak ere jasoko ditugu; saskibaloia, ziklismoa eta errugbia, besteak beste



Derbiko une bat. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Mojategin urrezko puntuak izan ziren jokoan atzo, domeka. Mondra eta Aloña Mendi taldeek indarrak neurtu zituzten zelaian eta bertan jasotako irudiak ikusteko aukera izango duzue gaur, astelehena, 21:59ean. Protagonisten adierazpenak ere entzun ahal izango dituzue, Mireia Bikuñak aurkeztuko duen saioan.

Bestalde, saskibaloian, Atletico San Sebastian liderraren bisita izan du MUk Iturripen asteburuan eta partiduak eman zuena ere erakutsiko dizuegu.

Errugbiko irudiekin gozatzeko aukera ere izango dugu gaurko *Harmailatik* kirol saioan, izan ere, asteburuan errugbiak eman duena ere jasoko dugu.

Eta horrez guztiaz gain, eguenean Lokatza ziklismo taldeak bere txirrindulariak aurkeztu zituen Bergaran eta aurkezpen horretako irudiak ere ikusi ahal izango dituzue saioan.

Hori guztia eta gehiago, gaur, astelehena, 21:59etatik aurrera ikusi ahal izango duzue Goiena telebistan.

# 'Magazinea'-n Laburbira film laburren zirkuitua izango dugu hizpide

Gaur, astelehena, hitz egingo dugu Laburbirari buruz eta tertulia ere izango dugu 20:17ean

A.T. | ARRASATE

Astelehenetik eguenera bitartean Goiena telebistan eskaintzen dizuegun *Magazinea* saioa gai ugariz josita dator aste honetan ere. Eta ekonomia eta osasun kontuak ere izango ditugu, astero bezala.

**Laburbira eta tertulia**

Gaur, astelehena, Laburbirari buruz hitz egingo dugu Topaguneako Manuel Morenorekin. Martxoaren 4tik 29ra egingo da Topagunearen Laburbira film laburren zirkuitua. Hamargarren edizioa da aurtengoa eta 20 herritan izango dira emanaldiak; Debagoienari dagokionez, Arrasaten eta Aramaion. Zortzi film labur proiektatuko dira, ordu eta laurden inguruko saioetan, eta zenbait herritan ikus-entzunezkoen zuzendariekin solasean aritzeko aukera egongo da. Horri buruz hitz egingo digu Morenok.

Eta gaurko saioko tertulian solaskide bezala bi lagun izango ditugu; alde batetik, Mariasun Pagoaga arrasatearra, eta bestetik, Karlos Etxaniz bergararra. Gaurkotasuneko gaiei buruzko solasaldia egingo dute, Txomin Madinak gidatuta.

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Irati Aperribai Mujika**
Martxoaren 10ean, 2 urte. Zorionak eta patxo potolo-potolo asko danon partetik.



OÑATI
**Eneritz Osinaga Osinaga**
Martxoaren 8an, 10 urte. Zorionak, artista! Ondo pasatu. Besarkada bat etxekuen partetik.



ARRASATE
**Uxue Kortabarria Maskariano**
Martxoaren 8an, 3 urte. Zorionak, printseza! Orain bezain alai eta xalamera izaten jarraitu dezazun. Muxu handi bana: Naroa, aitatxo eta amatxo.



BERGARA
**Ainara Gomez Familiar**
Martxoaren 7an, 10 urte. Zorionak, maitxia. 10 urte dauzkazu honezkero. Oso ondo pasatu zure egunian eta ea opariak zure gustukuak dien.



ARRASATE
**Luken Martin Ayani**
Martxoaren 6an, 2 urte. Zorionak, txikitxo! Bi urtetxorekin, geroz eta bihurriago zaude. Muxu handi bana familiako guztien, eta batez ere, Anerren partetik. Ondo pasatu zure eguna!



BERGARA
**Ander Zangitu**
Martxoaren 5ean, 23 urte. Zorionak eta urte askotarako, Zangi! Kuadrillakuen partetik.



ARRASATE
**Izaro Llodio Ramos**
Martxoaren 5ean, 7 urte. Zorionak, Puxi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Uritz Zabala**
Martxoaren 5ean, 3 urte. Zorionak, Uritz! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



ESKORIATZA
**Aitor Agiriano**
Martxoaren 4an urtebetetzea. Zorionak aita, ama eta anaiaren partez. Muxu handi bat eta ondo pasatu zuk merezu duzu eta.



BERGARA
**Ana Lazcano Gurruchaga**
Martxoaren 4an, 71 urte. Zorionak eta urte askotarako, amama. Zoragarria zara eta segi horrelakoa izaten gurekin. Iker, Iosu, Ziortza eta Endikaren partetik.



OÑATI
**Mailu Guridi Igartua**
Martxoaren 4an, 55 urte. Zorionak eta urte askotarako, amama. Mila laztan etxeko danon partetik eta bereziki oraingoz etxeko txikiña dan Izarren partetik. Egun ederra pasatu! Muak!



OÑATI
**Natale Kortabarria Txintxurreta**
Martxoaren 4an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat danon partetik, bereziki Enaitzek.



BERGARA
**Eneko Unamuno**
Martxoaren 2an, 23 urte. Zorionak, Kox! Ondo pasatu zure egunian! Kuadrilakuon partetik!



OÑATI
**Lexuri Altube Arkonada**
Martxoaren 2an, 2 urte. Zorionak, poxpolina! Muxu pottolo eta goxoak etxeko guztien partetik. Ikaragarri maite zaitugu, pottotti!



ELGETA
**Alaitz Agirreurreta Litago**
Martxoaren 2an, 7 urte. Zorionak, Alaitz! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik!



ARRASATE
**Naiara Oroiz Muñez**
Martxoaren 2an, 6 urte. Zorionak, Naiara! Zu zara gure etxeko artista tximista! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Musu potolo bat familiakoen partetik, batez ere Nereak.



ARETXABALETA
**Andoitz Gomez Iturbe**
Martxoaren 1ean, 5 urte. Zorionak, Andoitz, bihurri. Dagoeneko eskuko hatz guztiak jaso ditzakezu. Txokolatezko musu handi bat zure familia, lagun eta batez be zure anaia Ganixen partetik.



ARRASATE
**Paul Ayesa**
Martxoaren 1ean, 3 urte. Zorionak, Paul!



ARETXABALETA
**Saioa Berasaluze Merino**
Martxoaren 1ean, 14 urte. Zorionak etxeko danen partetik. Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu pila!



BERGARA
**Ander eta Jon Basauri Davila**
Martxoaren 1ean, urtebete. Zorionak etxekoen partetik! Muxu handi bana.



OÑATI
**Ane Garcia Calzada**
Otsailaren 28an, 3 urte. Zorionak, poxpolintxo. Txokolatezko hiru patxo, aita, ama eta Enarren partetik!



OÑATI
**Maider eta Eneko Alberdi Gil**
Otsailaren 28an, 6 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetzian eta muxu handi bat Ane, aitatxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
**Iker Moncayola Garcia**
Otsailaren 28an, 5 urte. Zorionak, Iker! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta txutxe asko jan. Muxu potoloa familia guztiaren, eta bereziki Leire, Ibai, amatxo eta aitatxoren partetik.



ARRASATE
**Ioseba Heriz Uribesalgo**
Zorionak! Gure pinpirinak 26 urte egiten ditula! Txikitan ederra izan dana, handitan be berdin! Gure mutil jatorrari patxo asko Zigarrolatik.



BERGARA
**Beñat Askargorta Aranzabal**
Otsailaren 26an, 6 urte. Zorionak, Beñat! Ondo pasatu sei urte betetzen ditxuzun egunian. Ze mutiko handixa ein zaren! Muxu handi bat Jokin, aitatxo eta amatxoren partetik. Asko maitxe zaitxugu, txapeldun!



ARETXABALETA
**Aner Zugasti**
Otsailaren 25ean, 7 urte. Zorionak, mutikote, jada 7 urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Mila-mila patxo familiaren partetik.



BERGARA
**Aitor de Benito**
Otsailaren 24an, 19 urte. Zorionak, pitxin! Urtiak aurrera egin dauiela eta gizontxo bat eginda zauz jada. Zure eguna ahalik eta onduen pasatu daizula. Patxo handi bat Oñatitik eta Eibarretik.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK



### Mara Garcia Martin

Arrasate. 2,520 kilo. Otsailaren 23a. Gurasoak: David eta Ana. Argazkian, Mara gurasoekin.



### Garazi Igartua Arrieta

Aretxabaleta. 2,300 kilo. Otsailaren 26a. Gurasoak: Itziar eta Haritz. Argazkian, Garazi amarekin.



### Oriana Paola Chacon Fernandez

Bergara. 4 Kilo. Otsailaren 28a. Gurasoak: Karina eta Jolbert. Argazkian, Oriana Paola sehaskan lo.



### Garazi Moreno Rozas

Arrasate. 3,330 kilo. Otsailaren 28a. Gurasoak: Nerea eta Roberto. Argazkian, Garazi aitona Jose Luisen besoetan.



### Unax eta June Urzelai Olabe

Aretxabaleta. 1,6 kilo bakoitzak. Otsailaren 16a. Gurasoak: Mireia eta Xabier. Argazkian, umeak amarekin.


## Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




## DENBORA-PASA

### HITZ GEZIDUNAK



* Kirol olinpiar
Letaginaren gibelean
Gai likatsua
Oihua
Puska
Neskatoa
Hesola
Baietz
Bizkaieraz, gorotza
Trapuak
Bizkaieraz, sastrala
Tximino
Beldur handia
Ibai arrain txikia
Adimenaren eritasun
Atx!
Kasik
Azkenekoa
Egoskin mota
Umildu, apaldu
Honakoa
Joan aditzaren erroa
Bizkaiko udalerria, Busturialdean

LUMA

### BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





### SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | 5 | | 8 | | | | 7 |
| 8 | | 7 | | 6 | 3 | | | |
| | | | 4 | 7 | 2 | | | |
| | | 2 | | | | 5 | | 3 |
| | | | | | | 4 | 2 | |
| 4 | 7 | | | 3 | 5 | 8 | | |
| | 9 | | 3 | | | | 5 | |
| 7 | 5 | 6 | | | 8 | 2 | | |
| | | 8 | | | | | | 4 |

### HIZKI SALDA

Topa itzazu Asiako bost ibai

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | B | E | A | I | B | O | E | T |
| E | E | G | A | N | G | E | S | A |
| A | U | A | W | E | A | E | A | B |
| O | F | A | U | A | R | T | A | D |
| B | R | A | I | N | D | O | I | A |
| E | A | U | A | A | B | A | F | U |
| A | T | Y | A | N | G | T | S | E |
| B | E | A | I | A | M | U | R | D |
| A | S | A | B | W | E | T | B | R |

### EZETZ IGARRI!

Zer da
jatekoa ez izan arren,
mahai gainean jarri, ebaki
eta banatu egiten dena?
–
Zer egin zuen Colonek
oin bat Ameriketan
jarri bezain pronto?

### SOLUZIOAK



Ezetz igarri!: Karta-sorta. / Bestea jarri.

## AI, ENE!

### Frankensteinen munstroaren pare



Orbainak baditugu, gorde egin ohi ditugu. Tatuaje horiekin, baina, umore iturri ere izan daitezke.
**www.facebookfails.es**

## AHOBERO

### "Bazenekien etxeko indarkeriak eragindako hildakoen heren bat gizonak direla?"

TONI CANTO | UPYD-KO DIPUTATUA

Canto protagonista da asteotan: animaliei eskubideak ukatu ostean, indarkeria matxistari buruz esandakoengatik ere kritika ugari jaso ditu. Diputatuak onartu du datu okerrak eman zizkiotela. Hain zaila al da zerbait txiokatu aurretik egia dela ziurtatzea?
**www.twitter.com**

## EGURALDIA



Max. 15º
Min. 6º

Hodeiak ugarituko dira, baina, oro har, erdi mailako hodeiak izango dira.
**euskalmet.net**

ASTELEHENEKOA
goiena"
2013-03-04

## HAMARREKOA

**Gurutze Beitia** Beti erakusten duen umore ona da bilbotar peto-peto horren bereizgarri nagusienetakoa; idazle eta aktore moduan *Se dice de mí* antzezlana estreinatu du duela gutxi | TXOMIN MADINA

# "Ez dago triste jartzen ez denik, eta baldin badago, tontoa da"



AGM

**1. *Se dice de mí* lana aurkeztu berri duzu. Zer esaten da, ba, zutaz?**
Ez dakit, eta ez dakit jakin gura dudan... Lanaren protagonistaz gauza asko eta politak esaten dira: Nuria Espert edo Concha Velasco bezala, antzerkiko dama bat da.

**2. Zeuk idatzitako obra da. Lana lortzeko modurik onena?**
Baliteke, baina ez zen horrela sortu: proposatu zidaten eta oso gustura hartu nuen ideia. Baina egia da argi ibili behar dela; zuk idatzita hobea da, errentagarriagoa.

**3. *La lechuga* obran ere bazaude. Egun, ezin ezeri ezetzik esan?**
Ezetza mantendu behar dugu: krisiak krisi, proiektua ez baduzu gustuko, ezin duzu edozer gauza egin. *La lechuga*-n nago irakurtzean maitemindu ninduelako; eta izaten dabilen moduan, arrakasta handia izango zela uste nuelako. Tragediatzarra da, baina umore beltza duenez, jendeak hobeto hartzen du.

**4. Agertokian barre, negar, abestu... egin duzu. Zer duzu egiteko?**
Musikal handi bat; oso gustukoa dut generoa. Bertan ze? Protagonista, hara bestea! Anita Obregonek legez 30 urteko baten papera egiten badut gainera, askoz hobe!

**5. Aktore izatea, beti izan da lehenengo aukera?**
Umetatik. Grazia egiten zien etxean: "Ze pailazoa den neskatila", zioten. Logelan altu hitz egiten nuen, pertsonaiak egin. Zaletasuna zen betiko ametsa lanbide bihurtu zen.

**6. Angelina Joliek 20 milioi dolar jasotzen ditu pelikulako. Zer esango zenioke?**
Kopuru hori kalkulatzen jakingo banu... Bejondaiola, esango nioke; baina, demagogia egin gura barik, garaiotan lotsa ere ematen dit.

**7. Beti irribarretsu ikusten zaitugu. Inoiz jartzen zara triste?**
Bai, noski, askotan! Ez dago triste jartzen ez denik, eta baldin badago, tontoa da. Baina goizero saiatu behar dugu barre egiten. Horretarako une onenean gaude: politikariek bizitza ematen digute.

**8. Sentitzen duzu beti graziosoa izateko presiorik?**
Batzuetan; ezagutzen ez duzun jendeak irribarretsu begiratzen zaitu, eta badirudi graziosoa izatera behartuta sentitzen naizela. Dena den, hain atsegina da barre eragitea...

**9. Bizkaiko sagardoaren enbaxadore izan zara, ohorezko txikitero ere bai. Nola ulertu behar da hori?**
Txakolinaren enbaxadore ere izan naiz! Hasieran, apur bat arduratzen ninduen, eta, asko edateko irudia ote dudan galdetuta, esan didate ezetz: maitekorra naizela, eta enbaxadore ona. Gainera, hain ondo pasatu dut ekitaldi horietan...

**10. Euskarako klasetik irten berri harrapatu zaitugu. Zelan zabiltza?**
Ondo; oso animatuta nago, asko gustatzen zait-eta. Oso zaila da, baina gogo askorekin nago, egunero hobeto egiten saiatzen. Poliki-poliki [euskaraz], baina ondo doa.

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

#### "Hainbat gaixotasunendako txertoak"

"Badakit krisia itzela dela, eta lana beharrezkoa. Baina makila magikoaren minbiziaren, hiesaren eta batez ere gertutik sufritu dudan alzheimerraren aurkako txertoak aterako nituzke. Niretzako gai garrantzitsuak dira: osasuna eta lana".

## BIHARAMUNA



XABIER ZUBIZARRETA

### PATRI(K)A

Mendeetan ari gara jasaten espainiar estatua eta bere erakundeak. Eta berauek gobernatzen omen dabiltzan ordezkariek, zuzentasuna eta zintzotasuna ez-ezik, heuren helburua botere metaketa eta aberastea baino ez dutela erakutsi digute. Hitzez diotenari, bukatu orduko ahaztu eta bizkar ematen diote, albo lotsa ere eraginez. Baina tira; demokrazia baino patri(k)a babestea praktikoagoa dela esanez atera zaigu Txitxarro deitzen omen den jeneral espainiar bat. Norbaitek behintzat egia esatea erabaki du eta patri(k)ari dagokionetan, gobernante hauekin bat datorren arren, gutxienez zintzoki berba egitea erabaki du; Gainera patri(k)a baino garrantzia gutxiago lukeen demokrazia horren erreferente gisa, espainiar konstituzioa jarri digu. Konstituzio hori lege bat baino ez omen da, patri(k)a sentimendu bat den bitartean; lege ez oso demokratikoa porziertoeta sentimenduak sentimendu, defentsa ministeritzaren menpe dagoen espainiar armadaren eskuetan ipintzen du patri(k)a horren batasunaren zaintza eta bermea. Kasualitatearen kasualitatez baina, jeneral hau, bere sentimendu patri(k) azale eta guzti, defentsa ministeritzaren aholkularia den Real y Militar Orden de San Hermenegildo-ko kidea da. Eta apustu egingo nuke Bar Cenas enean txitxarroa probatu duela.

